



HAURREN ESKUBIDEAK



Defensora
del Pueblo
Ararteko
Navarra-Nafarroa



Universidad de Navarra

Izenburua: Txosten berezia: “Haurren eskubideak”

Argitaratzailea: Nafarroako Arartekoaren Erakundea

© 2004ko azaroa

Diseinua–maketazioa: Carlos Fernández Prego

Inprimatzailea:

Lege-gordailua:

Laguntzaileak: -Javier Nanclares, Nafarroako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatea
- Carmen Alegría, Nafarroako Parlamentuko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzua

HAURREN ESKUBIDEAK

AURKIBIDEA

1. SARRERA	9
2. HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA, OINARRIZKO ESKUBIDEAK BABESTEKO ORDENA KONSTITUZIONAL BERRIAREN ARABERA	13
2.1. Nortasun eskubideak	15
2.1.1. Pertsona fisikoaren eskubideak	15
2.1.2. Eduki intelektualeko eskubideak	15
2.2. Gizarte proiektzioko gizabanakoaren eskubideak	16
2.2.1. Familian	16
2.2.2. Eskolan	17
2.2.3. Gizartean, oro har	17
3. ADINGABEEN ESKUBIDEEN KATALOGO BERRIA	19
3.1. Nortasun eskubideak	19
3.1.1. Pertsona fisikoaren eskubideak	19
3.1.2. Eduki intelektualeko eskubideak	19
3.2. Gizarte proiektzioko gizabanakoaren eskubideak	20
3.2.1. Familian	20
3.2.2. Eskolan	20
3.2.3. Gizartean, oro har	20
4. HAURREN ESKUBIDEAK BABESTEARI BURUZKO ARAU- ERREFERENTZIAK	23
4.1. Arau-erreferentziak	23
4.1.1. Adingabeen eskubideen katalogoa	24
4.1.1.1. Kontzeptuen zehaztapena	24
4.1.2. Adingabeen eskubideak	25
4.1.2.1. Bizitzeko eskubidea	25
4.1.2.2. Osotasun fisiko eta moralerako eskubidea	27
Adingabea delituaren biktima gisa	27
Adingabea delituaren egile gisa	28
4.1.2.3. Nork bere nortasuna eta egoera zibila izateko eskubidea	30
Egoera zibila izateko eskubidea	31
Bereziki, nork bere jatorria ezagutzeko eskubidea	32
4.1.2.4. Guraoen zaintza jasotzeko eskubidea	37
4.1.2.5. Aditua izateko eskubidea	38
4.1.2.6. Adierazpen eta informazio askatasuna	41
4.1.2.7. Pentsamendu, kontzientzi eta erlijio askatasunerako eskubidea	45
4.1.2.8. Elkartzeko eta bilera baketsuak askatasunez egiteko eskubidea	47
4.1.2.9. Ohore, intimitate eta nork bere irudia izateko eskubidea	49

4.1.2.10. Nork bere nortasuna oso-osorik garatzeko eskubidea	50
A) Hezkuntzarako eskubidea	51
B) Osasunerako eskubidea	54
C) Aisiarako eskubidea	56
4.2. Adingabeak babesteko instituzio juridikoak	59
4.2.1. Zuzenbide Komuna (Kode Zibila)	59
4.2.1.1. Guraso-ahala	59
Kontzeptua	59
Guraso-ahalaren printzipioak	60
Guraso-ahalaren titulartasuna eta egikaritzea	60
Guraso-ahalaren eduki pertsonala	61
Guraso-ahalaren ondare-dukia	63
Guraso-ahala azkentzea	64
Guraso-ahalaren kentze eta berreskuraketa	65
4.2.1.2. Adingabeak babesteko bestelako instituzioak	65
4.2.1.2.1. Adingabeen tutoretza	66
Kontzeptua eta oinarria	66
Tutorea izendatzea	67
Tutorearen egitekoak eta betebeharrak	67
Tutorea enkaitzea	68
Tutoretza azkentzea	69
4.2.1.2.2. Adingabeen kuradoretza	70
Kontzeptua	70
4.2.1.2.3. Adingabeen defendatzaile judiziala	71
Kontzeptua eta jarduketa	71
Eraentza juridikoa	72
4.2.1.2.4. Adingabeen egiteko zaintza	72
4.2.1.2.5. Adingabeen zaintza administratiboa	73
Premisa: babesgabezia-egoera	73
Babesgabeziaren ondorioak: adingabeen	
gaineko harrera	73
Familia-harrera: motak eta eraentza juridikoa	74
Barnetegi- edo egoitza-harrera	75
4.2.1.3. Adopzioa	75
Oinarritzko printzipioak	75
Adoptatzen ahal dute	76
Adoptatzen ahal dira	77
Adoptatzeko prozedura	77
Adostasunak, baieztapenak eta entzunaldiak	78
Epailearen ebazpena	79
Adopzioaren ondoreak	79
Nazioarteko adopzioa	80
4.2.2. Nafarroako Zuzenbide Zibila (Nafarroako Foru Berria)	82
4.2.2.1. Sarrera: ahalmenaren mailaketa Nafarroako Zuzenbidean	82
4.2.2.2. Guraso-ahala	86
Oinarria	86
Titulartasuna eta egikaritzea	87
Edukia	88
Guraso-ahalaren azkentzea	91
Guraso-ahalaren gabetzea	92
Luzapena	92

4.2.2.3. Adopzioa Nafarroako Zuzenbidean	93
Arau aplikagarriak	93
Adoptatzen ahal dute	93
Adoptatzen ahal dira	94
Prozedura	95
Adopzioaren ondoreak	96

5. NAFARROAKO ARARTEKOAREN JARDUKETAK HAURREN ESKUBIDEAK BABESTEAREN ALDE99

5.1. Nafarroako Arartekoaren ebazpena, adingabeen sexu-abusu edo tratu txarren gaineko laguntza, prozedura eta jarraipenari buruz	99
5.1.1. Sarrera	99
5.1.2. Haurren tratu txarren definizioa eta tipologia	101
5.1.3. Helburuak	103
5.1.4. Adingabeen gaineko tratu txarra	103
5.1.5. Zigor motak	104
5.1.5.1. Sexu izaerako delituak	106
5.1.5.2. 153. artikuluko tratu txar delitua	108
5.1.6. Tratu txar instituzionalaren prebentzioa	108
5.1.7. Esku-hartzea	110
5.1.7.1. Arrisku-egoerak	110
5.1.7.2. Balizko arrisku-faktoreak	110
5.1.7.3. Abusu edo/eta tratu txarren susmoak	113
5.1.8. Prozeduraren oinarrizko alderdiak	114
5.1.8.1. Epailearen eta Fiskaltzaren berehalako sku-hartze irizpidea	114
5.1.8.2. Salaketa: berehalakotasuna	115
5.1.8.3. Adingabearen defentsarako kautelazko neurriak ..	116
5.1.8.4. Frogaren praktikari buruzko oinarrizko alderdiak ..	117
5.1.9. Jarduteko protokolo baten beharra adingabeen abusuen arloan	121
5.1.10. Erreferentziak	122
5.2. Nafarroako Gobernuaren jarduketak Haurren Eskubideen babesaren gainean, tratu txar edo/eta sexu-abusuei buruzko prozesuetan, Nafarroako Arartekoaren proposamenari erantzunez	123
5.2.1. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren erantzuna	123
5.2.2. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren erantzuna	124
5.3. Arartekoaren proposamena, Adingabearen gaineko Foru Lege bat taxutzeari buruz. Nafarroako Parlamentuan aurkeztutako agiria	129
5.3.1. Sarrera	129
5.3.2. Printzipio orokorrak	130
5.4. Nafarroako Gobernuaren jarduketa, Adingabearen gaineko Foru Lege bat taxutzeari buruz	135

**6. NAFARROAKO GOBERNUAK AURREIKUSITAKO EKIMENAK HAURTZAROARI
DAGOKIONEZ: "NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN ARAZO SOZIALAK
DITUZTEN HAUR ETA NERABEEI LAGUNTZEKO PLANA"139**

6.1. Dotazio ekonomikoa143

7. ADINGABEA NAFARROAKO PARLAMENTUAN145

8. LEGE-ERREFERENTZIAK HAURREN ESKUBIDEEI BURUZ57

1. SARRERA

Haurtzaroa:

Bakardade hunkigarria, handiagotu beharreko etorkizuna

Bizirik jarraitzen dute “La Ley de los Niños” erakusketan ikusi ahal izan genituen 35 begirada haiek. Adingabeei buruzko foru lege baten proiektuaren azken abiada iragarri baino egun gutxi lehenago lortu zuen Nafarroako Gobernuak aurretik eginiko zirriborroa, hainbat ohar egiteko¹. Bi gertakariak lotzen dituen errealitatea, ziur asko, kointzidentziak lotu ohi dituen inguruabarrak baino garrantzitsuagoa da. Beti ari gara haurren eskubideekin gora eta behera, baina beti era eskasean, txirikordaren amaiera aurreikusten ez duen soka baten modura. Izan ere, poliki eta astialdietan ekiten baitiogu lanari. Haurren eskubideak zuzenbidezko subjektuak “ez direla” uste dugun gizaki horien munduari dagozkio.

Haurren Eskubideei buruzko Genevako Konbentzioak, duela 25 urte, etxearen lehenengo solairua eraiki eta adingabeak eskubideen munduan sartzeko lanaren ildoak finkatu zituen, gero, lanaren aplikazioaren errealitatea zehatz-mehatz martxan jartzeko. Gaur egun, XXI. mendearen bosgarren urtea hastear dela, Genevako Konbentzioa herrialde garatuetako helduen araudiaren— finkatua eta onartua— zati da, eta araudi hori onartzen dute ere, hainbat herrialdek, zeinek beste eskubide batzuk ukatu edo, besterik gabe, kontuan hartzen ez dituzten. Monumentu arauemaile handia da, hoberena; itsasargirik itsugarriena da eskubide horien garapenean nabigatzeko eta, egunero, haurren errealitatean argi hori bizirik dirau gerrako haurren hego apurtuen, txirotasunaren, lan bortxatuen gainetik, “Save the Children” GKEk aipatzen dituen hego apurtuen gainetik.

1. Liburu honen argitalpena itxi zenerako, aipatutako aurreproiektuaren zirriborroa Nafarroako Kontseiluari igorri zitzaion, hura baloratzeko. Hala jakinarazi zion Erakunde honi Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak.

Hurbilgoko eremuak edo, Juan Ramón Jiménezek barne-profil gisa definitu zuen dimentsioa, usteak areagotu eta zibilizazioa finkatzen duena, hala nola, gureak egin genituen eta defendatzen ditugun eremuak, hiritar bilakatzen gaituztelako, argitzen duen itsasargia.

Nafarroako Arartekoaren Erakundea sortu zenetik, saiatu gara Nafarroako hiritarren adingabeekiko sentikortasunaren bahe izaten, ez iragazki. Saiatu gara baita ere, adingabeen eskubideekiko kezka komuneko sentimendu bakarrean biltzen, eskubide horiek garatzeko eta hautsitako eta aitortugabeko eskubideen aterki babesle gisa ezartzeko, izan ere, susmoa baino gehiago, hau errealitatea da, handietsi nahi ez den eta sekula bazter utzi nahi ez den errealitatea. Apustua egin dugu, adingabeei loturiko guztia— hezkuntzatik oinarritzko bestelako eskubideetaraino— azkartzearen alde. Azken batean, saiatu gara Administrazio Publikoen— botere publikoek ari garela jakinik— lehenetasunezko arduratik at dauden gizaki ahulenen eskubideak garatzen eta zaintzen.

Goian aipatutako haurren begiradak hirugarren mundutik datoz. Eta mundu horrek ikaratu egiten gaitu bere egoeratik, ez bere indarragatik; koadro horretan bizi diren guztien amiera eragiten duen etengabeko zorigaitzaren kronikarengatik; baina, batez ere, bere hurbiltasunarengatik, gertutasunarengatik. Haurrek lan egiten duten mundutik pauso batera gaudelako, gure solairuan bizi diren kultura guztietako haurren eskolatzea beharrezkotzat jotzen dugu. HIESA haurren izurri bilakatzen duten faktore guztien aurrean, maiz askoren kezkek jasotzen dituzten pediatria zerbitzuen normalizazioa beharrezkotzat jotzen dugu. Klarion bat ezusteko aberastasuna delako, ordezkaten gaituzten botere publikoei galdatzen diegu gure beharrei hurbiltzen zaien Nafarroako adingabeendako lege nafar bat, Genevako Konbentzioaz geroztik aurreratu duguna finkatzeko asmoz.

Lehendabiziko aldiz, argitalpen honek harri bat izan nahi du, Nafarroako Arartekoaren harria, ongi bizitako ongizatearen eta ongizate solidarioaren kalifikatzailea jartzen diogunean hobe ulertzen den ongizatearen poztasunetik eraikitzen ari garen etxearen harria.

Gure nahi horretan, garrantzi berezia du Genevako Konbentzioan jasotako haurren eskubideak Espainiako Konstituzioaren ikuspegitik aztertzeraz zuzenduriko kapituluak. Eguneratze bat da, Konbentzioan jasotako artikulua eta eskubideen balorea batera aldatzen ez duena, baina, horien “ikuspegi” orokor hobea izatea eta gizartearen horiek zabaldu eta ulertzea errazten ahal duena.

Mende laurden horrek sentikortasun berri bat ekarri du berekin eta Hitzarmenaren eskubideei inguruabar berriak erantsi dizkio, horiek antzeman eta haurrengan duten eraginari dagokionez, orain dela 25 urteko gizarte-testuinguru ezberdin batean. “Ikuspegi berri” honetatik atera dugu, dekalogo gisa, eskubide hauen zerrenda laburra, ordena berri batean, eta Erakunde honek hori landuko du pixkanaka.

Beste batzuetan bezala, Erakunde honen beste lanetan bezala, lan honen eranskina egiteko honako laguntza jaso dugu: Nafarroako Unibertsitatearena, bere ikuspegia eman diguna Espainiako eta Nafarroako haurren eskubideen araudiari buruz; tratu txarrak edo/eta sexu abusuak jasaten dituzten adingabeen babeserako eta Adingabearen Foru Lege bat egiteko protokolozko proposamenak; "Save the Children" GKErena, edozein abusu jasaten dituzten adingabeak zaintzeaz arduratzen direnen prestakuntzari buruzko ekarpenen bidez; Nafarroako Gobernuarena, bere lege proposamenaren bidez; eta Nafarroako Parlamentuarena, Nafarroako haur zein helduen gaur egungo zein etorkizuneko eskubideei gehien hurbiltzen zaion itsasargia dena.

María Jesús Aranda Lasheras

Nafarroako Arartekoa

2. HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA, OINARRIZKO ESKUBIDEAK BABESTEKO ORDENA KONSTITUZIONALAREN ARABERA

1789ko Frantziako Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 16. artikulua zera aldarrikatu zuen zehazki: “*eskubideak bermaturik eta botere banaketa zehazturik ez dituzten gizarteek ez dute konstituziorik*”.

Hori izan zen Konstituzio kontzeptua Agiri formalizatu gisa identifikatu zen lehendabiziko aldia, Konstituzioaren kontzeptu materialista ekarriko zuen eduki bermatzaile espezifikoaren zuena. Hortaz, ezin da Konstituziotzat jo estatu baten egitura juridiko-politikoaren osatzen duen edozein agiri; baizik eta, horretarako, oinarri inspiratzaile zehatzak garatu behar ditu, eta berme berezi jakinei erantzun behar die, bereziki, hiritarren oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak aitortu eta babesteari.

Bigarren Mundu Gerraren ostean sortu zen mugimendu konstituzionalistak ideia hauek finkatu zituen. Horrela, Konstituzio garaikide gehienek euren testuetan, tradizionalki organikoa deritzon zatiarekin bat, hiritarren eskubide eta askatasunen aldarrikapena sartu zuten. Ondorioz, euren funtsezko edukia eta haren errespetu eta babesa bermatzera zuzenduriko mekanismoak zehaztu ziren, zati dogmatikoaren funtsezko osagai gisa.

1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioak honakoak arautzen ditu: alde batetik, hiritarren oinarrizko eskubideak, hau da, nortasunaren berezko edo hari lotutako eskubideak, eta botere publikoen emakida-egintza batean jatorria izan ordez, haiek aitortu eta bermatu behar dituztenak; eta, beste alde batetik, askatasun publikoen multzoa, berekin dakarrena hiritarren jarduketa-esparru edo -eremu jakinen aitortzea, estatuaren aldetiko inolako esku-hartzerik gabe.

Baina, Konstituzioak hiritarren eskubideak eta askatasunak aldarrikatu eta aitortzeaz gain, oinarrizko edukia mugatuz, horiek babestera zuzenduriko hainbat berme—arauzkoak, instituzionalak eta judizialak—arautzen ditu zehatz-mehatz.

Bermeen ikuspegi honen arabera, honakoak bereizten ahal dira: **babes handieneko edo indartuko eskubideak** (I. Tituluko II. Kapituluko 1. Atala), Espainiako Konstituzioaren 53.1 artikulua aldarrikatzen duen zuzeneko

eraginkortasuna duten neurrian, euren arauak Espainiako Konstituzioaren 168.1 artikuluko prozedura indartuak baino ezin dituzte aldatu, euren arauak Lege Organikoaren maila duen arau batek baino ezin ditu garatu, eta lehenetasunezko babes sumarioa Justizia Auzitegietan, eta babes konstituzionala jasotzen ahal dute; **babes arrunteko eskubideak** (I. Tituluko II. Kapituluko 2. Atala), hauek ere Espainiako Konstituzioaren 53.1 artikulua aldarrikatzen duen zuzeneko eraginkortasuna dute, hortaz, Justizia Auzitegietan babesa jasotzen ahal dute horiek garatzen dituen alde zuzeneko legerik egon gabe, eta planteatutako auzia ebazten ahal dute horiek aitortzen dituen manu konstituzionalean oinarrituz, eta euren arauak lege mailako arau batek baino ezin ditu garatu, eta Auzitegi Konstituzionalari dagokio arau hori kontrolatzea egiaztatzeko eskubide zehatz horrek konstituzionalki aitortzen duen oinarritzko edukia errespetatzen duela; eta, **babes mugatuko eskubideak** (I. Tituluko III. Kapituluak), aurrekoek aldarrikatzen duten zuzeneko eraginkortasuna ez dutenak, nahiz eta, hauek aitortzen dituzten manu konstituzionalek indar arauemaile ukazina duten eta ez programatiko hutsa, hortaz, eskubide hauen aitortzean, errespetu eta babesak botere publikoen legegintza positibo, praktika judizial eta jarduketaren berri eman behar du, eta Auzitegi Konstituzionalak, horiek aitortzen dituzten manu konstituzionalean oinarrituz, aitortzen ez dituen edo hausten dituen araua inkonstituzionaltzat jotzen ahal du.

Honaino iritsita, egokia iruditzen zaigu norbanakoaren oinarritzko eskubideak babesteko ordena konstituzional berria gogoratzea, azpimarratzeko aipatutako eskubideak eta babes-ordena edozein pertsonak, edozein zuzenbidezko subjektuk aldarrikatzen ahal dituela, bere adina eta egoera edozein delarik ere.

Gure ordenamenduak arautzen dituen adingabeen jarduteko gaitasunaren murrizketak, oinarritzko eskubide batzuen erabilera-berezitasunak— adin-tarte zehatzetan nortasunaren garapen, heldutasun eta bereizketa maila kontuan hartuta— eta adingabeak ordezkatu, defendatu eta babestera zuzenduriko neurri eta erakunde ezberdinen lege-aurreikuspenak, maiz, adingabeak konstituzionalki aitortutako eskubide guztien— goian aipatutako babes-ordenaren arabera galdagarriak direnak— titularrak dela “ahaztea” egiten digute.

Hau guztia ikusirik, Adingabearen Eskubideei buruzko (hasiera batean 1989ko azaroaren 20ko Nazio Batuen Hitzarmenean aitortutakoak, eta ondoren garatu direnak) erakusketa bat egiten ahal da. Bertan, honakoak bereizten ahal ditugu, betiere gure testu konstituzionalean inplizituki jasotako babes eta kontzeptuzko ordena kontuan hartuta: “**nortasunari lotutako gizabanakoaren eskubideak**” eta “**gizarte-proiektzioko gizabanakoaren eskubideak**”, hau da, gizabanakoari berari aitortutako eskubidea gizarte batean bizi den subjektu gisa.

Lehendabizikoak, **nortasun eskubideak**, bitan banatzen ahal dira, dagozkion nortasunaren esparruaren arabera: **pertsona fisikoaren eskubideak** eta **eduki intelektualeko eskubideak**.

Gizarte-proiektzioko gizabanakoaren eskubideak hiru eremu ezberdinetatik begietsi behar ditugu: familia, eskola eta gizartea. Betiere ahaztu gabe, goian aipatutako gizabanakoaren eskubideek duten aplikazioa eta proiektzioa adingabea mugitzen den eremu ezberdinetan.

2.1. Nortasun eskubideak:

2.1.1. Pertsona fisikoaren eskubideak:

- **Bizitzeko eskubidea.** Bermatzen du adingabea bizirik irautea, ahal den neurrian, eta, ezin izanen zaio ezarri heriotza zigorra inolaz ere.
- **Osotasun fisikorako eskubidea.** Debeku dira torturak edo tratu ezgizakor edo iraingarriak.
- **Askatasun eta seguritate eskubidea.** Adingabeei ez zaie askatasunik galaraziko legez kontra edo arbitrarioki. Eskubide hauek Adingabeen Zigor Zuzenbidearen oinarri informatzaileen arabera baino ezin izanen dira mugatu. Horrez gain, espresuki debekatuta dago adingabea legez kontra eraman eta atxikitzea, hala nola, haurrak bahitu, saldu eta eskean aritzeko erabiltzea.

2.1.2. Eduki intelektualeko eskubideak:

- **Osotasun moralerako eskubidea.** Pertsonen duintasunak merezi duen errespetuaz tratatzeko eta tratu txar psikikoen kontra babesteko eskubidea.
- **Ohore eta intimitaterako eskubidea.** Eskubide horien babes-eremuan ez dira esku-hartze arbitrarioak edo legez kontrakoak inolaz ere onartuko.
- **Pentsamendu, kontzientzi eta erlijio askatasunerako eskubidea.**
- **Nork bere iritzia adierazteko eskubidea.** Zehazki, norberari dagozkion auziei buruz, iritzi horiek kontuan hartu ahal izateko.

- **Informazio askatasunerako eskubidea.** Botere publikoek egiaztatuko dute komunikabideek haurren ongizatea bultzatzen dutela eta saiatzeko direla haurrei zuzenduriko informazioan balore konstituzionalak sustatzen.
- **Hezkuntzarako eskubidea.** Euren nortasuna oso-osorik garatzeko eskubidea, oinarrizko eskubide eta askatasunak, eta bizikidetzaren oinarri demokratikoak errespetatuz. Oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa izatea bermatuko da.
- **Aisia eta astialdirako eskubidea.** Adingabeek jolasean aritu eta dibertitzeko, euren adinari dagozkion olgeta-jarduerak praktikatzeko, eta kultura- eta arte-bizitzan parte hartzeko eskubidea dute.
- **Sexu askatasunerako eskubidea.** Gizabanakoaren askatasuna adierazteko zentzurik berezkoenean ulertuta, eta barne hartzen dituen, bai barne-borondatea askatasunez osatzeko prozesua bai borondate hori agerian uzten duten ekintzak askatasunez gauzatzea. Ondorioz, babes berezia dakar, indarkeriarik gabe baina adingabearen adostasunik gabe eginiko ekintzen, hala nola, abusuen, eta sexu erasoen aurrean. Hori guztia, ahaztu gabe adingabeen prostituzioari eta adingabeak ikuskizun eta material pornografikoetan erabiltzeari lotutako jokabideei dagokien zigor-babes berezia.

Horrez gain, adingabeen **sexu kalterik eza** bermatzen da, legegileak adingabearen adostasunik ez dagoela aurreuposatzen duen adin-tartean, adingabeek ez dutelako adostasuna libreki osatzeko beharrezko gutxieneko adimen zein borondate mailako ahalmenik.

2.2. Gizarte proiektzioko gizabanakoaren eskubideak:

2.2.1. Familian:

- **Nork bere identitate biologikoa ezagutzeko eskubidea.**
- **Izen-deiturak izateko eskubidea.**
- **Familiarekin bat egoteko eskubidea.** Familia da adingabearen zaintza eta garapenaren erantzule nagusia.
- **Familia bateratzeko eskubidea.** Gurasoak beste estatu batean dituzten adingabeen eskubidea.

2.2.2. Eskolan:

Adingabea hezkuntzarako eskubidea duen subjektua da eskolan. Horrez gain, eskolako edukiak adingabeen oinarritzko eskubide eta askatasunak bermatzera zuzenduko dira:

- **Ahalmen eta gaitasun fisikoak zein mentalak garatzeko eskubidea.**
- **Printzipio konstituzionalak eta gainerako gizakien eskubideak errespetatzera zuzenduriko hezkuntzarako eskubidea.**
- **Norberaren kulturari eta kultur identitateari buruzko ezagutza lortzeko eskubidea.** Beste zibilizazioen gaineko ezagutza lortzeko eskubidea, gizarte anitz batean, ulermen, bake eta tolerantzia espirituarekin bizitzeko.

2.2.3. Gizartean, oro har:

- **Naziokotasuna izateko eskubidea.**
- **Botere publikoen babesa eta gizarte-laguntza jasotzeko eskubidea.** Baldin eta guraso edo tutoreek haien erantzukizuna diren tutoretza mailako eginkizunak ezin badituzte bete.
- **Berdintasunerako eta baztertua ez izateko eskubidea.**
- **Ezberdintasunerako eskubidea.** Kultur identitatea errespetatzeko eta diskriminazio positiborako eskubidea, azken honek, urritasun fisiko, psikiko edo sentzorialak dituzten, edo kontrako gizarte eta kultur egoeran dauden adingabeen desberdintasunak orekatzen baititu.
- **Osasunerako eskubidea.**
- **Gizarte-babeserako eskubidea.** Gizarte-laguntzen onuradun izateko, ekonomikoki ez esplotatzeko, eta adingabeen hezkuntza zein garapena oztokatzen ahal duen edozein lanetan ez aritzeko eskubidea. Botere edo erakunde publikoek adingabeei loturiko neurriak hartzeko garaian, adingabearen interes gorenaren babesa lehenetsiko dute, edozein legezko interesen babesa baino lehen.

- **Biltzeko eskubidea.**
- **Elkartzeko eskubidea.**
- **Errehabilitaziorako eta gizarteratzeko eskubidea.** Eskubide hau dute abusuak, bazterkeriak edo bestelako tratu txarrak zein esplotazioak jasaten dituzten adingabeek.
- **Adingabearen adinari egokitutako zigorra jasotzeko eskubidea.** Prebentzio bereziko beharrei erantzun, eta “adingabea oraindik hezi daiteke” oinarritzko printzipioan oinarritzen den Adingabeen Zigor Zuzenbidearen baitan.

3. ADINGABEEN ESKUBIDEEN KATALOGO BERRIA

3.1. Nortasun eskubideak:

3.1.1. Pertsona fisikoaren eskubideak:

- **Bizitzeko eskubidea.** Bermatzen du adingabea bizirik irautea, ahal den neurrian, eta, ezin izanen zaio ezarri heriotza zigorra inolaz ere.
- **Osotasun fisikorako eskubidea.** Debeku dira torturak edo tratu ezgizakor edo iraingarriak.
- **Askatasun eta seguritate eskubidea.** Adingabeei ez zaie askatasunik galaraziko legez kontra edo arbitrarioki.

3.1.2. Eduki intelektualeko eskubideak:

- **Osotasun moralerako eskubidea.** Pertsonen duintasunak merezi duen errespetuaz tratatzeko eta tratu txar psikikoen kontra babesteko eskubidea.
- **Ohore eta intimitaterako eskubidea**
- **Pentsamendu, kontzientzi eta erlijio askatasunerako eskubidea.**
- **Nork bere iritzia adierazi eta hura kontuan hartzeko eskubidea.**
- **Informazio askatasunerako eskubidea.**
- **Hezkuntzarako eskubidea.** Oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa izateko eskubidea.
- **Aisia eta astialdirako eskubidea.**
- **Sexu askatasunerako eskubidea.** Gizabanakoaren askatasunaren adierazpen gisa eta, ondorioz, babes bereziaz dakarrena abusuen eta sexu erasoaren aurrean.

3.2. Gizarte proiektioko gizabanakoaren eskubideak

3.2.1. Familian:

- **Nork bere identitate biologikoa ezagutzeko eskubidea.**
- **Izen-deiturak izateko eskubidea.**
- **Familiarekin bat egoteko eskubidea.** Familia da adingabearen zaintza eta garapenaren erantzule nagusia.
- **Familia bateratzeko eskubidea.** Gurasoak beste estatu batean dituzten adingabeen eskubidea.

3.2.2. Eskolan:

- **Ahalmen eta gaitasun fisikoak zein mentalak garatzeko eskubidea.**
- **Printzipio konstituzionalak eta gainerako gizakien eskubideak errespetatzera zuzenduriko hezkuntzarako eskubidea.**
- **Norberaren kulturari eta kultur identitateari zein beste zibilizazioenari buruzko ezagutza lortzeko eskubidea.** Gizarte anitz batean ulermen, bake eta tolerantzia espirituarekin bizitzeko.

3.2.3. Gizartean, oro har:

- **Naziokotasuna izateko eskubidea.**
- **Botere publikoen babesa eta gizarte-laguntza jasotzeko eskubidea.** Baldin eta guraso edo tutoreek haien erantzukizuna diren tutoretza mailako eginkizunak ezin badituzte bete.
- **Berdintasunerako eta baztertua ez izateko eskubidea.**
- **Ezberdintasunerako eskubidea.** Kultur identitatea errespetatzeko eskubidea.

- **Diskriminazio positiborako eskubidea, urritasun fisiko, psikiko edo sentsorialak dituzten, edo kontrako gizarte eta kultur egoeran dauden adingabeen desberdintasunak orekatzen baititu.**
- **Osasunerako eskubidea.**
- **Gizarte-babeserako eskubidea.**
- **Ekonomikoki esplotatua ez izateko, eta adingabeen hezkuntza zein garapena oztopatzen ahal duen edozein lanetan ez aritzeko eskubidea.**
- **Biltzeko eskubidea.**
- **Elkartzeko eskubidea.**
- **Errehabilitaziorako eta gizarteratzeko eskubidea.** Eskubide hau dute abusuak, bazterkeriak edo bestelako tratu txarrak zein esplotazioak jasaten dituzten adingabeek.
- **Adingabearen adinari egokitutako zigorra jasotzeko eskubidea.**

4. HAURREN ESKUBIDEAK BABESTEARI BURUZKO ARAU-ERREFERENTZIAK

4.1. Arau-erreferentziak

Azken urteotan hainbat Komunitate Autonomok haurren babesari loturiko arauak onetsi dituzte. Hona adibide batzuk: Andaluzian, apirilaren 20ko 1/1998 Legea, Adingabeen eskubide eta haiei laguntzeari buruzkoa; Gaztela eta Leónen, uztailaren 25eko 14/2002 Legea, Haurrentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzkoa.

Lege hauen interes nagusia ez da adingabeen eskubideak zehaztea, baizik eta, eskubide horiek lortzeko neurriak finkatu, eta horien errespetu eta eraginkortasuna zaintzeaz arduratuko diren erakunde publikoak zehaztea.

Ildo honi lotzen zaio Nafarroako Gobernuko Foru Legearen aurreproiektua, Adingabeen babes juridikoari buruzkoa. Kapitulu batek adingabeen eskubideei buruzko katalogoa jasotzen du, beharrezko originaltasuna izanen ez duena seguru; izan ere, eskubide horiek 1989ko azaroaren 20ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean bildutakoak eta 1978ko Espainiako Konstituzioan pertsona guztiendako aurreikusitakoak baino ezin dira izan.

Adingabeak pertsonak dira eta, hortaz, pertsona guztiak dituzten oinarriko eskubide eta askatasun publikoak dituzte. Eskubide horiek, titulartasunaren ikuspegitik (horiek erabiltzean izan ezik), adin-nagusikoei dituzten eskubide berberak dira: bizitzeko eskubidea, adierazpen askatasunerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, osasunerako eskubidea, e.a.

Bestelako kontua da, adingabeei esleitzen zaien ahuleria-egoera bereziak zenbait espezifikotasun eragitea euren eskubideak babestean: v.gr. osotasun moralerako eskubidea, babestu behar dena telebista, pornografia edo pornografikoen aurrean; v.gr. aisiarako eskubidea, baina bingo edo areto publikoetan sartzeko murrizketekin; v.gr. osasunerako eskubidea, eta horrekin bat tabakoaren salmentaren murrizketa adingabeen aisia eremuetan.

Hauek dira hain zuzen adingabeen babesari buruzko legeen alderdirik interesgarrienak eta, hortaz, ikertzea merezi dutenak. Are gehiago, Estatuko legeei zein foru legeei begiratu bat emanez gero, bereziki adingabeei zuzenduriko babes-aurreikuspenak biltzen dituzten arau asko daudela ikusten ahal dugu.

Adingabeen babesari buruzko foru lege bat baliagarria izanen litzateke sakabanatutako arau horiek guztiak testu bakarrean biltzeko edo, gutxienez, Nafarroako Parlamentuak eta Gobernuak emandako arauei— sen onean inspiratu eta, Estatuko lege batean, Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoan, hain zuzen, oinarritzen direnak— foru-funtsa emateko.

Beste alde batetik, baina aurrekoari eta pertsona fisiko guztiak euren nortasuna askatasunez garatzeko behin eta berriro aipatzen den eskubideari estuki lotuta, adingabearen jarduteko gaitasunaren azterketak eramaten gaitu adingabetasunean hainbat fase bereiztera eta, aldi berean, adingabeen babesa gauzatzeko erakunde juridikoak badirela azpimarratzera, batzuetan honen ordezkari arituko direnak, bere interesak defendatzeko (guraso-ahala, tutoretza) eta besteetan, trafiko juridikoan alegia, honen osagarri (emantzipatuaren kuradoretza) arituko direnak.

Kapitulu hau gai hauek biltzen dituen bi eduki-multzotan banatzen da.

4.1.1. Adingabeen eskubideen katalogoa

4.1.1.1. Kontzeptuen zehaztapena

Argitalpen honek biltzen dituen arauak hurrei buruzkoak dira. Haurtzat honakoak hartzen dira, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 1. artikulua araberaz: *“18 urte bete arteko gizaki guztiak dira haur, legearen arabera adin nagusitasuna lehenago lortu duena izan ezik”* (ikus Espainian, esaterako, ondore zibiletarako eskusiboki adin-nagusitzat jotzen dira, ezkontzen diren auzotasun zibil aragoiarreko 18 urte baino gutxiagoko adingabeak: Aragoiko Zuzenbide zibilaren bildumari buruzko apirilaren 8ko 15/1967 Legearen 4. artikulua, egungo idazketaren arabera).

Hala ere, gizataldearen subkontzientean haur kontzeptuaren eta haurtzarolari dagokion bizitza-aldiaren arteko identifikazioa kokatzeko, gomendatzen da **adingabe** terminoa erabiltzea une honetan aztertzen den eta botere-publikoen betebeharra den babesaren hartzaile direnei esateko, Konstituzioari jarraiki (Espainiako Konstituzioaren 39.2 art.).

Hori berresten dute adingabeei aitortzen zaizkien jarduteko ahalmen ezberdinek, kasuan kasuko adina kontuan hartuta.

Gauzak horrela, adingabearen babes-eremua bakarra baina malgua da, adingabeen jarduteko gaitasunean modulazioak onartzen baititu, azken finean, adingabeei esleitzen zaizkien eskubideen erabileraren intentsitate-maila

dibertsifikatzeko balio dutenak (v.gr. erabakiak hartzeko ahalmena – euren kabuz kontratatzeko ahalmena).

Edozelan ere, 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 4. artikulua arabera, adingabeei aitortuko eskubideak berdintasun printzipioa hertsiki errespetatuz aplikatu beharko dira, Hitzarmenaren 2. artikulua xedatzen duenez: *“Hitzarmen honetan aipatutako eskubideak haur guztiei aplikatu behar zaizkie inolako bereizketarik egin gabe eta haurren, gurasoen edo legezko ordezkarien arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, etnia- edo gizarte-jatorria, iritzia, maila ekonomikoa, ezintasun fisikoak, edo bestelako edozein ezaugarri kontuan izan gabe”.*

Eskubide horien babesak, horrez gain, jarduera positiboa eskatuko du *“Gizarte-ongizateko erakunde publiko nahiz pribatu, auzitegien, agintari administratiboen edo organo legegileen aldetik”*, eta hauen jarduketa ezinbestean *“haurren interes gorenean”* oinarritu, eta adingabeari ahalik eta ongizaterik handiena ematera bideratuko da.

4.1.2. Adingabeen eskubideak.

4.1.2.1. Bizitzeko eskubidea

Estatuko araudia:

Eskubide hau jasotzen da Espainiako Konstituzioaren 15. artikuluan, zeinaren arabera *“guztiek bizitza eta...eskubidea dute”*, hala nola, 1989ko azaroaren 20ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 6. artikuluan, haurren biziraupen eta garapenerako eskubidea ere barne hartzen dituen.

Oinarritzko eskubide honi buruz berba egitean, pertsona guztien eskubiderik funtsezkoena dena zalantzarik gabe, desadostasunik handienak eskubide honen titularrari buruz galdetzean sortzen dira eta, are zehatzago, jadanik jaio direnei edo jaiogabeei (fetuari) esleitzen ahal zaizkien galdetzean.

1989ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren hitzaurrean 1959ko azaroaren 20ko Haurren Eskubideei buruzko Adierazpenak (Nazio Batuen Batzar Nagusia), baieztatutakoa gogorarazten digu: *«haurrak, heldutasun fisiko eta mentalik ezaren aurrean, babes eta zaintza bereziak behar ditu, eta baita beharrezko lege-babesa ere, bai jaio aurretik bai jaio eta gero»*. Babesa, hortaz, ez litzateke jaio direnei mugatu behar, baizik eta sortuberriei ere luzatu beharko litzateke. Hori Hitzarmenaren 1. artikulua— haurra gizaki gisa definitzen duena (kontzeptu biologikoa), ez pertsona gisa (kontzeptu juridikoa)— eta 6.1

artikuluaren— haurrei bizitzeko berezko eskubidea esleitzen diena— arteko lotura berretsiko luke.

Gauzak horrela izanen balira, legezko abortuaren existentziak berak (legeak aurreikusitako kasuetan: 1973ko Zigor Kodearen 417. artikuluan xedatutakoetan, indarrean dena 1995eko Zigor Kodearen 1.a/ Xedapen Indargabetzailearen arabera) adingabearen eskubiderik oinarritzkoena ezeztatuko luke. Dena dela, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Espainiako Konstituzioaren 15. artikuluari buruz eginiko interpretazioak (apirilaren 11ko Auzitegi Konstituzionalaren 53/1985 Epaia) abortua onartzeko joera handiagoa du (nahiz eta ez kasu guztietan: horren froga ditugu Zigor Kodearen 144. artikulutik 146. artikulura bitartekoak, legez kanpoko abortuak baimentzen dituzten emakumeak eta horiek praktikatzen dituzten pertsonak zigortzen dituztenak), bizitzeko eskubidea bakarrik pertsoneri aitortzean oinarrituta, eta nortasuna jaiotzak dakar (Kode Zibilaren 29. art.), Kode Zibilaren 30. artikuluan legez aurreikusitako baldintzen arabera (giza itxura badu eta 24 orduz amaren sabeletik oso-osorik askatuta bizi bada). *Nasciturusa* bizitzeko eskubidearen titularra izan ordez (ez baita pertsona), konstituzionalki babestuko ondasun juridikoa izanen litzateke. Hala ere, amaren eskubideekiko gatazka sortzen duenez, zenbait kasutan jaiogabeen alde egiten du.

Bizitzeko eskubideak ernaldia, hau da, umea sortzen den unetik beretik aitzinako aldia, barne hartzen ez duela ulertuko bagenu (eta badirudi horrela dela honako legeen arabera: azaroaren 21eko 45/2003 Legeak aldarazi duen 35/1988 Legea, Lagundutako ugalketa tekniketarako buruzkoa, eta, abenduaren 28ko 42/1988 Legea, Giza enbrioak edo fetuak, edo euren zelulak, ehunak edo organoak eman eta erabiltzeko buruzkoa), oinarritzko eskubide hori jadanik jaiotako adingabearen bizitza babestera mugatuko litzateke, eta hori da oinarritzko beste eskubideen, hala nola, osotasunerako edo osasunerako eskubidearen funtsa.

Bizitzaren babesa ez da aplikatzen jaiotzaren hurrengo 24 orduetatik aurrera, baizik eta erditzearen unetik beretik, ez baititugu nahastu behar babes zibila eta penala. Ondore zibiletarako (tipikoki, oinordetzakoak), jaiotako eta 24 ordu geroago arte pertsona ez izateak ez du esan nahi ondore penaletarako pertsona ez denik: bestela, 24 ordu horien bitartean jaioberriaren bizitzari erasotzen ahalko zitzaion haur-hilketan, hiletan edo bestelako zigor-mota baten pean erori gabe, erabat zentzugabea eta defendaezina dena.

4.1.2.2. Osotasun fisiko eta moralerako eskubidea:

Estatuko araudia

Zalantzarik gabe, arlo honi buruzko oinarrizko manua Espainiako Konstituzioaren 15. artikulua osatzen du: *“Guztiek bizitza eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea dute, eta ezin da inoiz torturarik egin, ez eta zigor edo tratu jasanezin edo apalesgarririk ere”*. Estatuak neurri guztiak hartuko ditu gurasoek edo zaintzeko erantzukizuna duten beste edozein pertsonak hurrari inolako kalte fisiko nahiz mental, arduragabekeria, tratu txar edo gehiegikeriarik, sexu-abusua barne, egin ez diezaioten, 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 19. artikulua adierazten duenez.

Garrantzi berezia du arlo honetan zigor-araudiak adingabeei esleitzen dien babesa, ez bakarrik delituen biktima gisa, baizik eta baita horien egile gisa ere.

Adingabea delituaren biktima gisa.

Adingabearen osotasun fisikoaren babesa enbrioi-aldian bertan hasten da, pertsona baten jokabidea delitutzat tipifikatzearen bidez, betiere edozein delarik erabilitako bitartekoa zein prozedura, fetuari behar bezalako garapena oztopatuko ziokeen lesio edo gaixotasunen bat, edo tara fisiko edo psikiko larrikeria eraginen balio (Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 157. art.).

Adingabeen osotasun fisikoa eta morala babes berezi baten xede dira Zigor Kodearen 187. artikulutik 190. artikulura bitartekoetan (apirilaren 30eko 11/1999 Lege Organikoak eta azaroaren 15eko 15/2003 Lege Organikoak eginiko berrikuntzen ondoriozko bertsioetan), adingabeen prostituzio eta usteltze delituei buruzkoetan. Artikulu horietan zigor ezberdinak ezartzen zaizkie honakoei: adingabea edo ezgaia den pertsona prostituziora induzitu edo hura sustatu, faboratu edo errazten duenari (Zigor Kodearen 187.1 art.); indarkeria, larderia edo engainua erabiliz, edota nagusitasun- zein beharrizan-egoeraz nahiz biktimaren ahuleziaz abusatuz, prostituzioan jardutera edo horretan irautera derrigortzen duenari (Zigor Kodearen 188.1 art.); eta adingabeak edo ezgaiak erabiltzen dituenari erakuts-zalekeriazko edo pornografiatzko helburuekin edo halako ikuskizun publiko nahiz pribatueta, edota edozein motatako pornografiatzko materiala egiteko, bai eta jarduera horietatik edozein finantzatzen duenari ere (Zigor Kodearen 189.1.a art.). Zigorra ezarriko zaio halaber, pornografiatzko materiala egin, saldu, banatu, erakutsi edota edozein bide erabiliz, hori egitea, saltzea edo erakustea errazten duenari, betiere material hori egiteko adingabeak edo ezgaiak erabili direnean, nahiz eta

materiala atzerrian egin edo jatorri ezezagunekoa izan (ZKren189.1.b art.), eta adingabeari edo ezgaiari sexu-izaerako jokabide batean parte harrarazten dionari, eta jokabide horrek adingabe edo ezgai horren nortasunari edo garapenari kalte egiten badio (ZKren189.3 art.).

Isun-zigorra ezarriko zaio, bere ahal, tutoretza, zaintza edo harrerapean adingabea edo ezgaia izan, eta, adingabe edo ezgai horren prostituzio- edo usteltze-egoera zein den jakinda, ahal duena egiten ez duenari egoera hori utzarazteko, edota egoera hori uzteko helburu berberarekin agintaritzarengana ez doanari (ZKren 189.4 art.)

Adingabeen babesak erakuts-zalekeria eta sexu-zirikatzeko delituak ere barne hartzen ditu, eta isun-zigorrek ezartzen dizkio adingabe edo ezgaien aurrean erakuspen-egintza lizunak gauzatzeko dituenari, edo beste batzuk behartzen dituenari egintza horiek egitera (ZKren 185. art.), eta, zuzeneko zein edozein bide erabiliz, adingabeen edo ezgaien artean pornografiatzeko materiala saldu, hedatu edo erakusten duenari (ZKren186. art.).

Era berean, adingabeekiko sexu-jazarpenaren egileari (ZKren 184.3 art.: *"Biktima, bere adin, gaixotasun edo egoera dela eta, bereziki, ahula denean"*) delitu horren isun-zigor arrunta baino isun-zigor handiagoa ezartzen zaio. Isun-zigor handiagoa ezartzen zaio, halaber, adingabeekiko sexu-erasoaren erantzuleari (ZKren 178.1.3. art.: *"Biktima, bere adin, gaixotasun edo egoera dela eta, bereziki, ahula denean, eta, edozein kasutan, hamahiru urte baino gutxiago dituenen"*). Sexu-abusuaren erantzuleari isun-zigor ezberdinak ezarriko zaizkio, kasuan kasuko inguruabarraren arabera: biktimak hamahiru urte baino gutxiago baditu (adostu gabeko sexu-abusutzat jotzen dira ZKren 181.2 artikularen arabera, eta erantzuleari urtebetetik hiru arteko espetxealdi-zigorra edo hemezortzi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio), eta, sexu-abusua engainuaren bidez egiten badio, eta hamahiru urte baino gehiago eta hamaseiko baino gutxiago baditu (ZKren183.1 art.: urtebetetik bi arteko espetxealdi-zigorra edo hamabi hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaio, nahiz eta handiagoak izaten ahalko diren abusu-egintzaren arabera).

Adingabea delituaren egile gisa.

Honi lotuta, aipatu beharra dago Adingabearen erantzukizun penala arautu duen urtarilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren jadanekotasuna, izan ere, Zioen adierazpenean (6. atala) Legearen funtsa aurkituko baitugu: A) Materialki, legea hausten duten adingabeei aplikatzen ahal zaizkien neurrien eta prozeduraren izaera zehapen-hezigarria, baina, formalki penala; honek adingabearen kalterako den gutzia saihestea dakar, hala nola, ekintza gauzatea biktimaren

zein partikularren aldetik. B) Berariaz aitortzea eskubide konstituzioaletatik eta adingabearen interesaren eskakizun berezietatik eratorritako bermeak. C) Hainbat maila bereiztea legea hausten duten adingabeen kategorian, prozesu-eta zigor-ondoreetarako. D) Malgutasuna adopzioan eta kasu bakoitzeko inguruabarren arabera neurriak egikaritzean (aplikazio-arauak 9. artikuluan jasotzen dira); neurriak 7. artikuluan zerrendatzen dira, eta oso diferenteak dira: zentro batean sartzea, arrisku handiko egintzak direnean (indarkeria, larderia edo jendearendako arriskua), kargu-hartze hutsa, edota erkidegoaren onerako prestazioak egitea. E) Adingabeak zuzendu eta babestearekin loturiko autonomia-entitateen eskumena, epaian ezarritako neurriak egikaritzeko. F) Egikaritze honen kontrol judiziala.

Lege Organiko honen arabera, “Hamalau urtekoa baino nagusiagoa eta hemezortzi urtekoa baino gazteagoa denari erantzukizuna eskatzen ahalko zaio, Zigor Kodeak edo zigor-lege bereziek delitutzat edo hutsegitezat dituzten egintzak gauzatzegatik” (1. art.); “Halako kasuetan ez da lege hau aplikatuko, baizik eta Kode Zibilean aurreikusitako adingabeen babesari buruzko arauetan eta indarreko gainerako xedapenetan xedatutakoa, baldin eta delitu edo hutsegitea egin duenak hamalau urte baino gazteagoa bada” (3. art.).

Foru araudia

Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legeak zera dio bere 11. artikuluan: *“Emakumeen berdintasunaren arloan eskuduna den departamentu edo erakundeak elkartzeko lekuak edo topalekuak sortuko ditu, aita-amek adingabeei egiten dizkieten bisitak egiteko, bikotean indarkeria aurrekariak gertatu eta deuseztasun, bereizte eta dibortzio kasuetan”*. Topaleku horietan, agintari judizialei behar diren txostenak igorriko dizkien langile espezializatuek egingen dute lan.

Lege honen arabera, larrialdi zerbitzuak larrialdiko laguntza emanen die, eguneko 24 orduetan, tratu txarren biktima diren emakumeei eta horien karguko adingabeei, Nafarroa osorako telefono bakar baten bitartez (13. art.). Era berean, indarkeriazko ekintzen edo eraso sexualen biktima diren emakumeei doako laguntza psikologikorako eskubidea aitortzen zaie: horren barruan, hasierako arreta eta prozesu terapeutikoak irauten duen bitarteko jarraipena sartuko dira (15. art.).

22/2002 Foru Legea martxoaren 7ko 12/2003 Foru Legeak osatu eta aldatu du. Besteak beste, 18 bis artikulua gehitu zaio: “Abegi etxeak edo presako larrialdietarako pisu edo zentroak familia etxea abandonatzea erabaki edo babesik gabe egon eta indarkeria sexistaren biktima diren emakumeentzako eta

haien karguko adingabeentzako abegi baliabideak dira, eta baliabide horiek erabiltzeko, ez da beharrezkoa izanen eraso-egilearen aurkako salaketarik jartzea. Abegi etxeak edo larrialdietarako pisu edo zentro horietan, diziplinarteko taldeak arituko dira lanean. Talde horiek laguntza emozional eta psikologikoa eman, egin beharreko kudeaketei buruz aholkatu eta etengabeko lagun egitea eskainiko dute biktima bertan dagoen bitartean.

4.1.2.3. Nork bere nortasuna eta egoera zibila izateko eskubidea

Estatuko araudia

Konstituzioak ez du berariazko eskubidetzat aitortzen, nahiz eta gizabanakoaren duintasunari eta nortasunaren garapen askeari lotzen zaien eskubidetzat jotzen duen, eta hauek ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri dira, EKren 10.1 artikulua araberaz. Beste alde batetik, ordea, 1989ko azaroaren 20ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 7. artikulua haurrari aitortzen dio jaiotzen denetik, izena eta herritartasuna izateko eskubidea eta, ahal dela, bere gurasoak ezagutzeko eta gurasoek zaindua izatekoa. Eskubide honek garrantzi berezia du haurra herrigabea izatea saihestu nahi denean.

Espainiako Konstituzioaren 39.2 artikulua, azkenean, zera dio: *“Legeak aitatasunaren ikerketa ahalbidetuko du”*, eta hori norberaren jatorria ezagutzeari eta, beraz, egoera zibila zehazteari lotzen zaio. Eskubide hauek bide penalean ere babestu egiten dira, eta, ondorioz, honakoak zigortuko dira: erditzea gertatu dela sinestaraztea; semea edo alaba ezkutatu edo besteren bati ematea, beraren seme-alabatasuna aldatzeko edo aldarazteko; eta, ume baten ordeztu beste bat jartzea (Zigor Kodearen 220.1-3 art.); baita ere ordezkatzeari erabiliz ordeztu, gizarte-osasun zentroetan umeen identifikazio eta zaintzaren erantzuleen zuzentze gaitasunaren ondorioz gertatzen bada (ZKren 220.5 art.). Era berean, norbaitzuek, seme-alabatasunaren antzeko harremanak ezartzeko helburuarekin eta konpentsazio ekonomikoa dela medio, beste pertsona bati ematen badiote seme, alaba zein ondorengo bat edota, seme-alabatasun nahiz senidetasunezko harremanak izan ez arren, adingabe bat, eta horretarako zaintza, harrera edo adopzioarako lege-prozedurei itzuri egiten badiote, zigorra ezarriko zaie; zigor bera ezarriko zaie adingabea jasotzen duenari eta bitartekoari (ZKren 221. art.).

Egoera zibila izateko eskubidea

Ume bat jaiotzen denean, Erregistro Zibilean jaiotza-inskripzioa bultzatu behar duen jende-kopuru bat dago (Erregistro Zibilaren Legearen 43. art.: gurasoak;

senideak; erditzean bertan dagoen edozein adin-nagusi; erditzea gertatu den establezimenduaren jabea edo etxearen familia-burua; jaioberria abandonatuta aurkitzen duen pertsona, hala nola, erditzean egon diren medikuak). Horretarako, erregistroko arduradunarengana jo beharko da, umea jaiotze eta hurrengo 24 orduetatik 8 egunetara bitarte, betiere Erregistro Zibilaren Erregelamenduak epe luzeagoa baimentzen ez badu (EZLren 42. art.).

Jaiotza-inskripzioan jasoko dira jaiotzaren data, ordua eta lekua, sexua eta, hala badagokio, inskribatuaren seme-alabatasuna, datu guztiak frogagarri bihurtuz (EZLren 41. art.). Inskripzioan jaioberriari ipiniko zaion izena adieraziko da, eta ezin izanen dira adingabearendako kaltegarriak diren izenak, haren sexunahasketa sortzen dutenak edo anai-arrebaren batenak direnak, salbu eta hau hilik balego (EZLren 54. art.). Abizenak seme-alabatasunak zehaztuko ditu; seme-alabatasuna zehaztu ezin denean, erabilera arrunteko abizenak jarriko zaizkio, eta, seme-alabatasun bakarra (tipikoki amatasuna) aitortzen zaionean, haren abizenak ipiniko dizkio nahi duen hurrenkeran (EZLren 55.art.).

Jaiotza-inskripzioan, EZLren 47. artikuluari jarraiki, amaren seme-alabatasuna jasota geratuko da, betiere inskribatzea eskatzen duen pertsonaren aitortpena eta medikuaren parte (ezinbestean medikuak, emaginak edo osasunlaguntzaile teknikoak egin behar duena, EZLren 44. artikuluari jarraiki) bat etortzen badira. Bere aldetik, aitatasuna jaiotza-inskripzioan jasota geratuko da gurasoen ezkontza-inskripzioaren bidez (amaren senarraren ustezko aitatasuna, umea Kode Zibilaren 116. artikuluan adierazitako epeen barne jaiotzen bada) edo aitatasun-aitorpenaren inskripzioaren bidez, ezkontzaz kanpoko seme-alaba denean (KZren 120.1 art.).

Era berean, adingabe guztiek dute naziokotasunerako eskubidea jaiotzen diren unetik beretik. Espainiako jatorrizko naziokotasuna izanen da KZren 17. artikuluan aurreikusitako kasuetan (nagusiki, aita edo ama espainiarrengandik jaiotak), eta aukeran hartzen ahalko dena (KZren 20. artikulua, 14 urte baino gazteagoa den adingabearen legezko ordezkariari edo adingabeari berari, legezko ordezkariaren laguntzarekin jarduten duenean, Espainiako naziokotasuna aukeratzea ahalbidetzen baitio, betiere 20. artikuluan bertan aurreikusitako kasuetan), edo herritartze-agiriaren bidez (KZren 21.1 art., ikus martxoaren 18ko 453/2004 Errege Dekretua, Madrilan martxoaren 11ko atentatuan zauritutakoei eta haien senideei Espainiako naziokotasuna eskuratzeko aukera eskaintzen diena), edo interesdunak Espainian bizilekua izateagatik KZren 22. artikuluan aurreikusitako epeen barne, eskubidea honakoek egiten ahalko dutelarik:

interesdun emantzipatuak; 14 urtekoa baino nagusiagoa denak, legezko ordezkariaren laguntza badu; edo, 14 urte baino gazteagoa den adingabearen legezko ordezkariak.

Adingabeak Espainiako naziokotasunik badu, auzotartasun zibila ere izanen du, eta honek arautuko du bere estatutu pertsonala (KZren 9.1 art.: bere gaitasuna eta egoera zibila, familiaren eskubideak eta eginbeharrak, eta heriotzaren ondoriozko oinordetza). Auzotartasun zibilak adingabea Espainian indarra duten ordenamendu zibilen batekin lotuko du (hortaz, ez derrigorrez, Kode Zibilarekin, baizik eta Nafarroako Zuzenbidearekin, edo Kataluniakoarekin, EKren 149.1.8 artikulua barne hartzen duen edozeinekin), eta hori izanen da adingabearen estatutu pertsonala arautuko duena.

Auzotartasun zibila jaiotzearekin batera lortzen da, eta KZren 14. artikuluan adierazitakoaren arabera izanen da (nagusiki, gurasoen auzotartasun zibila izanen dute, bera bada; halakorik izan ezean, jaiotza-tokiari dagokiona), eta jarraika hainbat urtetan toki batean bizilekua izatearekin aldatzen ahal da, betiere legezko epeen barne eta 14. artikuluen 5. paragrafoan adierazi bezala.

Bereziki, nork bere jatorria ezagutzeko eskubidea

1978ko EKren 39.2 artikulua zera dio: *“Botere publikoek, era berean, seme-alaben babes osoa ziurtatzen dute, seme-alabok legearen arabera berdina izanik eta seme-alabatasuna kontuan hartu gabe ...”*; puntu horren amaieran zera gehitzen da: *“Legeak aitatasunaren ikerketa ahalbidetuko du”*. Eskubide hau duintasunari eta nortasunaren garapenari eragiten die, eta hauek Konstituzioaren 10. artikulua oinarritzko printzipiotzat jotzen ditu, 1991ko urriaren 17ko Auzitegi Konstituzionalaren edo 1992ko urtarrilaren 25eko Auzitegi Gorenaren epaiak gogorarazten digutenez.

Nork bere jatorria ezagutzeko eskubidea du, zeina nabarmenki urratzen zen EZLren 47. artikuluan (eta horrekin bat datozen EZEren 167. eta 182. artikuluetan). Izan ere, seme-alabari bere amaren seme-alabatasuna ezkatzea ahalbidetzen zion amaren ezagutzagabetasun ahalmenak seme-alabaren eskubideen urratze bidegabea suposatzen du. Zehazki, urratzen zituen Espainiako Konstituzioaren 39.2 artikuluan adierazten den aitatasuna ikertzeko eskubidea eta 14. artikuluan adierazten den berdintasunerako eskubidea, hala nola, Espainiako Konstituzioaren 10. artikuluan adierazitakoa, amaren eta seme-alabaren duintasunari, hari eratxikitako eskubide bortxaezinei, eta nortasunaren garapen askeari eta 24.1 artikuluari berari (babesik eza debekatzen duena) eragiten baitzien. Horrengatik guztirengatik, irailaren 21eko Auzitegi Gorenaren epaiak, 776/1999 zenbakidunak, manu hori indargabetu zuen, adingabearendako kaltegarria izateagatik, zeina: A) ama ezezagun baten seme-alabatat joko zen eta B) bere amaren babesik gabe egonen zen, eta amaren betebeharra da (eginbeharra, ez eskubidea) bere seme-alabari babes osoa ematea.

EZLren 47. artikulua sekretu profesionalak jaioberriei bizia salbatzen ahal zela baieztatzen zuen ideian oinarritzen zen. Horrek ezkontzaz kanpoko amatasunaren zabaltzea saihestu nahi zuten amek abortatzea edo euren umeak hiltzea eragotziko zukeen. Baina, hasieratik biziki kritikatu zuten artikulua hori, uste baitzuten seme-alabatasun lotura zehazteko interes publikoko arrazoiak zeudela ezkutatze horren kontra. EZLren 47. eta harekin bat datozen artikuluen jurisprudentzia indargabetzearen ondorioz etorri zen 1999ko azaroaren 10eko Ministerioaren Agindua, Erregistro Zibilean jaiotza-aitorpena egiteko galdeketa buruzkoa. Hari jarraiki kendu ziren galdetegitik EZEren 167. artikulua 2. paragrafoaren marjinako erreferentziak.

Hala ere, GEEAk 2003ko otsailaren 13an emandako epaiaren (Odièvre auzia) arabera, Frantziako legeriak ez ditu GEEHren 14. eta 8. artikulua urratzen. Artikuluok seme-alabari amatasun biologikoaren sekretua kentzea debekatzen diote.

Nork bere jatorria ezagutzea eskubideak arautzen ditu KZren 131. artikulutik 141. artikulura bitarte adierazten diren seme-alabatasun akzioak. Artikulu horien arabera seme-alabek aitasuna edo amatasuna erreklamatzeko ahalko dute, ezkontzazkoak (KZren 132. art.) zein ezkontzaz kanpokoak (KZren 133. art.) euren bizitza osoan zehar, eta, gaitasun osoa ez dutenean, euren legezko ordezkariak edo Fiskaltzak egiten dute euren izenean.

Era berean, seme-alabek euren aitaren zien amaren gurasotasuna aurkara dezakete urtebeteko epean (egoera-erregulatzaile ez dagoenean, ordea, ez da horretarako eperik mugatuko: 140. artikulua 1. paragrafoa), adin-nagusitasuna edo legezko gaitasun osoa (emantzipazioa) lortu eta gero, eta amak edo Fiskaltzak euren izenean egiten ahalko dute, betiere Erregistro Zibilean inskribatu eta hurrengo urtebetean zehar (137. art.). Era berean, seme-alabek ezkontzaz kanpoko aitasuna zein amatasuna aurkara dezakete, egoera-erregulatzaile dagoenean, behin gaitasun osoa lortu eta hurrengo urtebetean zehar, eta legezko ordezkariak aurkara dezakete seme-alabatasuna inskribatu eta hurrengo 4 urteetan zehar (KZren 140. art.).

Nork bere jatorria ezagutzeko eskubidea, aldiz, kontraesanean dago zenbait kasutan, hala nola, lagundutako ugalketa tekniken kasuan. 1999ko ekainaren 17ko Auzitegi Konstituzionalaren epaiak ukatzen du aitasuna ikertzeko eskubideak esperma-emailearen identitatea ezagutzeko aukera ematea kasu guztietan; izan ere, horrek haren intimitaterako eskubidea urratuko bailuke. Esperma-emateak anonimoak dira, eta umearen eta emailearen arteko lotura legetik kanpo dago. Adopzioarekin antzekoa gertatzen da.

EZEren 22. artikulua arabera, adoptatua hemezortzi urte baino nagusiagoa izan arte ezin izanen du jaso, epailearen baimena izan ezean, bere seme-alabatasunaren adopzioaren gaineko egiaztagiririk.

Foru araudia

Nafarroako Zuzenbide Zibilari dagokionez, ezkontzako aitatasuna amaren senarraren aitatasun presuntzioaren bidez zehaztuko da, umea Nafarroako Foru Berriaren 68. legean aurreikusitako epeen barne jaiotzen bada, edo manu honetan bertan aurreikusitako honako inguruabarren bat gertatzen bada: A) ezkondu eta hurrengo 180 egunetan zehar jaiotako umeak, betiere senarrak ez badio aitatasunari ukorik egin (hau da, umea berea dela aitortzen badu), legeak ezarritako epearen barne, hau da, erditzearen berri izan eta hurrengo 6 hilabeteko epean; B) Ezkontideak banandu eta hurrengo 300 egunetan jaio direnak, frogatzen bada ernaldia ohikoa baino luzeagoa izan dela, banandutako ezkontideak berriro batu direla (hau da, bananduta zeudela baina elkarrekin epe batez bizi izan zirela; honek baztertzen du banantze-demandaren ondoriozko elkarrekin ez bizi izatearen presuntzioa-KZren 102. art.), edota horiek ezkontzako seme edo alaba gisa inskribatzeko adostasuna emana dutela.

Nafarroako Zuzenbidean, ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna zehaztuko da aitorpenaren bidez (69. legeak arautzen du aitorpena Erregistro Zibilararen arduradunari egiten ahal zaiola, testamentu edo bestelako agiri publikoren baten bidez), edo epai irmoaren bidez, zeina seme-alaba horren aitatasuna edo amatasuna zalantzan jartzen duen prozesuari amaiera emanen baitio.

Aitorpena puber orok egin dezake (baina, adingabea edo ezgaia bada, beharrezkoa izanen da epailearen onespena, Fiskaltzak esan beharrekoa entzunda); baliozkoa izanen da adin nagusikoak seme edo alabatza aitortzea (baina, horrek ez du ondorerik sortuko, adin nagusikoen esanbidezko nahiz isilbidezko adostasunik gabe); baliozkoa izanen da adingabeak edo ezgaiak seme edo alabatza aitortzea.

Azkeneko kasu honetan ez da adostasunik behar (“... *horren adostasunaren orde ez da beste betekizun osagarririk gauzatu behar...*”). Aski da adingabea seme edo alabatza aitortzea, aitortzailearen eta aitortutako adingabearen artean eskubideak eta eginbeharrak eragiten dituen seme-alabatasun lotura ezartzeko. Baina, bai adingabearen legezko ordezkariak (adibidez, ustezko aita bada seme edo alabatza aitortzen duena, adingabearen legezko ordezkaria umearen ama izanen litzateke) bai adingabea bera adin nagusiko bihurtzean, seme-alabatasuna aurkara dezakete.

Azken batean, oso erraza da ume bat seme edo alabatza aitortzea, eta, ondorioz, aitatzat jotzen denaren frogaren zamari buelta ematea eta bere burua bere aitatasuna defendatu beharrean ikustea.

Aitorpenak, beste alde batetik, erabat askea izan behar du. Akatsetan oinarritutako aitorpenak (adostasunaren akatsetan oinarritutakoak: oker, dolo edo derrigortzearen ondoriozkoak) aitorleak aurkaratu ahal izanen ditu, akatsa desagertzen denetik urtebeteko epean (70.c legea). Era berean, ezkontzaz kanpoko seme-alabatasunaren aitorpena aurkara dezakete, horrekin kaltetu gertatu direnek (v.gr. aitortzailea hiltzen bada, bere gainerako seme-alabek jarauntsia aitortuarekin konpartitu beharko dute), aitorpen hori inskribatzen denetik hurrengo lau urteetan.

Seme-alabatasun akzioei dagokienez, Nafarroako Foru Berriak zehatz-mehatz arautzen ditu aitarengandik edo amarengandik datozen ezkontzazko zein ezkontzaz kanpoko erreklamazio eta aurkaratze akzioak.

70. legearen arabera, jaiotzari buruzko inskripzioan agertzen den amatasuna aurkara daiteke, frogatzen baldin bada erditzea sinestarazi dela edo ustezko seme edo alaba eta benetan jaiotzen dena pertsona berberak ez direla (v.gr. berea ez den umea duen emakumea, ospitalean oker baten ondorioz aldatu diotelako).

Aurkarapena egiteko, kasu honetan kontuan hartuko da egoera-eruditza dagoen edo ez, hau da, amak seme edo alaba hori benetakotzat jo eta gizartearen aurrean bere seme alabatza aitortzen duen. Egoera-eruditza badago, bakarrik aurkaratu ahal izanen dute semeak edo alabak (bere legezko ordezkariaren bidez, edo adingabearen beraren bitartez, adin nagusitasuna lortzean, eta epe-mugarik gabe) edota onustez jokatu zuen amak berak, hau da, oker zehaztutako seme-alabatasun horren erantzule izan ez zen amak. Egoera-eruditza ez dagoenean, amatasun hori aurkaratu ahal izanen dute interes zilegi eta zuzenekoa dutenek ere (v.gr. ondare-oinordetza).

Senarraren aitatasuna aurkara dezake, (eta senarrarenaz gain, hala badagokio, haren jaraunleena ere; bi kasuetan 70. legean adierazitako epeen barne) seme edo alabak berak urtebeteko epean, gaitasun osoa eskuratzen duenetik (70.b legea), nahiz eta, 70. legearen 4. paragrafoan adierazten denari jarraiki, adingabe edo ezgaituari dagozkion akzioak horren legezko ordezkariak edo Fiskaltzaz egikari ditzakeen horren bitartean.

Seme-alabatasuna aitortzeko ekintzei dagokienez, semearen edo alabaren seme-alabatasuna aitortzeko (ezohiko kasua, ohikoena baita aitak edo amak ustezko ezkontzazko seme-alabatasuna aitortzea), legitimazio aktiboa oso zabala da:

akzioa egikari dezakete aitak, amak eta semeak edo alabak berak, edozein unetan (preskribiezina, hortaz); eta baita hirugarrenek ere, ezkontzako seme-alabaren egoera-eruditza izanez gero (71.a legea).

Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna aitortzeko, 71.b legearen arabera, ezkontzaz kanpoko seme-alabek akzioak egikari ditzakete, aitatasun edo amatasunari buruzko adierazpena lortzeko, ondoko kasuetan: 1) ustezko ama eta aita elkarrekin agerian-agerian bizi izan direnean, ernalkuntza garaian; 2) semeak edo alabak egoera-edukitza duenean, demandatuari begira; 3) ustezko gurasoak adierazpena egin duenean; 4) guraso eta seme-alaben arteko harremanei buruz, froga biologikoak daudenean; 5) amatasunari dagokionez, erditzeari buruzko frogak daudenean.

Ustezko seme-alabatasuna dagoela adierazten duten frogabideak dira, horregatik, akzioak egikari ditzakete ezkontzaz kanpoko seme-alabek. Legitimazio aktiboa, kasu honetan, oso mugatua da: seme-alabari dagokio, edota haren ondorengoei, 71.b legean adierazitako kasuan (seme edo alaba hori hil bada, adingabea edo ezgaitua izanik). Hortaz, ez dagokio ez aitari ez amari, ezta hirugarrenei ere; horrek urratzen du EKren 14. artikularen berdintasun printzipioa; eta, ez du tratu desberdintasunik barne hartzen Espainiako bestelako ordenamendu zibilen aurrean, zeinetan pertsona gehiagori ematen baitaie akzioak egikaritzeko aukera. Horrela adierazten da Auzitegi Konstituzionalaren urriaren 16ko 236/2000 epaian.

Legitimazio pasiboari dagokionez, 71. legaren azken paragrafoak zera dio: *“Aita edo ama hilda badago, haren jaraunsleen aurka egikaritu ahal izanen da epaiketari aitatasuna edo amatasuna deklaratzeko akzioa”*. Hau da, akzioa planteatu daiteke (semearengan pentsatuta, ez aitarengan— ezkontzazko aitatasuna deklaratzeko eskatzen duena—, bere buruaren aurka egikaritzea litzateke), aitatzat edo amatzat deklaratzeko espero denaren aurka, edota hilda egonik, haren jaraunsleen aurka.

Baina, ez jaraunsle hori akzioa planteatzen duenaren aitatzat edo amatzat deklaratzeko (hala balitz, nire anaia nire aita litzateke, eta horrek ez du zentzurik), baizik eta, deklaraturik geratzeko pertsona bat hildako pertsona baten semea edo alaba dela. Hori onuragarria izanen da akzioa egikaritzen duenarendako, ez haren abizena izateagatik bakarrik, baita jaraunspen-arrazoiengatik ere: testamenturik ez badago edo, egonda ere, ondasun guztiak barne hartzen ez baditu, haren ondasunen gaineko testamenturik gabeko oinordetza irekitzen da eta ondasunak lehenik seme-alabek jasotzen dituzte (ezkontzazkoen eta ezkontzaz kanpokoaren arteko bereizketarik egin gabe). Horregatik onuragarria izanen da beretzat aita horren seme edo alabatzat deklaratzeko.

4.1.2.4. Gurasoen zaintza jasotzeko eskubidea

Estatuko araudia

Espainiako Konstituzioak ez du berariazko eskubidetzat aitortzen (39. artikuluan jasotzen da botere-publikoek seme-alaben babes osoa ziurtatu behar dutela eta, 4. paragrafoan, umeez nazioarteko itunetan ezarritako babesaren izanaren dutela, itunok haien eskubideak zaintzen dituzten neurrian), nahiz eta Kode Zibilean tutoretza-izendapenarekin loturiko guztia arautzeko oinarri hartzen den.

Baina, 1989ko azaroaren 20ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 7. artikuluan arautzen da. Bertan adierazten da haurra ez dela gogoz kontra gurasoengandik bananduko, baina, salbuespen bat egonen da: epailearen berrikuspen-erreserbarekin, legearen arabera eta prozedura egokien bitartez, erabakitzen dutenean erabakia haurraren interes gorenerako beharrezkoa dela (adibidez: haurrari gurasoek tratatu txarrak ematen dizkiotenean edo zaintzen ez dutenean, edo gurasoak bananduta bizi badira eta haurrak non bizi behar duen erabaki behar denean). 9.1 artikulua.

Bere guraso batengandik edo birengandik bananduta dagoen haurraren eskubidea da bi gurasoekin harreman pertsonalak eta zuzenekoak maiz izatea, eta estatu kideek eskubide hori errespetatuko dute, betiere haurraren interesen kalterako ez bada (Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 9.3 art.)

Aldi baterako edo betirako bere familiatik atera diren haurrek edo beren interesen arabera ingurune horretan egon behar ez dutenek estatuaren babes eta laguntza bereziarako eskubidea izanen dute (Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 20. art.).

Adopzioaren sistema onartuz gero, haurraren interesa zainduko da gauza guztien ginetik (Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 21. art.), eta: lan egiten dute eskumena duten agintariek bakarrik baimendu dezaten haurraren adopzioa; legearen eta aplikatu daitezkeen prozeduren arabera eta kontuan harturik egiazko eta beharrezko informazio guztia, agintari horiek esanen dute adopzioa onartzekoa den ala ez, betiere haurrak bere gurasoekiko eta legezko ordezkariakiko duen egoera juridikoari begira eta, beharrezkoa denean, berretsita pertsona interesatuek adopzioarako baimena jakinaren gainean eman dutela beharrezkoa den aholkularitzan oinarrituta.

Gurasoek zaintzeko eskubidea babestu egiten da zigor-arloan. Izan ere, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren hainbat manu eskubide honen eraginkortasuna lortzera zuzentzen baititu, nahiz eta, gurasoen zaintzaz gain, guraso-ahalaren ordezkari edozein tutoretza-organoren babesaren ere ukitzen duen.

lido horretatik, zigorra ezarriko da norbaitek bere ardurapean adingabe do ezgai baten zaintza badu eta, adingabearen gurasoek edo ezgaiaren zaintzaileek hala eskaturik eta arrazoirik gabe, adingabe edo ezgai hori aurkezten ez badie (ZKren 223. art.); norbaitek adingabea edo ezgaia induzitzen badu familiaren egoitza edo bizilekua uztera edota guraso, tutore edo zaintzaileen adostasunarekin bizi den lekua uztera (ZKren 224.1 art.); guraso batek bere seme edo alaba induzitzen badu agintaritzak judizialak edo administratiboak ezarritako zaintza-araubidea urratzera (ZKren 224.2 art.); guraso batek arrazoirik gabe bere seme edo alaba adingabea berekin bizi den gurasoaren edota haren zaintzaz arduratzen diren pertsonen edo instituzioen eskumenik gabe bere bizilekutik atera edo beste leku batera eramaten badu, edo adingabe bat atxikitzen badu epaile- edo administrazio-ebazpenaren kontra (ZKren 225 bis art.); norbaitek guraso-ahalari, tutoretzari, zaintzari edo familia-harrerari datxezkion laguntzeko lege-eginbeharrak betetzeari uzten badio, edo bere ondorengoak, aurrekoa edo ezkontidea mantentzeko legez ezarritako beharrezko laguntza emateari uzten badio, horiek behartsuak izanik (ZKren 226. art.); norbaitek ondoz ondoko bi hilabetetan zehar edo jarraigabeko lau hilabetetan zehar, ezkontide edo seme-alabentzat ezarritako prestazio ekonomikoez edozein ordaintzeari uzten badio, eta prestazio hori onspen judiziala duen hitzarmenaren bidez edo epaile-ebazpenaren bidez ezarri bada, legezko banantzean, dibortzioan, ezkontzaren deuseztasunari buruzko adierazpenean, seme-alabatasunari buruzko edo seme-alabentzako mantenu prozesuen kasuan (ZKren 227. art.); adingabearen edo ezgaiaren zaintzaz arduratzen denari, baldin eta bertan behera zuten badu betirako zein aldi baterako (ZKren 229. eta 230. artikulua); norbaitzuek eskean aritzeko adingabe edo ezgaiak erabili edo inoren eskuetan uzten badituzte (ZKren 232. art.).

Eskubide honen azterketa zehatzagorako, eremu zibilaren ikuspegitik, ikus kapitulu honen bigarren atala.

Foru araudia

Azterketa zehatzagorako, ikus kapitulu honen bigarren atala.

4.1.2.5. Aditua izateko eskubidea

Estatuko araudia

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 12. artikulua arabera, iritzi propioa izateko gai den haurriari estatu kideek bermatuko diote iritzia askatasun osoz azaltzeko aukera, haurriari berari dagozkion gai guztietan, eta beti bere adin eta heldutasunaren arabera.

Horretarako, haurri entzuna izateko aukera emanen zaio, bai zuzenean bai ordezkari baten bidez (nahiz pertsona nahiz erakunde), beregain eragina izan dezakeen edozein prozedura judizial nahiz administratiboan, estatuko legeetan azaltzen den prozedurarekin bat (Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 12.2 art.). Era berean, 1992ko uztailaren 8ko Europar Batasuneko Haurren Eskubideen Gutunaren 8.14 puntuak entzuna izateko eskubidea aitortzen dio, beregain eragina duten familiaren, administrazioaren zein epaileen erabakietan.

Aurreko manuetan oinarrituta, Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren 9. artikulua zera adierazten du:

1. Adingabeak aditua izateko eskubidea du, bai familia-eremuan bai zuzenean eragiten dion beste edozein prozedura administratibotan zein judizialean, eta bere inguru pertsonal, familiar edo sozialean eragina izan dezakeen erabakia hartzera zuzendurikoetan.

Prozedura judizialean, adingabearen egoera eta garapen ebolutiboa, eta bere intimitatea babestea zainduko da.

2. Bermatuko da adingabeak eskubide hori bere kabuz edo bere ordezkaria izateko izendatutako pertsonaren bidez egikaritzea, horrek beharrezko zentzutasuna duenean.

Dena dela, hori ezinezkoa bada edo adingabearen mesedetarako ez bada, honek bere iritzia ezagutarazten ahalko du bere legezko ordezkarien bidez, baldin eta hauek alderdi interesdun ez badira edo adingabearen kontrako interesik ez badute, edota haren iritzia objektiboki adierazten ahal duten pertsonen bidez, bai euren lanbidearen bai adingabearekiko duten konfiantzazko harremanaren ondorioz.

3. Adingabeak, bai zuzenean bai ordezkari baten bidez aditua izatea eskatzen duenean, ukatzeak arrazoizkoa izan behar du eta Fiskaltzari zein haiei jakinaraziko zaie.

Legeria zibilaren arloan, hurrek esan beharrekoa honakoek entzun beharko dute, betiere zentzutasuna badute eta 12 urtekoak baino nagusiagoak badira:

Epaileek, banantze, ezkontza-deuseztasun nahiz adostasun gabeko dibortzioari buruzko epaietan, euren jagoletza eta hezkuntzari buruzko neurri judizialei dagokienez (KZren 92. art.). Prozedura Zibilari buruzko 1/2000 Legearen 770.artikuluaren 4. atalaren bigarren paragrafoak banantze, deuseztasun nahiz dibortzioari buruzko kasuetarako zera

xedatzen du “Auzitegiak ofizioz adosten ahalko ditu beharrezkoak iruditzen zaizkion frogak, egiaztatzeko Kode Zibilak kasu bakoitzerako eskatzen dituen inguruabarrak betetzen diren banantze, deuseztasun nahiz dibortzioa dekretatzeko, hala nola, seme-alaba adingabe edo ezgaiei eragiten dieten neurrien gainean hartu beharreko erabakiei loturikoak, legeria zibilean ezarritakoari jarraiki. Seme-alabak adingabeak edo ezgaituak badira, hauek esan beharrekoa entzun beharko du, betiere zentzutasuna badute eta hamabi urtekoak baino nagusiagoak badira”.

Era berean, adostutako edo batek proposatu eta besteak onartutako ezkontzazko porrotari dagokionez, zera adierazten du Prozedura Zibilari buruzko 1/2000 Legearen 777.artikuluaren 5. atalak: *“Auzitegiak Fiskaltzari txostena eskatuko dio, hitzarmenean haurrei buruz adierazitakoaren inguruan, eta haurrek esan beharrekoa entzun beharko dute, betiere zentzutasuna badute eta hamabi urtekoak baino nagusiagoak badira”,*

hauen guraso-ahala dutenek, eurongan eragina izan dezaketen erabakiak hartu aurretik (KZren 154. art.).

Epaileak, guraso-ahala egikaritzeko desadostasunik badago, gero, aitari edo amari eratzitzeko erabakiak hartzeko ahalmena (KZren 156.2 art.).

Epaileak, seme-alaba adingabeak jagoteaz zein guraso arduratuko den erabakitzean (KZren 159. art.)

Epaileak, adopzio kasuetan, 12 urte baino gazteagoa den adopziogaiari, horrek behar besteko zentzutasuna baldin badu (KZren 177.3.3 art.) eta adopzioari adostasuna eman beharko diote hamabi urtekoa baino nagusiagoa bada (KZren 177.1 art.)

Epaileak, tutoretza eratu baino lehen (KZren 231. art.), tutorea kargutik enkaitzean (KZren 248. art.), edo KZren 271. eta 272. artikuluetan adierazitako kasuren bat baimentzean, eta zeinetan tutoreak epailearen baimena izan behar duen ezinbestean (KZren 274. art.).

Epaileak, harrera eratzeko edo amaitzeko (Prozedura Zibileko 1881 Legearen 1828. art.)

Foru araudia

Nafarroako Foru Berriak ez ditu arautzen aurreko ataleko auzi gehienak (v.gr. banantze-prozedura, tutoretzaren egikaritzea). Nafarroako Foru Berriren

hobekuntza 1987an gertatu zen, hau da, Adingabeen babes juridikoari buruzko Lege Organikoa baino 9 urte lehenago. Hortaz, beranduagokoa da haurrak duen eskubidearekiko, eragin diezaiokeen guztiari buruz esan beharrekoa entzuteko eskubidearekiko, legezko kontzientzia. Horregatik Nafarroako Foru Berrian ez da haurren adituak izateko eskubideari buruzko ezer ere jasotzen.

Eskubide sortuberri hori, beraz, berria zelako ezezaguna zen indarra duen Foru Berriaren testua idatzi zenean.

4.1.2. 6. Adierazpen eta informazio askatasuna

Estatuko araudia

EKren 20. artikulua 1. atalean honako eskubideak aitortu eta babesten dira: a) Pentsamenduak, ideiak eta iritziak hitzez, idatziz nahiz beste edozein bidetatik askatasunez azaldu eta zabaltzea; b) Ekoizpen eta sortze literario, artistiko, zientifiko eta tekniko; (...); d) Edozein hedabidetatik askatasunez egiazko informazioa komunikatu edo jasotzea. Legeak kontzientzia-klausularako eta lanbide-sekreturako eskubideak arautuko ditu, askatasun horiek egikaritzeko orduan.

Eskubide hauen egikaritzea ezin da inola mugatu alde zurretiko zentsuraren bidez (EKren 20. artikulua 2. atala), eta askatasun horien guztien mugak dira titulu honetan zein eskubide aitortu eta eskubideoi zor zaien begirunea, horiek garatzeko emandako lege-manuak, eta, batez ere, ohorerako, bizitza pribaturako eta norberaren irudirako eskubideak, bai eta gazteak eta haurrak babesteko eskubidea ere (4. atala).

Aurrekoan eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 13. eta 17. artikuluetan oinarrituta, 1996ko Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoak bi manutan arautzen du Konstituzioaren 20. artikuluan adierazten dena:

Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren 8. artikulua, adierazpen askatasunari buruzkoa:

1. Adingabeek adierazpen askatasunerako eskubidea dute, Konstituzioan ezarritakoarekin bat. Adierazpen askatasun honek babestu behar ditu bidenabar adingabearen intimitatea eta irudia.
2. Adingabeen adierazpen askatasunak honako eskubideak ere babesten ditu:

- a) Beren ideiak jakinarazi eta zabaltzea.
 - b) Hedabideak editatu eta sortzea.
 - c) Administrazio publikoek horretarako ematen dituzten laguntzak jasotzea.
3. Eskubide honen egikaritzeak Legeak aurreikusten dituen murrizketak jasaten ahalko ditu, gainerakoen eskubideen errespetua edo segurtasun, osasun, moral edo ordena publikoaren babesa bermatzeko.

Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren 5. artikulua, informazio askatasunari buruzkoa:

1. Adingabeek eskubidea dute euren garapenerako egokia den informazioa bilatu, jaso eta erabiltzeko.
2. Guraso edo tutoreek eta botere publikoek zainduko dute adingabeek jasotzen duten informazioa egiazkoa eta anitza izatea, eta Konstituzioaren printzipioak errespetatzea.
3. Administrazio publikoek sustatuko dute adingabeei zuzenduriko material informatiboak eta bestelakoak sortu eta hedatzea, baldin eta aipatutako irizpideak errespetatzen badituzte eta, aldi berean, adingabeei erraztasunak emanen dizkiete informazio eta dokumentazio zerbitzuak, liburutegiak zein gainerako kultur zerbitzuak erabiltzeko.

Zainduko dute bereziki, komunikabideetan adingabeei zuzenduriko mezuetan berdintasuna, elkartasuna eta gainerakoekiko errespetua sustatzea, eta pertsonen arteko indarkeria zein esplotazioa edota tratu degradagarri edo sexistak islatzen dituzten irudiak saihestea.

4. Adingabeei zuzenduriko programazioaren publizitate edo mezuek kalte moralak zein fisikoak eragiten ez dizkietela bermatzeko, arau bereziak ezartzen ahalko dira programazioa arautzeko.
5. Beste subjektu legitimatuei kalterik egin gabe, edozein kasutan Fiskaltzari eta adingabearen babesaren arloaren eskumena duten Administrazio publikoei dagokie, zilegi ez den publizitatea eten eta zuzentzea.

Zentzu honetan, 25/1994 Legeak, uztailaren 12koak, irrati eta telebista ekintzak betetzeari dagokionez, Europako Elkarteko kide diren estatuetako lege-, araudi- eta administrazio-xedapenen koordinazioari buruzko 89/552/EEE Zuzendarua Espainiako Lege-Antolamenduan Inkorporatzeari buruzkoak (ekainaren 7ko 22/1999 Legeak aldarazitako testuan), azpimarratzen du Legearen helburuetako bat erabiltzaileen legezko interesak defendatzea dela, bereziki, adingabeena, euren garapen fisiko, mental eta moral egokia zaintzeko (1. artikulua 5. atala). Horretarako zera ezartzen du:

Babesa, publizitatearen eta telesalmentari dagokionez oro har, adingabeen esperientziarik ezaz edo sineskortasunaz aprobetxatzea saihesteko (16. art.), eta, bereziki, jostailuen publizitate eta telesalmentari dagokionez (16.1.d/ art.), eta 20 gradu baino gutxiagoko edari alkoholunen publizitatearen eta telesalmentari dagokionez, hauek ezin izanen zaizkie adingabeei zuzendu, eta bereziki, ezin izanen dira adingabeak agertu edari hauek edaten (10.2 art.).

Babesa, adingabeen garapen fisiko, mental eta morala kaltetzen ahal duten programei dagokionez; hauek bakarrik ematen ahalko dituzte gaueko hamarretatik goizeko seiak bitarte, eta beren edukia jakinarazi beharko dute bitarte akustiko edo optikoen bidez. Horrela, telesaio bakoitzaren hasieran eta telesaioa berriro hasten denean, publizitate eta telesalmenta iragarkiak emateko etenen ostean, ikusleei jakinarazi beharko zaie telesaio hori adingabeendako egokia den edo ez bitarte akustiko edo optikoen bidez. Filmen kasuan, zine aretoetan edo bideo merkatuan zabaltzeko ezarritako kalifikazio bera izanen dute, horri buruzko arauei jarraiki (17.3 eta 4 art.).

Aurrekoarekin lotuta, Irrati-difusioaren eta Telebistaren Estatutuari buruzko urtarrilaren 10eko 4/1980 Legearen 8.1.j) artikulua esleitutako eskumenak egikaritzuz, Radiotelevisión Española Eite Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak 2001eko urtarrilaren 11ko Ebazpena eman zuen, "Televisión Española, Sociedad Anónima-k" emandako publizitatearen arau erregulatuak onesten dituen. Ebazpenean adingabeei babesa ematen zaie goian aipatutako uztailaren 12ko 25/1994 Legean adierazitako arloetan, nahiz eta adingabea babesteko araubidea eta adingabeei zuzenduriko informazioan eta publizitatean zehazki debekatutako edo mugatutako jokabideak garatzen diren (16tik 19ra bitarteko atalak).

Foru araudia

Arlo honetan aipatzekoa da Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea. Foru Lege horren helburua (1.5 art.) erabiltzaileen interes

legitimodunak eta, bereziki, adingabeena babestea da, euren garapen fisiko, mental eta moral egokia zaintzeko.

Babes honek zera dakar:

9.2.a) art.: 100eko 20 baino alkohol etiliko gutxiagoko edari alkoholduen publizitatea eta telesalmenta ezin izanen zaizkie adingabeei zuzendu, eta bereziki, ezin izanen dira adingabeak agertu edari hauek edaten.

15.1 art.: Telebistako publizitateak ez ditu emanen adingabeei kalte fisikoak zein moralak eragiten ahal dizkien irudi edo mezuak. Honako printzipioak errespetatu beharko ditu:

- a) Ez ditu adingabeak bultzatuko produktu edo zerbitzuren bat erostera, euren esperientziarik ezaz edo sineskortasunaz aprobetxatuz, ezta euren guraso edo tutoreei edota hirugarrenen guraso edo tutoreei konbentzitzera, delako produktuak edo zerbitzuak eros ditzaten.
- b) Ezin izanen da inolaz ere baliatu hurrek euren guraso, irakasle edo beste hainbat pertsonengan, hala nola, haurrendako saioetako profesionalengan edota, noizbehinka, fikziozko pertsonaiengan duten konfiantzaz.
- c) Ezin izanen dira inolaz ere haurrak egoera arrisksuetan aurkeztu, justifikaziorik gabe.
- d) Jostailuen publizitate eta telesalmentari dagokionez, ezin izanen dute horien ezaugarriei buruzko gezurrik esan, ezta horien segurtasunari zein haurrak jostailu horiek inolako kalterik eragin gabe erabiltzeko behar dituen ahalmen eta gaitasunei buruzkoak ere.

Horretaz gainera, telesalmentak ez ditu adingabeak bultzatuko produktu eta ondasunak erosi edo alokatzera edota zerbitzuak kontratatuzera.

16. 1 art.: Telebistako saio-emanaldietatik at geratuko dira adingabeen garapen fisiko, mental eta morala larriki kaltetzen duten eszenak zein mezuak, hala nola, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, naziokotasun edo iritzi arrazoiengatik edota bestelako inguruabar pertsonal edo sozialengatik gorrotoa, mespretxua edo bazterkeria sustatzen duten saioak.

2. Adingabeen garapen fisiko, mental eta morala kaltetzen ahal duten eta aurreko atalean adierazten ez diren saioak gaueko hamarretatik goizeko seiak bitarte baino ezin izanen dira eman, eta beren edukia jakinarazi beharko dute

bitarte akustiko eta optikoen bidez. Saiok atzipen baldintzaturik gabe ematen direnean, ikusizko sinbolo bat eramanen dute emanaldi osoan zehar.

3. Horrela, teleaio bakoitzaren hasieran eta teleaioa berriro hasten denean, publizitate eta telesalmenta iragarkiak emateko etenen ostean, ikusleei jakinarazi beharko zaie teleaio hori adingabeendako egokia den edo ez bitarte akustiko edo optikoen bidez.

Filmen kasuan, zine aretoetan edo bideo merkatuan zabaltzeko ezarritako kalifikazio bera izanen dute, horri buruzko araei jarraiki. Horrez gain, telebista-operadoreek kalifikazioa ohar zehatzagoen bidez osatzen ahal dute, adingabeen guraso edo arduradunek informazio hobea izan dezaten. Gainerako saioetan operadoreei egokituiko zaie, indibidualki edo era koordinatuan, euren emanaldiak kalifikatzea.

4.1.2. 7. Pentsamendu, kontzientzi eta erlijio askatasunerako eskubidea

Estatuko araudia

Askatasun hauek EKren 16. artikulua babesten ditu: *“Gizabanakoen eta giza taldeen ideologia-, erlijio- eta kultu-askatasuna bermatzen da, eta beraien agerpenetan muga bat baino ez da izanen, legeak babesten duen ordena publikoa jagotea”* (1. atala), eta ezin izanen da inor behartu bere ideologia, erlijio edo sinesmenei buruzko adierazpenak egitera (2. atala). Adingabeen arloa eta, zehazki, euren ideologia eta erlijiotasunaren osaera kontuan hartuta, EKren 27. 3 artikulua zera gogorarazten digu: *“Botere publikoek gurasoei dagokien eskubidea bermatzen dute, hauen seme-alabek heziketa erlijioso eta morala har dezaten, beraien uste sendoei dagokien bezalaxe”*.

Hau guztia garatzen du Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoak; zera dio 2.1 artikuluan: *“erlijio- eta kultu-askatasunak pertsona guztien eskubide hauek barne hartzen ditu: ... c) euren, eta eskolan zein eskolatik kanpo euren menpe dauden adingabe eta ezgai emantzipatugabeen izenean, euren uste sendoen arabera heziketa erlijioso eta morala aukeratzeko”*.

Gainera, logikoki, adingabeak, beste edozeinek bezala, honako eskubideak ditu: 1) askatasunez aukeraturako sinesmena izateko edo ez izateko; erlijioa aldatu eta bazter uzteko, bere sinesmena edo sinesmenik eza askatasunez adierazteko, edo hari buruz ezer ere ez esateko eskubidea; 2) bere erlijioaren beraren kultu-egintzak praktikatzeko eta erlijio-laguntza jasotzeko; jai erlijiosoak ospatzeko; ezkontza-erritoak ospatzeko; duintasunez hilobiratua izateko, erlijio-

arrazoiengatiko bazterkeriarik gabe, eta norberaren usteen kontrako kultu-egintzak praktikatu eta erlijio-laguntza jasotzera behartuta ez izateko eskubidea.

Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1995 Lege Organikoak (abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak aldarazitako testua) zera ezartzen du, legeak ezarritako xedapenei jarraiki: *“gurasoek eta tutoreek eskubidea dute, hauen seme-alabek edo ardurapekoek beraien uste sendoen araberrako heziketa erlijioso eta morala hartzeko”* (4.c art.).

Horretarako, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 2. Xedapen Gehigarriak zera adierazten du (abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak aldarazitako testua): *“erlijioaren irakaskuntza Egoitza Santuaren eta Espainiako estatuaren artean sinatutako Irakaskuntza eta kultur gaiei buruzko Akordioan ezarritakoarekin bat zehaztuko da eta, hala badagokio, beste erlijioekin sinatzen direnekin bat. Horretarako, eta aipatutako akordioek ezarritakoari jarraiki, erlijioa arlo edo ikasgai gisa sartuko da dagokien hezkuntza-mailetan; eta ikastetxeendako derrigorrezkoa eta ikasleendako hautazkoa izanen da”*.

Beste erlijioekiko Itunen aipamen horrek irakaskuntza erlijioso ebanjelikoa, judua edo islamdarra hartzeko eskubidea ekarri zuen (Azaroaren 10eko 24, 25 eta 26/1992 Legeak, Estatuaren eta Erlijio-Elkarteen Federazio eta Batzorde hainbaten arteko Lankidetzeta-Itunak onesten dituztenak).

Lege hauek eta 1989ko Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenaren 14. artikulua oinarri hartuta, Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren 6. artikulua honakoa adierazten du:

1. Adingabeak ideologi, kontzientzi eta erlijio askatasuna du.
2. Askatasun horretatik datozen eskubideen egikaritzea legeak berak, eta besteen oinarritzko eskubide eta askatasunekiko errespetuak baino ez dituzte murriztuko.
3. Guraso edo tutoreen eskubide eta betebeharra da haurra bideratzea askatasun hau erabil dezan, bere garapen osoari begira.

Foru araudia

Abenduaren 14ko 417/1992 Foru Dekretuaren 6. artikulua (uztailaren 14ko 191/1997 Foru Dekretuak aldarazitako testua), ikasketa ez unibertsitarioetako ikasleen eskubide eta betebeharrak arautzen dituenak, zera ezartzen du: *“ikasleek*

eskubidea dute euren nortasun osoa bermatzen duen heziketa hartzeko” (1. atala) eta, eskubide hori egikaritzeko, ikasleen heziketak euren usteekin bat datorren heziketa erlijioso eta morala barne hartu beharko du edo, adingabeen kasuan, euren guraso edo tutoreen usteekin bat datorrena (2. c/ atala).

4.1.2. 8. Elkartzeko eta bilera baketsuak askatasunez egiteko eskubidea.

Estatuko araudia

EKren 21. artikulua bilera baketsu eta armarik gabekoak egiteko eskubidea aitortzen du, manuak berak aurreikusitako mugen barne; EKren 22. artikulua elkartzeko eskubidea aitortzen du, bertan adierazitako helburu eta mugekin; eta EKren 48. artikulua ezartzen du gazteriak garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalen parte-hartze askea eta eragingarria izan dezan, botere publikoek behar bezalako inguruabarrak bultzatuko dituztela.

1996ko Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren 7. artikulua, parte hartu, elkartu eta bilerak egiteko eskubidea arautzen duenak, zera adierazten du:

1. Adingabeek eskubidea dute euren ingurunekeo gizarte-, kultura-, arte- eta olgeta-bizitzan parte hartu, hala nola, bizitza aktiboan pixkanaka sartzen joateko.

Botere publikoek adingabeen partaidetza-erakundeak eta haurzaroaren gizarte-erakundeak eratzea sustatuko dute.

2. Adingabeek elkartzeko eskubidea dute, bereziki, honakoak barne hartzen dituenak:

- a) Alderdi politikoaren eta sindikatuen gazte-elkarte eta -erakundearen kide izateko eskubidea, Lege eta Estatutuekin bat.

- b) Haur- eta gazte-elkarteak sustatu eta horiek legearekin bat inskribatzeko eskubidea. Adingabeek elkarte hauen zuzendaritza organoetan parte hartzen ahalko dute.

Haur- eta gazte-elkarte hauek alde zibiletik obligarazteko, euren Estatutuekin bat legezko ordezkari bat izendatu beharko dute, gaitasun osoa izanaren duena.

Adingabea edo honen gurasoak elkarte baten kide izateagatik, adingabearen garapen osoa oztopatu edo kaltetzen badu, interesa

duen edozein pertsona fisiko edo juridikok zein erakunde publikok Fiskaltzari jakinarazten ahalko dio, adingabearen babeserako beharrezko neurri juridikoak har ditzan.

3. Adingabeek legearekin bat deitutako bilera publikoetan eta manifestazio baketsuetan parte hartzeko eskubidea dute.

Era berean, horiek sustatu edo deitzeko eskubidea dute, betiere euren guraso, tutore edo zaintzaileen esanbidezko adostasunarekin.

Bilerak egiteko eskubidea arautzen duen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoak, ez du adingabeei buruzko zehazpenik barne hartzen.

Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1995 Lege Organikoaren (Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak aldarazitako testua) 7. artikulua adingabeei elkartzeko eskubidea aitortzen die "euren adinaren arabera, legearekin eta kasu bakoitzerako ezartzen diren arauekin bat datozen erakundeak eratuz". Erakundeek manuak berak aurreikusitako helburu berberak jarraituko dituzte. Era berean, 8. artikulua ikasleen irakaskuntza-zentroetan bilerak egiteko eskubidea bermatzen du; eskubide hau egikaritu da indarreko araudiarekin bat eta irakaskuntza-jardueren behar bezalako garapena kontuan hartuta.

Elkarte-eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak adierazten du adingabeek elkarrekin eratu ahalko dituztela eta elkartekideak izaten ahalko direla, honako printzipioei jarraiki:

- a) Pertsona fisikoek jarduteko gaitasuna izan behar dute eta ez dute inolako lege-baldintzarik izan behar eskubidea egikaritu ahal izateko.
- b) Hamalau urte baino nagusiagoak diren adingabe emantzipatugabeek euren gaitasunaren ordezkarier egiaztagiri bidezko adostasuna izan behar dute, Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren 7. 2 artikuluan haur-, gazte- eta ikasle-elkarteendako aurreikusitako araubideari utzi gabe.

Foru araudia

Ez dago eskubide hau arautzen duen foru araudirik, ez lege zehatzik ez beste foru arauen barne dagoenik.

4.1.2. 9. Ohore, intimitate eta nork bere irudia izateko eskubidea.

Estatuko araudia

Eskubide hau EKren 18.1 artikulua aitortu eta Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren 4. artikulua arautzen du bere 1. atalean: *“Adingabeek ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta bakoitzaren irudirako eskubidea dute. Eskubide honek barne hartzen du, halaber, familia-egoitzaren eta korrespondentziaren bortxaezintasuna, hala nola, komunikazioen sekretua”* (EKren 18. artikulua gainerako atalekin bat etorritz).

Zera dio Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren 4. artikulua 2. atalak: *“komunikabideetan adingabeei buruzko informazioa zabaldu, edo adingabeen irudiak edo izena erabiltzen badira, euren intimitate, ohore edo erreputazioan legez kontra sartuz, edota euren interesen aurkakoa bada, Fiskaltzak Legean aurreikusitako babes eta kautelazko neurriak hartuko ditu berehala, eta sortutako kalteen arabera kalte-ordainak eskatuko ditu”*. Legez kontra tartean sartzeak zera esan nahi du (3. atala): *“adingabearen irudia edo izena komunikabideetan erabiltzea adingabeen ohore edo erreputazioaren kaltetan edota euren interesen aurka, adingabearen edo honen legezko ordezkarien adostasuna izanda ere”*. Hau guztia Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubideen babes zibilari buruzko maiatzaren 1/1982 Lege Organikoan aurreikusitako berme-mekanismoak indartu, eta adingabearen legezko ordezkarien edo haren ingurune taldeen manipulazioaz babesteko asmoz (Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren Zioen Adierazpena).

Tartean sartze horiek adingabearen legezko ordezkarien, baina, baita ere, eta kasu guztietan, Fiskaltzaren akzioei bide ematen ahalko diete. Fiskaltzak ofizioz edo adingabeak berak edo interesa duen edozein pertsona fisiko, juridiko edota entitate publikok eskatuta jarduten alhako baitu (4. atala).

Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982ko Lege Organikoaren 3. artikulua adierazten du adingabeek eta ezgaiek adostasuna ematen ahalko dutela euren beharrezko heldutasun-baldintzak betetzen badituzte, legeria zibilaren arabera. Gainerako kasuetan, adostasuna idazki baten bidez emanen du haren legezko ordezkariak, aldez aurretik Fiskaltzari jakinarazita. Zortzi eguneko epean Fiskaltzak onartzen ez badu, Epaileak erabakiko du.

Aipatzekoa da halaber, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren martxoaren 15eko 2 /1993 idazkia, Fiskaltzak duen zereginari buruzkoa delituko biktima adingabeen intimitaterako eskubidearen arloan.

Hauez gain, intimitatearen babesaren ildo horretatik, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa dugu, nahiz eta adingabeak ukitzen ez dituen.

Foru araudia

Ez dago eskubide hau arautzen duen foru araudirik, ez lege zehatzik ez beste foru arauen barne dagoenik.

4.1.2.10. Nork bere nortasuna oso-osorik garatzeko eskubidea.

Eskubide hau adierazi dugu EKren 10.1 artikulua ukitzen duen nortasunaren garapen askean oinarritzen diren adingabearen hainbat eskubide lotzeko asmoz. Logikoki, nortasun askea ahalbidetzen duen eskubidea ez da bakarrik adingabeena izan behar eta, logikoki, oinarritzko eskubide eta eskubide sozial, politiko edo ekonomiko guztiek nolabaiteko lotura dute ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarria den printzipio horrekiko.

Dena dela, argi dago haurtzaroa eta nerabezaroa direla babes gehien behar duten bizitza-aroak, subjektuaren nortasunaren eraketa lehen fasean baitago.

Horregatik, errubrika honen barne, eduki ezberdineko eta oraindik eztabaidagarriko (eskubide diren aldetik) eskubideak bilduko ditugu, baina, komunekoa gauza bat dutenak aldi berean: erabakigarriak direla subjektuaren eta bere nortasunaren eraketa eta garapenerako.

A) Hezkuntzarako eskubidea

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 28. artikulua aitortzen du, eta Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak, oro har, eta Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak, zehazki, arautzen dute. Aipatutako azken legearen 2. artikulua zera adierazten du:

1. Ikasleen eskubide eta betebeharrak dira artikulua honetan eta gainerako indarreko arauetan ezartzen direnak, honakoa kontuan hartuta:
 - a) Ikasle guztiek dituzte eskubide eta betebeharrak berberak, betiere euren adinak eta hezkuntza-mailak ezarritako desberdintasunak kontuan hartuta.

- b) Ikasle guztiek dute Espainiako Konstituzioa eta norberaren Autonomia-Estatutua ezagutzeko eskubide eta betebeharra, horietan eta Espainiak berretsitako Giza Eskubideei buruzko Itun eta Hitzarmenetan aitortutako balore eta printzipioen arabera hezteko.
- c) Ikasle guztiek dute euren ardura eta ahaleginak objektiboki baloratu eta aitortu, eta hezkuntza- eta lanbide-orientazioa jasotzeko eskubidea.

2. Ikasleari oinarrizko eskubide hauek aitortzen zaizkio:

- a) Bere nortasuna osoki garatzea ahalbidetzen duen heziketa integrala jasotzeko eskubidea.
- b) Bere kontzientzi askatasuna, eta sineskera erlijioso eta moralak errespetatzeko eskubidea, Konstituzioarekin bat.
- c) Bere segurtasuna eta duintasuna errespetatzeko eskubidea.
- d) Eraso fisiko edo moralen kontrako babesa jasotzeko eskubidea.
- e) Hezkuntza-zentroaren funtzionamendu eta jardueran parte hartzeko eskubidea, indarreko arauekin bat.
- f) Beharrezko laguntza eta babesa jasotzeko eskubidea, gabezia eta desabantaila pertsonal, familiar, ekonomiko, sozial eta kulturalak orekatzeko, bereziki, hezkuntza sisteman sartu eta egoteko hezkuntza premia bereziak daudenean.
- g) Gizarte-babesa jasotzeko eskubidea, hezkuntza-eremuan, familian ezbehar edo istripurik gertatzen denean.

3. Ikastea ikaslearen oinarrizko betebeharra da, eta honakoan oinarritzen da:

- a) Heziketa-jardueretan eta, bereziki, curriculumen garapenera zuzendurikoetan parte-hartzea.
- b) Irakasleen hezkuntza eta ikaskuntzari buruzko jarraibideei jarraitzea.
- c) Eskolara garaiz iristea.

d) Parte hatu eta laguntzea eskola-bizikidetasuna hobetzen eta hezkuntza-zentroan ikasketa-giro egokia lortzen, euren ikasleen hezkuntzarako eskubidea errespetatuz.

4. Ikasteaz gain, ikasleek oinarrizko betebeharrak dituzte:

a) Kontzientzi askatasuna, eta sineskeria erlijioso eta moralak errespetatzea.

b) Hezkuntza-komunitateko kide guztien duintasun, segurtasun eta intimitatea errespetatzea.

c) Hezkuntza-zentroaren antolaketa, bizikidetasun eta diziplinari buruzko arauak errespetatzea.

d) Zentroko instalazioak eta materiala errespetatu eta behar bezala erabiltzea.

5. Hezkuntza-administrazioek ikasleen elkarte-eskubidea egikaritzea, hala nola, federazio eta konfederazioen eraketa erraztuko dute.

Estatuko araudiak eskubide honen funtsezko edukia arautzen duen arren, foru araudiak ere badu bere pisua, babesa bermatzen baitu, nahiz eta zeharka; zehazki, eskubide honen eraginkortasuna errazten duten adingabeen hezkuntzaren aldeko neurriak hartzearen bidez.

Horrela, Familia ugarietako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen 1. artikulua dio lege honek familia ugarietako laguntzaren erregulazioa ezartzen duela, eta laguntza hori gauzatzeko diru-laguntza berariazkoak eta sostengua emanen zaiela familia ugarietako hainbat esparrutan: hezkuntza, osasuna, etxebizitza, garraioa eta tratamendu fiskala. 7. artikulua aitortzen du familia ugarietako baremo bereziak egonen direla hezkuntza ez-unibertsitarioko tarte guztietan, liburu-erakunde, eskola materialerako, jantokirako eta garraiorako laguntzak eta beka emateko. Familia ugarietako hobari sistema bat ezartzen da gizarte-etxe, aterpe, udal kanpaleku eta aisialdiko lokaletako tarifetan, bai eta kultur ondasunetara, kirol eta aisiako jardueretara sartzeko tarifetan ere, Nafarroako administrazio publikoetako menpekoak izan eta Foru Komunitatean garatzen badira (9. art.). Horrez gain, garraio publikoaren eta eskolakoaren erabileran hobariak ezarriko dira Nafarroako Foru Komunitatearen esparruko familia ugarietako kideen alde (10. art.).

Eskubide horren eraginkortasuna ekonomikoki errazteko beste arau bat zuzentzearen 3ko 11/1998 Foru Legea da, Batxilergoa, Erdi Mailako Heziketa

Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena.

Aipagarria da ere bai, 17/2003 Foru Legea, martxoaren 17koa, Nafarroako landa garapenari buruzkoa. Izan ere, Nafarroako Foru Komunitateko garapen politikaren helburu orokorren barne sartzen baitu, Nafarroako landa ingurunean kalitatezko erkidego-ekipamenduen banaketa orekatua garatu, erraztu eta bultzatzea, biztanleriako sektore guztiek ekipamendu horiek eskura izan ditzaten ahalbidetzeko, landa populazioaren beharriaz erantzunez eta ekipamendu horien zonifikazio zurruna saihestuz. Erkidegoarentzako ekipamenduak hezkuntza, osasuna eta gizarte-laguntza, aisialdia, kirola eta kultura arloetan (3. artikulua 2. atala).

Are generikoagoa da apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea, eskubide sozialen gutun baterakoa. Bere 2. artikuluan, Foru lege hau iradoki duten printzipioen artean honakoa aurkitzen dugu: "Herritartasun eskubide unibertsalak sendotzea, lan merkaturako sarbidea itxirik duten pertsona guztientzat eta, ondorioz, behar den diru-sarrerarik ez dutenentzat, besteek dituzten eskubide berberekin bizitza duin bat izan, kulturara iritsi, eta etxebizitza, zerbitzuak, hezkuntza, osasuna eta gizarte integrazio osoa izateko".

Hona adingabeen hezkuntzarako eskubideei loturiko beste hainbat arau: Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala arautzen duen azaroaren 15eko 339/1993 Foru Dekretua, eta 272/2003 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, Hizkuntzen irakaskuntza espezializatuetako lehen mailako Goi Zikloa antolatuta eta haren curriculumaz ezartzen duena.

B) Osasunerako eskubidea

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 23tik 26ra bitarteko eta 33. artikuluetan aitortutako eskubide honi buruzko foru araudia oso zatikatua dago eta eremu anitz ukitzen ditu. Aipatzekoak dira honako arauak:

- 24/2004 Foru Dekretua, urtarrilaren 26koa, belzte zentroak ireki eta abian jartzeko eta belzte aparatuek alokatzeko baldintzak arautzen dituen, besteak beste, honakoak: itxaron gelan edo harrera tokian eta belzte aparatu guztietan, hemezortzi urtetik beheitik hauen erabilera debekatzen zaiela adierazten duen afixa bat paratzea (5. art.).
- 6/2003 Foru Legea, otsailaren 14koa, tabako kontsumoaren prebentzioari, arnasteko airea babesteari eta tabakoaren aurrean osasuna sustatzeari buruzkoa.

- Lege honek debekutzen du tabakoa ekoitzi, landu eta banatzen deneko tokietarako bisitetan 18 urtetik beheitikoei produktuak eskaintzea (18.2 art.); tabakoa, haren produktuak, haren produktu-multzoak edo haren imitazioak dohainik edo diru truk 18 urtetik beheitikoei saldu, hornitu edo banatzea (art. 19.1); edo tabakoa saldu edo hornitzea adingabeak hartu edo haiek jolasteko tokietan (19.3 art.). Horrez gain, zera adierazten du, “Tabakoa saltzeko makinak fabrikatzen dituzten enpresek, foru lege hau onesten denetik aitzina, bi urteko epea izanen dute funtzionatzen ari diren makina automatikoez mekanismo teknologikoak izan ditzaten, tabakoa nori erosi kontrolatu ahal izateko eta adingabeek tabakoa makinetan erostea galarazteko” (2. Xedapen Gehigarria).
- 123/2003 Foru Dekretua, maiatzaren 19koa, erabilera kolektiboko igerilekuen baldintza tekniko-sanitarioak ezartzen dituena. Bertan, 6 urte bete ez dituztenentzako igeri-ontziak gehienez ere 0,35 metro sakon izatea ezartzen da (3. art.).
- 11/2002 Foru Legea, maiatzaren 6koa, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituena. Legaren 8. artikulua arautzen ditu baimena ordezkariak emateko egoerak (2.b atala), eta adingabeko emantzipatuen eta hamasei urte baino gehiagoko nerabeen kasuan, euren baimena pertsonalki eman beharko dute; eta adingabekoen kasuan, haien ordezkariak eman beharko du baimena, haien iritzia entzun ondoren, baldin eta hamabi urtetik gorakoa bada. Betiere, pertsona baten lesio sendaezinak edo hura hiltzeko egiazko arriskua saihesteko presakoak eta nahitaezkoak diren ekintzak ez badira.

Foru lege honek gaitasuna aitortzen dien adingabekoei ere, sendagileari beren borondateen adierazpen-agiria emateko aukera eskainiko zaie (9.1 art.). Bertan, oharrak jaso ahalko dira egoera kritiko, hil ala biziko eta sendaezinetan, neurri aringarrien bitartez sufrimendua saihestu dadin bizi-prozesua laburtu arren, neurri-gabeko edo ohiz kanpoko teknologia eta tratamenduen bitartez bizia artifizialki luza ez dadin eta heriotza-prozesua gehiegikeriaz eta irrazionalki atzera ez dadin.

- 12/2000 Foru Legea, azaroaren 16koa, farmazia laguntzari buruzkoa. Farmazia laguntzako profesionalen betebeharrak da, bereziki, adingabeei medikamentuak ematea zaintzea (11.2.f art.).
- 4/1991 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, drogamendekoen laguntzarako egoitza zentroen kreditazioari buruzko arau orokorrak eta

oinarrizko arauak finkatzen dituen. Bertan adierazten da, egoitzetan adigabeak sartzen ahalko direla, familiaren edo, hala badagokio, epailearen baimenik badute (14.k art.).

- 10/1991 Foru Legea, martxoaren 16koa, alkoholdun edarien kontsumoa galarazi eta mugatzeari buruzkoa. Legearen arabera, Nafarroako Foru Komunitatean debeku da alkoholdun edariak dohainik edo diru truk 18 urtetik beheitikoei saldu, hornitu edo banatzea (1. art.); debeku da alkoholdun edariak saldu, banatu edo kontsumitzea: a) Bereziki 18 urtetik beheitikoak hartzen dituzten lokal edo zentroetan, eta b) Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko oinarritzko eta erdi-mailako zentroetan (2. art.); adingabeen guraso, tutore edo zaintzaileek alkoholdun edariak erosi edo kontsumitzeko emandako baimenek ez dute indarrik izanen (3. art.).

Era berean debeku da (4. art.) ehuneko 18 gradu baino gehiagoko alkoholdun edariak dohainik edo diru truk saldu, hornitu edo banatzea toki hauetan:

- a) Goi-mailako hezkuntza-zentroetan eta unibertsitateetan.
- b) Administrazio publikoetako bulegoetan.
- c) Geltokietan, eta autobia eta autobideetako zerbitzuguneetan.

Horrez gain, alkoholdun edarien publizitatea mugatzen da 18 urtetik beheitikoei zuzendutako feria, erakusketa eta antzeko ekitaldietan (6.3 art.), hala nola, bereziki 18 urtetik beheitikoei zuzendutako toki publikoetan (6.4 art.) eta bereziki 18 urtetik beheitikoei zuzendutako argitalpen, irratsaio eta telebista saioetan (6.5 art.)

- 67/1987 Foru Dekretua, martxoaren 20koa, Umeen Osasun Liburuxkaren erabilera arautzen duena, derrigorrezkoa eta doakoa dena Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren 15 urtetik beherakoendako (1. art.).

C) Aisiarako eskubidea

Eskubide hau aitortzen da Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenaren 31. artikuluan. Bertan, haurrari atsedean eta denborapasako, jolas eta bere adineko aisialdi ekintzatarako eskubidea aitortzen zaio, eta honekin batera, bizitza kulturean eta arteetan parte hartzekoa ere bai.

Oraingoan ere, eskubide sortuberri (hobe esanda, botere publikoen betebeharrak) honi buruzko foru araudia oso zatikatua dago, bai aisiaren erabilera erraztean bai adingabearen intereserako honek egiten ahal dituen aisialdi ekintzak murriztean.

Adingabeendako aisialdi ekintzak eskaintzen dituen arauen artetik, hauek dira aipagarrienak:

- 15/2001 Foru Legea, uztailaren 5ekoa, Nafarroako Kirolari buruzkoa. Foru Komunitateko administrazio publikoen kirol politikaren helburuen artean (3.e art.) barne hartzen du bultzatzea eta begiratzea, gehienik adingabeentzakoak edo adingabeek parte hartzekoak diren jendaurreko ikuskizun eta jostetak pertsonaren garapen harmonikoa eta orekatua helburuarekin egin eta haurraren edo gaztearen gorpuzkera, gaitasun eta hezkuntza premien arabera izan daitezkeen.

Adingabeak babestuko dira eginahalean inork helburu gehienbat ekonomiko, politiko edo haien interesen kontrakoetarako erabiltzetik, eta zentzu horretan, 17.1 artikulua zera adierazten du "Foru Komunitateko Administrazioak antola eta muga dezake Nafarroako kirol erakundeek noraino duten zilegi 16 urtez beherako kirolarien prestakuntzaren aldera eskubideak edo beste edonolako diru-ordainak jasotzea".

- 177/1997 Foru Dekretua, ekainaren 30ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuna duten Natura Interpretatzeko Zentroetan sartzeko araubidea ezartzen duena. Honen arabera, zentro horietan sartzeko ez dute sarrerarik ordaindu beharko 18 urtetik beherakoek, hala egiaztatuta (4.1 art.).
- 203/1994 Foru Dekretua, urriaren 24koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuna duten museoetan sartzeko araubidea ezartzen duena. Honen arabera, museo horietan sartzeko ez dute sarrerarik ordaindu beharko adin zibil txikikoek (4. art.).
- 2/1993 Foru Legea, martxoaren 5ekoa, basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzkoa. Honen 4. artikulua kirol-ehiza eta -arrantzarako basa fauna ustiatzea ahalbidetzen die 14 urtetik gorako pertsonari, eskatutako gaitasuna eta ezagutza egiaztatuta, lizentzia egokia badute, eta ondore hauetarako gaitasunik gabe utzi ez bada epai judizial edo administrazio-ebazpen irmoaren bidez, eta beharrezko baimenak izan eta legeak ezarritako baldintzak betetzen baditu. 14 urtetik beherakoek

arrantzan aritzeko lizentzia eskuratzen ahal dute (aldeztatik haren legezko ordezkariaren baimenaren egiaztagiria aurkeztuta), nahiz eta jarduera honetan aritzeko adin-nagusiko batekin joan beharko duten beti.

- 390/1993 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, ehizaren arloko hainbat alderdi arautzen dituena. Honen 21. artikulua zera adierazten du: 14 urtetik gorakoek ehizan aritzeko lizentzia eskuratzen ahalko dute, nahiz eta, kasu guztietan, 14 urtetik beherako emanzipatugabeek haien legezko ordezkariaren baimena izan beharko duten, eta ehizan aritzeko adin-nagusiko batekin joan beharko duten beti.

Adingabeen aisialdia mugatzen duten arauen artetik, honakoak dira aipagarrienak:

- 44/2002 Foru Dekretua, otsailaren 25ekoa, Bingo Jokoaren Erregelamendua onesten duena. Honen arabera, adingabeek debekatuta dute bingo aretoetan sartzea (26.1 art.).
- 270/1999 Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Joko Aretoen Erregelamendua onesten duena. Dekretu honen 21. artikulua arabera, joko aretoek nahitaez harrera edo onarpen zerbitzu bat beharko dute izan, informatizatua, hemezortzi urtetik beherakoei sartzea debekatuko diena. Era berean, sarreran jarriko da, bistan, hemezortzi urtetik beherakoei sarrera debekatzen dien errotulua.

Honek zerikusia dauka Joko Makinetarako Erregelamendua onetsi zuen uztailaren 31ko 181/1990 Foru Dekretuarekin. Izan ere, honen 9.3 artikulua zera adierazten du: “Hemezortzi urtetik beherakoek debekatuta izanen dute joko aretoetan sartzea”. Horrez gain, Dekretu honek debekatzen du joko makinak paratzea adingabeak maiz hartzen dituzten lokaletan, eta ezinen dira inolaz ere paratu bide publikoetan kokatutako terraza eta eremuetan, tren geltokietako, aireportuetako eta merkataritza zentroetako nahiz antzekoetako kafetegi edo tabernetan, lokala bezeroendako itxita ez dagoenean (10.2 art.).

Arau hauek Jokoari buruzko ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legea dute oinarri. Lege honen 19. artikulua arabera, adingabeek ezin izanen dute sariak ematen dituzten jokoetan edo joko makinetan aritu zein apustuetan parte hartu, eta debekatuta izanen dute jokora bereziki zuzendutako lokaletan edo aretoetan sartzea.

- Ildo murriztaile honetatik abiatzen da, 29/1998 Foru Dekretua, otsailaren 9koa, Josteta Makinen Eredu Homologatuen Erregistroa

arautzen duena. Honen 1.2 artikulua araberan, ezin homologatuko edo inskribatuko dira erabiltzean adinez txikiak direnendako baimendurik ez dauden lokaletako berezko irudi edo jarduerak eragiten dituzten makinak, eta nolabait haurren eta gazteen minberatasunari edo prestakuntzari kalte eragin diezaieketenak.

- Bere aldetik, Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 10.5 artikulua hamasei urtetik beherakoei debekatzen die honako josteta jardueretan parte hartu edo ikuskizunetan sartzea:
 - a) Festa-aretoetan, dantzalekuetan eta antzekoetan.
 - b) Erakunde eskudunek adin-nagusikoendako gorde dituztenetan.
 - c) Gauetz egiten direnetan, baldin eta adingabeek euren segurtasunaz arduratzen diren adin-nagusikoekin ez badoaz.
 - e) Zezenketetan edo parte-hartzaileen osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten beste edozeinetan. Ikuskizun horietara adingabeak ikusle gisa joaten ahalko dira bakarrik.

Horrez gain, azpimarratzen du, goian aipatzen ez diren josteta jardueretan edo ikuskizunetan sartzen diren hamasei urtetik beherakoei ezin izanen zaiela alkoholdun edaririk zerbitzatu ezta horiek kontsumitzea ahalbidetu.

4.2. Adingabeak babesteko instituzio juridikoak

4.2.1. Zuzenbide Komunean (Kode Zibila)

4.2.1.1. Guraso-ahala

Kontzeptua

Guraso-ahala gurasoek euren seme-alabekiko duten eskubide, betebeharrak eta eskuduntzen multzoa da, izan ere, hauek juridikoki emantzipatuta ez daudenez, euren gurasoen babes eta zaintzapean baitaude, eta gurasoak izanen dira euren ondare-interesaren eta garapen pertsonal osoaren arduradunak.

Adingabearen emantzipazioaren ondorioz, guraso-ahala amaitu egiten da; baina horrek ez du esan nahi, logikoa denez, gurasoen eta seme-alaben arteko

harremana amaituko denik. Horrek ekarriko duena zera izanen da: adingabearen babes osoa eta adingabearen askatasunez jokatzeko murriztapenak amaitzea, baina bata bestearen aita-ama eta seme-alaba izateari utzi gabe. Juridikoki nabaria den guraso eta seme-alaben arteko harremanaren biziraupena, gurasoek seme-alabei mantenua emateko betebeharrean hautematen da. Gurasoek seme-alabei mantenua eman beharko diete, guraso-ahala behin azkenduta ere.

Guraso-ahalaren printzipioak

Maiatzaren 13ko 11/1981 Legea egin aurretik, guraso-ahala aitari zegokion esklusiboki eta amari bakarrik subsidiarioki. Aipatutako 11/1981 Legeaz geroztik eta 1978ko Konstituzioak ezartzen duen gizon eta emakumeen arteko berdintasun printzipioarekin bat (Espainiako Konstituzioaren 32. artikulua), guraso-ahala aitari zein amari dagokie, eta seme-alaben hezkuntza, heziketa eta babes osoa ziurtatzera bideratu beharko dute (Espainiako Konstituzioaren 39.3 artikulua: *Gurasoek era guztietako laguntzak eskaini behar dizkiete seme-alabei, nahiz ezkontzakoak nahiz ezkontzatik kanpokoak izan, haien adingabetasunean zehar...*), eta inoiz ez dute egikarituko norberaren onura edo intereserako, baizik eta *“beti egikaritu behar da seme-alaben onurarako, euren nortasunarekin bat etorritik”* (Kode Zibilaren 154.2 art.).

Horrela, guraso-ahalaria izaera funtzionala ematen zaio (hau da, gizarte-garrantziko funtzio bat egiteari zuzendutakoa), gizarte- eta familia-politikaren oinarritzko instituzio eta, azken batean, ordena publiko familiar gisa ulertuta. Horregatik, hain zuzen ere, guraso-ahala besterendu ezina, utziezina eta preskribiezina da.

Guraso-ahalaren titulartasuna eta egikaritzea

Arau orokorraren arabera, guraso-ahala bi gurasoek batera egikaritzen dute, eta aitari zein amari dagokie. Guraso-ahalaren titulartasuna eratzikiko da kontuan hartu gabe gurasoak ezkontuta dauden edo ez, ondore hauetarako axola duena ez baita aitaren eta amaren artean lotura juridikorik dagoen (edo ez: seme-alaba aldi baterako harreman baten emaitza izaten ahal baita), baizik eta aitatasuna eta amatasuna legez zehatuta geratzea. Seme-alabatasuna zehazten den unean bertan, guraso-ahala eratzikitzen da legez (eta ez da inolako eskakizunik zein erreklamaziorik behar).

KZren 154. artikulua arabera, *“Seme-alaba emantzipatugabeak aita eta amaren ahalpean daude”*, eta manu honen osagarri da KZren 156. artikulua:

“Guraso-ahala egikaritzen dute bi gurasoek batera, edo, osterantzean, batek bakarrik, bestearen esanbidezko edo isilbidezko adostasunarekin”.

Desadostasuna izanez gero, bietatik edozeinek jo dezake epailearengana. Epaileak entzuten die bi-bioi eta semeari edo alabari ere, horrek behar besteko zentzutasuna badu; semea edo alaba 12 urtekoa baino nagusiagoa bada, horri beti entzun behar dio epaileak. Horiei guztiei entzun eta gero, epaileak aitari edo amari eratzikiko dio (egikaritzea, ez titulartasuna, bi gurasoena izaten baitihardu), betiere bi urte baino gutxiagorako (KZren 156. artikulua 2. paragrafoa).

Gurasoak banandurik bizi badira, KZren 156. artikulua 5. paragrafoaren arabera guraso-ahala bi gurasoek egikarituko dute, aitari eta amari gaitasun-ahala kentzen zaienean izan ezik, semearekin edo alabarekin bizi den gurasoak egikarituko baitu (gurasoek elkarren arteko adostasunez erabakiko dute, bestela, epaileak hartuko du erabakia: KZren 159. artikulua). Dena den, eskaera egiten badu, eta semearen edo alabaren intereserako, epaileak horri eratziki diezaioke guraso-ahala, bestearekin batera egikari dezan, bestela, aitaren eta amaren artean bana ditzake guraso-ahalaren egikaritzari datxezkion eginkizunak.

Guraso-ahala ez dute bi gurasoek egikarituko hiru kasu hauetan:

1. Seme-alabatasuna bakarrik guraso baten izenean zehaztuta dagoenean.
2. Giza sorkuntza ekarri duen harremanaren ondorioz kondenatuta izan denean, epai penal irmoaren bidez (KZren 111. 1 art.). Orduan, delitu hori (bortxaketa) egitearen ondoriozko ezduintasuna dela eta, guraso-ahala amak era esklusiboan egikarituko du.
3. Seme-alabatasuna epaiketaren bidez zehaztu denean, bera horren aurka agertuta (KZren 111. 2 art.). Kasu horretan, aitari guraso-ahala kenduko zaio jokabide horren zigor gisa.

Azken bi kasuetan semearen edo alabaren legezko ordezkariak (beste gurasoa: tipikoki, ama) hala erabakitzen badu, eta epaileak erabaki hori onesten badu, murrizketa horiek ondoreak sortzeari utziko diote, eta kondenatutako gurasoak guraso-ahala egikaritzen ahalko du berriro (KZren 111. 3 art.).

Gurasoari zigorra ezartzen zaion kasuetan, besteari dagozkio “seme-alabak jagon eta eurei mantenua emateko betebeharrak” (KZren 111. 4 art.). Betebehar hau ez da guraso-ahaletik eratoritzen, baizik eta gurasoen eta seme-alabaren arteko harremanetatik, guraso-baldintzatik.

Guraso-ahalaren eduki pertsonala

KZren 154. artikulua arabera, gurasoek euren seme-alabekiko eginbehar eta ahalmen hauek dituzte:

1. Seme-alabak jagotea, eurokin izatea, horiei mantenua ematea, seme-alabok heztea, eta, berebat, seme-alaba horiei oso-osoko heziketa ematea. Gurasoek, euren ahala egikaritzean, agintaritzaren laguntza lor dezakete. Era berean, gurasoek seme-alabak zuzen ditzakete, zentzuz eta neurritz (KZren 154. artikulua azken paragrafoa). Ahal horri datzekion eginbeharrak ez-betetzeagatik dagokion zigorzehapena ezartzen ahalko da, eta, guraso-ahalaren egikaritzearen eta baita titulartasunaren galera ere ekartzen ahalko du (KZren 170. art.).

Mantenua emateko betebeharrak iraunen du gurasoaren kontrako hartzekodunen konkurtsoa adierazita ere; dena den, seme-alabatasuna epailearen erabakiz konkurtsoa adierazi eta gero zehatzen denean, konkurtsoaren masa aktiboari mantenua ordaintzea bakarrik egokituko zaio, adingabeari mantenua emateko betebeharrak duten beste pertsonak (v.gr. beste senideek, hala nola, aiton-amonek) ordaindu ezin badute (uztailaren 9ko Konkurtso Erreformari buruzko 8/2003 Legearen 47.3 art.).

2. Seme-alabak ordezkatzeari, seme-alaba adingabeen jarduteko gaitasunaren mugaketaren ondorioz. Ordezkaritza honek izaera orokorra du eta seme-alaba horren izenean jardutean, adingabearen ordezkari jardutean, oinarritzen da.

Seme-alaben gaineko legezko ordezkariaren salbuespenak jasotzen ditu KZren 162. artikulua:

1. Nortasun-eskubideen inguruko egintzak, edo, legeen arabera eta semeak edo alabak duen heldutasunaren arabera, seme edo alaba horrek bere kabuz buru ditzakeenak.
2. Gurasoen eta seme-alaben arteko interes-gatazka eragiten duten egintzak. Halakoetan, epaileak seme-alaba horientzat defendatzailea izendatuko du, defendatzaile horrek epaiketari nahiz epaiketatik kanpo seme-alabok ordezkari ditzan (KZren 163. art.).
3. Gurasoen administrazioetik kanpo utzitako ondasunen gain gauza daitezkeen egintzak.

KZren 162. artikulua amaieran jasotzen den kasuan, gurasoen ordezkaritza ahalmena baztertu ez, baina mugatu egiten da. Zehazki, *“Kontratu batzuek semea edo alaba behartzen badute prestazio pertsonalak egitera, eta seme edo alaba horrek behar besteko zentzutasuna badu”*. Horren bidez seme-alabaren nortasuna errespetatu nahi da eta, horretarako, adostasun horrek baldintzatu edo mugatutako ordezkaritza ezartzen da.

Guraso-ahalaren ondare-educia

Adingabeko emantzipatugabeak eta, hortaz, guraso-ahala egikaritzeko ahalmena duenak, gaitasun juridikoa du, baina ez jarduteko gaitasunik. Eta, ezin ditu bere ondasunak administratu ezta horiek erabili ere, ez baitu trafikoa juridikoan jarduteko gaitasunik. Guraso-ahala egikaritzeko dute (edo du, guraso bakarrak badu horretarako ahalmena) seme-alabak ordezkatu eta euren ondasunak erabili eta administratzen dituztenek.

KZren 164. artikulua zera adierazten du: *“Gurasoek euren ondasunak nola administratu eta arreta berberarekin administratu behar dituzte seme-alabaren ondasunak; horretarako, gurasoek bete behar dituzte administratzaile orok dituen betebeharrak eta Hipoteka Legearen 168., 190. eta 191. artikulua lotzen ditu. Hauetan, seme-alabei aitortzen zaie euren gurasoen ondasunekiko legezko hipoteka; horrela, seme-alabak euren gurasoek administratutako ondasunak berreskuratzea bermatzeko, guraso bat edo biak bigarrenez ezkontzekotan (Hipoteka Legearen 168. art.). Seme-alabaren eskubidea da euren ondasun higiezinak euren izenean inskribatzea, jadanik hala ez baleude (HLren 190.1 art.). Seme-alabaren eskubidea da bere aitak edo amak, hala dagokionean, ondasun hipotekagarririk badu, seme-alabaren berarenak ez diren ondasun higiezinen balioaren itzultzea hipotekarekin aseguratzea (HLren 190.2 art.).*

Gurasoen administratuziotik kanpo geratzen dira, artikulua honen 2. paragrafoaren arabera, dohainik eskuraturiko ondasunak, xedatzaileak beren beregi hori ordenatu duenean (kasu horretan, eskuzabaltasunaren egileak ondasun horien administrazioaren gainean xedatutakoari jarraituko zaio); oinordetza bidez eskuraturiko ondasunak, baldin eta aita, ama edo biok oinordetza horretan zuzen jaraungabetuak izan badira edo ezduintasun-arrazoia dela-bide ezin badira jaraunse izan (halakoetan, ondasun horiek administratuko ditu kausatzaileak izendaturiko pertsonak, eta, horrelakorik izan ezean, eta ondoz ondo, beste gurasoak edo epaileak bereziki izendaturiko administratzaileak); 16 urtekoa baino nagusiagoa den seme edo alabak bere lan edo industriaren bidez eskuraturiko ondasunak (kasu horretan, semeak edo alabak berak burutuko ditu

administratzeko egintzak, ondasunak sortzeko gaitasuna badu, horiek administratzeko gaitasuna ere izan beharko baitu).

Guraso-ahala bukatzean, seme-alabek gurasoei eska diezaiekete kontu-arrazoia ematea, ordu arte seme-alabon ondasunen gain burutu izan duten administrazioari buruz (KZren 168. art.). Era berean, doluaren edo erru astunaren ondorioz, ondasunak galdu edo narriatu badira, gurasoek erantzukizuna izanen dute eragindako kalte-galeren gainean (KZren 168.2 art.).

Adingabearen ondasunei buruzko xedapen-egintzak, irizpide murriztaile batek arautzen ditu, batzuetan, aldez aurretik epaileak baimena eman beharko du ezinbestean.

Murrizketak jasanen dituzten xedapen-egintzak, KZren 166. artikulua arabera, hauek dira:

- a) Uko egitea seme-alaben titulartasunari.
- b) Besterentzea eta kargatzea seme-alaba horien ondasun higiezinak, merkataritza nahiz industriako establezimenduak, objektu baliotsuak edo balore higigarriak, salbu eta akzioak lehenespenez harpidetzeko eskubidea. Hori egin ahal izateko, onura edo beharrezkoaren inguruko arrazoi egiaztatuak izan behar dira, eta, aldez aurretik, egoitzari dagokion epaileak baimena eman behar du, Fiskaltzak esan beharrekoa entzunez.
- c) Semeari edo alabari utzitako jarauntsia nahiz legatua arbuiatzea, epailearen baimena eskatzen duena. Epaileak baimenari ezezkua ematen badiu, jarauntsia inbentario onuraren arabera bakarrik onar daiteke, hau da, bakarrik jarauntsiko ondasunen zenbatekoaren arabera jarauntsiko zorrak hartu daitezke, adingabearen ondareak berak jarauntsiko ondasun horiei erantzun beharrik izan gabe.

KZren 166. artikulua azken paragrafoak, ordea, zera dio: *“Epailearen baimena ez da beharrezkoa, adingabeak 16 urte bete baditu eta agiri publikoan adostasuna eman badu; balore higigarriak besterentzeko ere ez da epailearen baimenik behar, baldin eta ondasun nahiz balore ziurretan berrinbertitzen bada besterentze horren ondorioz lortutako zenbatekoa”*. 16 urte baino nagusiagoa den adingabearen adostasuna egintza zehatz bati egokituko zaio, ezin izan da gaitasuna orokorra izan, manuak eman nahi duen babesa eraginkortasunik gabe utziko bailuke.

Guraso-ahala azkentzea.

KZren 169. artikulua arabera, guraso-ahala amaitu egiten da:

1. Gurasoen (edo bizi den guraso bakarraren edo legez zehaztutako bakarraren), semearen edo heriotza edo heriotza-adierazpenaren ondorioz.
2. Semea edo alaba emantzipatzearen ondorioz. Emantzipazioa gertatzen da (KZren 314. art.), adin-nagusitasunera heltzean, edo 18 urte bete ez direnean, semea edo alaba ezkontzean, guraso-ahala egikaritzen dutenek hori ematen diotenean 16 urte bete dituen semeari edo alabari eskritura publiko bidez edo Erregistro Zibileko epaileak gurasoei entzun eta gero, edota epailearen bidez KZren 320. artikulua ezarritako kasuetan (adingabearekin bizi den gurasoa beste pertsona batekin ezkontzen denean edo horrekin ezkondu-bizimodua egiten duenean, epaileak uste badu familia-egoitzan bizitzea kaltegarria izaten ahal dela, hala nola, guraso-ahalaren egikaritzea modu larrian oztopatzen duten arazoietatik edozein gertatzen denean).
3. Semea edo alaba adoptatzearen ondorioz. Kasu honetan, jatorrizko aita eta amaren guraso-ahala amaitu egiten da eta adopzio-hartzaileak izanen dira guraso-ahala egikaritutakoak.

Guraso-ahalaren kentze eta berreskuraketa

Zenbait kasutan, legegileak guraso bati edo biei guraso-ahala kentzen ahal die zigor gisa. Honek guraso-ahalaren egikaritzeari baino titulartasunari eragiten dio eta, bi gurasoei eragiten dienean, tutoretzaren beharrezko eraketa zehaztuko du.

KZren 170. artikulua arabera, guraso-ahala kendu ahalko da:

- Ahal horri datzekion ez-betetzeagatik emandako epaiaren bidez (v.gr. seme-alabak ez jagotea, mantenua ez ematea, e.a.)
- Auzi kriminalean emandako epaiaren bidez. Honek Zigor Kodean titulartasun hori kentzea zigor gisa ezartzen duten manuetara igortzea dakar (familia bertan behera uztea, sexu-askatasunaren kontrako delituak).

- Ezkontzako auzian emandako epaiaren bidez, hau da, banantze, deuseztasun eta dibortzio auzietan emandako epaiaren bidez, prozesuan horretarako arrazoia azaldu denean (KZren 92.3 art.).

Kentzearen eta azkentzearen arteko ezberdintasuna, kentzea aldi baterako edo berreskuragarria dela da. Semea edo alaba hil, emantzipatu edo beste batzuek adoptatzen dutenean, guraso-ahala amaitu egiten da. Guraso-ahala gurasoei kentzen zaienean, aldiz, baliteke hauek hura berreskuratzea. Horrela, KZren 170. artikulua 2. paragrafoak zera dio: *“Auzitegiek, seme-alaben onura eta intereserako, guraso-ahalaren berreskuraketa erabaki dezakete, kentzea eragin zuen arrazoia amaitu denean”*.

4.2.1.2. Adingabeak babesteko bestelako instituzioak

Kode Zibilaren arloan, badira hainbat instituzio adingabeak babesteez arduratzen direnak, guraso-ahala amaitzen denean, titularrek egikaritu ezin dutenean, edo gurasoen eta seme-alaben artean interes-gatazka sortzen denean arlo zehatzen batean.

Babes-instituzio hauek, hortaz, guraso-ahalaren ordeztu, hau amaitzen denean, jarduten dute (beraz, ordezkotasun ideia ezkututzen dute), eta agintaritza judizialaren zaindapean daude (KZren 216. art.).

KZren 215. artikulua zera adierazten du: *“Adingabeak edo ezgaituak eurak eta haien ondasunak zaindu eta babesteko, jarraikoak eratuko dira, eraketa hori bidezkoa den kasuetan: 1. Tutoretza; 2. Kuradoretza; 3. Defendatzaile judiziala”*.

Horrez gain, Erregistro zibilean inskribatu behar dira tutoretza- eta kuradoretza-karguei buruz epaileek ematen dituzten ebazpenak (KZren 218. art.). Ebazpen horien inskripzio egokia egiten ez den bitartean, ebazpenok ezin izanen dira hirugarrenen aurka jarri (hirugarren horrek Erregistroz kanpoko bitarteko bidez ahalmen-kargu horren eraketa eta hura betetzeko pertsona baten izendatzea ezagutzen zuela egiaztapena salbu). Inskripzioa eginen da agintaritza judizialak Erregistro Zibileko arduradunari inolako atzerapenik gabe igorri behar dion komunikazioaren bidez (KZren 219. art.).

4.2.1.2.1. Adingabeen tutoretza

Tutoretzaren kontzeptua eta oinarria

Tutoretza adingabe edo ezgaituren bat babesteko pertsona bat izendatzean oinarritzen da. Horretarako, pertsona horri adingabe edo ezgai horrekiko edo/eta haren ondasunekiko eskubide eta ahalmen batzuk aitortzen zaizkio. Eskubide

eta ahalmen horiek tutoretzapekoa kontuan hartuta eta haren onurarako egikarituko ditu, eta kontrol judizialaren menpe egonen dira.

KZren 222. artikulua arabera, *“Tutoretzaren menpe egonen dira: 1. Adingabeko emantzipatugabeak, horiek guraso ahalpean ez daudenean; 2. Ezgaiak, epaiak hala ezarri duenean; 3. Guraso-ahal luzatuaren menpe daudenak, ahal hori azkendu bada, kuradoretza bidezkoa denean izan ezik; 4. Babesgabezia-egoeran dauden adingabeak”*.

Tutoretza beren kabuz balia ezin daitezkeen pertsonak oso-osorik babestean oinarritzen da, bai epai irmoaren bidez aitortutako ezgaitasunen bat dutelako bai bizitzan eta trafikiko juridikoan jarduteko behar besteko heldutasunik ez dutelako. Bigarren kasu honen irizpidea ez da adina, heldutasuna baizik:

horregatik, ez dira tutoretzapean jartzean guraso-ahalaren menpe dauden adingabe guztiak (18 urtetik beherakoak, beraz), baizik eta adingabe emantzipatugabeak; izan ere, adingabe emantzipatuak egoten ahal baitira, ondorioz, guraso-ahala egikaritzen duten guraso edo tutoreen beharrik ez dutenak (dena den, adingabe emantzipatugabe hauek ez daude tutoretza-instituzioetatik kanpo, kuradoretza delakoaren menpe egonik).

Tutorea izendatzea

Tutore bat edo gehiago izendatzen ahal dira aldi berean. Lehenengo kasuan, lehenetsun-ordena bat ezartzen du KZren 234. artikulua, zeinaren arabera epailea izanen baita adingabe emantzipatugabea babestuko duen tutorea izendatuko duena. Ordena hori, ordea, ezin da zehatz-mehatz bete, badirelako adingabearen tutore ezin izan daitezkeen hainbat pertsona (haren ezkontidea, gurasoak –guraso-ahala legoke, ez tutoretza–, edo seme-alabak). KZren 234. artikuluan adierazitako beste batzuk, aldiz, tutore izaten ahal dira, hala nola, gurasoek euren azken nahiaren xedapenetan izendaturiko pertsona edo pertsonak edota epaileak izendaturiko tutoretzapekoaren aurrekoa (ikus haren aitona), neba edo anaia.

Dena dela, KZren 234. artikulua 2. paragrafoak epaileari KZren 234. artikulua legezko ordena aldatzeko edo horietan aipaturiko pertsona guztiak alde batera uzteko ahalmena ematen dio, hori beharrezkoa bada adingabe edo ezgaituaren onura kontuan hartuta. Epaileak erabakitzeko askatasuna izanen du baita ere (betiere tutoretzapekoaren interes-printzipioari jarraiki eta, esaten duenez, *“honekiko loturagatik”*) aipaturiko pertsonarik ez badago edo beharrezko gaitasunik ez badute.

Tutorearen egitekoak eta betebeharrak

Guraso-ahalaren ordezkari instituzio izaera, adingabe emantzipatuen tutoretzaz ari garenean, bi instituzioak hurbiltzen ditu edukiaren ikuspegitik: tutorea da bere legezko ordezkaria (bere izenean jarduten duena) eta bere ondasunen administratzailea (bere ondarea kudeatzen duena, nahiz eta KZren 271. artikuluan aurreikusitako mugen barne, izan ere, artikuluko honek epailearen baimena eskatzen baitu adingabearen ondarrerako garrantzi berezia duten egintza zehatzetarako: eskubideei uko egiteko, ondasun higiezinak besterendu edo kargatzeko, dirua maileguan hartzeko, inbentario onurarik gabe edozein jarauntsi onartzeko, tutoretzapekoaren ondasunak emateko eta bestelako xedapen-egintzetarako).

Horregatik zera adierazten du KZren 268. artikulua: *“Tutoretzapekoek begirunea eta obediencia zor dizkiote tutoreari. Tutoreek, euren karguan jardutean, agintaritzaren laguntza eska dezakete. Halaber, adingabeak zuzen ditzakete zentzuz eta neurriz”*. Honen osagarri dugu KZren 269. artikulua, zeinaren arabera tutoreari baitagokio tutoretzapekoa jagotea, eta, bereziki: 1. Mantenua ematea; 2. Adingabea hezi eta horri oso-osoko heziketa ematea; 3. Tutoretzapekoak gaitasuna eskura edo berreskura dezan eta tutoretzapeko hori hobeto gizartera dadin eragitea; 4. Urtero-urtero, epaileari informazioa ematea adingabe edo ezgaituaren egoerari buruz, eta administrazioaren urteko kontu-arrazoiak ematea.

Tutoretzan tutore batek jardunen du, pertsonaren tutorea eta ondasunen tutorea izanen dena aldi berean, salbu eta, epaileak erabakitzen duenean kargu desberdin gisa bereiztea pertsonaren tutorea eta ondasunen tutorea (KZren 236.1 artikuluan aurrekusi bezala). Tutorea adingabearen ondasunetara arduratzen denean, inbentarioa egin beharko du karguaz jabetu eta 60 eguneko epean, eta agintaritzak judizialak tutoreari eska diezaiokete fidantza eratzeari, betebeharren betetzea ziurtatzeko.

Tutorea enkaitzea.

KZren 248. artikulua arabera, Fiskaltzak nahiz beste edozein pertsona interesdunek hala eskaturik, tutorea kargutik enkaitzea dekretu daiteke, KZren 247. artikuluan adierazitako edozein arrazoiengatik:

1. Tutorea, karguaz jabetu eta gero, enkaitua izanen da, KZren 243. eta 244. artikuluetan aipatutako gaikuntza ez izateko legezko arrazoiaren batean sartu denean. Arrazoiok tutore izendatu eta gero sortzen ahal dira (v.gr. guraso-ahala kendu edo etenda dutenak (tutoretzapekoaren osaba) –KZren 243.1 art.–; porrot eginak eta birgaitu gabeko

konkursatuak, pertsonaren gaineko tutoretzaren kasuan izan ezik, eta ez ondasunen gainekoan –KZren 244.5 art.–; jokabide makurreko pertsonak edo bizibide ezagunik ez dutenak –KZren 244.3 art.–), edo arrazoioek lehenagotik existitu daitezke, tutore izendatu arte ez ezagutu arren (v.gr. geroago jakitea, lege-aginduz, aurreko tutoretza batetik enkaitua izan dela –243.2 art.–, adingabearekin edo ezgaituarekin begi-bistako areriotasuna duela –244.2 art.–, edota adingabearekin edo ezgaituarekin interes-gatazka duela, harekin egoera zibilari buruzko edo eztabaida duela, edo adingabeari edo ezgaituari diru-kopuru handiak zor dizkiola– KZren 244.4 art.–).

2. Tutoretzan jardutean makur jokatu duenean, karguari datxezkion eginbeharren ez-betetzea gauzatu duelako.
3. Tutoreak eta tutoretzapekoak elkarrekin bizitzeko arazo larriak eta jarraikakoak agertzen direnean, pertsona hori tutore izatea ezinezko edo ez-gomendagarri egin eta beste tutore bat izendatzea gomendatzen dutenak.

Tutoretza azkentzea

KZren 276. eta 277. artikuluen arabera, tutoretza azkentzen da:

1. Tutoretzapean dagoen pertsona hiltzen denean.
2. Adingabeak hemezortzi urte betetzen dituenean edo adin-nagusitasunaren onura ematen zaionean (tutoretzapean dauden adingabeak emantzipatzean).
3. Guraso-ahalak tutoretza ordezkatzeko badu, bai adingabe emantzipatugabea adoptatzen duten aita eta amaren guraso-ahala bai adingabearen aita eta amaren guraso-ahala, hura kendu edo eten eta gero, epailearen aginduz berreskuratzen dutenean.

Tutoreak, bere eginkizunak bukatzean, bere administrazioari buruzko kontu-arrazoi orokor eta egiaztatua eman beharko dio agintaritzak judizialari, hiru hilabeteko epean (KZren 279. art.).

Tutoreak adingabearen tutoretza egikaritzen badu, ordainsaria jasotzeko eskubidea du, tutoretzapekoaren ondareak hori ahalbidetzen badu, KZren 274. artikuluen arabera: *“Epaileari dagokio ordainsariaren zenbatekoa eta berori jasotzeko modua finkatzea, eta, horretarako, kontuan hartuko ditu egin*

beharreko lana, eta ondasunen balioa eta errentagarritasuna; ahal den neurrian, ordainsariaren zenbatekoa ez da izan behar etekin likidoaren % 4tik beherakoa, ezta % 20tik gorakoa ere”.

4.2.1.2.2. Adingabeen kuradoretza.

Kontzeptua

Zuzenbide zibilean urriaren 24ko 13/1983 Legearen bitartez sartutako tutoretza-eta babes-instituzioa. Tutoretzan, tutoreak tutoretzapekoaren ordezkaria da baita trafiko juridikoan ere (v.gr. saldu, erosi, kargak sortu). Kuradoretzan, aldiz, kuradoreak adingabe edo ezgai horren gaitasuna osatu baizik ez du egiten, bataz zein besteak trafiko juridikoan jarduten dutenean.

Kasu honetan, adingabe edo ezgaiak trafiko juridikoan jarduten du negozio-egintzak eta negozio juridikoak eginez, eta hirugarrenekin elkartuz; hala ere, ez duenez jarduteko erabateko gaitasunik, zenbaitetan bere kuradorearen gaitasun osagarria izan beharko du (KZren 288. art.).

KZren 286.1 artikulua araberan, kuradorezaren menpe daude: emantzipatuak, euren gurasoak hil badira, edo guraso horiek ezintasunen bat badute legeak agindutako laguntza emateko, hala nola (KZren 286.2 art.), adin-nagusitasunaren onura lortu dutenak (tutoretzatik emantzipaziora igarotzen direnak).

Kasu horietan, kuradoreak KZren 323. artikulua jasotzen dituen egintzak burutzeko beharrezko gaitasun osagarria emanen du: dirua maileguan hartzeko; ondasun higiezinak, merkataritza nahiz industriako establezimenduak edo balio berezia duten objektuak kargatu eta besterentzeko. Baina, emantzipazioaren ondorioz, adingabea gaitua dago bere burua eta ondasunak gobernatzeko, adin nagusikoa izanen balitz bezala; hortaz, gainerako egintza eta negozio juridiko guztiak egiten alhako ditu, jarduteko erabateko gaitasuna edukiko balu bezala.

Horretaz gainera, kuradoreei aplikatu behar zaizkie tutoreen izendapen, gaikuntza ez, desenkusa eta enkaitzearen inguruko arauak (KZren 291. artikulua lehen paragrafoa), eta ezin dira kuradore izan porrot eginak eta birgaitu gabeko konkurtsatuak (artikulu bereko bigarren paragrafoa).

Kuradoreak, dakigun bezala, kuradoretzapekoaren gaitasuna osatzen du, beraz, egintza juridiko jakin batzuetan kuradorearen esku-hartzerik gabe burutzen direnean, deuseztagarriak dira (KZren 293. art.), kuradoreak berak edo

kuradorezapean dagoenak hala eskatuz gero. Hau da, ez dira deuseztagarriak erroitik, baizik eta, berehalakoan deuseztatzen ahal dira. Kuradore eta kuradorezapean dagoenaren arteko desadostasunik bada jokabide baten inguruan, eta honek uste badu haren ukazioa funtsik ez duela eta kalte egiten diola, agintaritza judizialarengana jotzen ahalko du, eta honek egoki deritzona aginduko du, adingabe eta ezgaien tutoretza- eta babes-organoak kontrolatzeko eginkizuna egikaritzuz.

Adingabeen kuradoretza amaituko da: 1) Kuradotzeapean dagoen pertsona hiltzen denean; 2) Kuradotzeapean dagoen pertsonak hemezortzi urte betetzen dituenean; 3) Kuradoretzapeko adingabea adoptatzen denean, izan ere, orduan, guraso-ahal berri bat ezarri ezean, (adingabearen kuradoretza emantzipatuari, eta, hortaz guraso-ahalik ez duenari, ezartzen baitzaio), guraso berriak azaltzen baitira, kuradoreak KZren 323. artikuluan adierazitako egintzak burutu ahal izateko ematen zuen gaitasun osagarria emanen dutenak.

4.2.1.2.3. Adingabeen defendatzaile judiziala

Kontzeptua eta jarduketa

Tutore edo tutoretza-instituzio bat da, pertsona jakin bat ordezkatu, lagundu eta babesten duena noizbehinkako edo zirkunstantziazko kasu ezberdinen aurrean. Tutoretza eta kuradoretza instituzio edo kargu egonkor eta iraunkorrek dira (ez egintza zehatz baterako, baizik eta mota bereko egintza guztietarako oro har: v.gr. ondasunen xedapen-egintzak); defendatzaile judizialaren kargua, aldiz, aldi baterakoa da, noizbehinkakoa: egoera edo epe zehatz eta jakin baterako.

Defendatzaile judiziala izendatuko da, KZren 299. artikulua arabera, ondoko kasuetatik bat betetzen bada:

1. Gai zehatz baten inguruan interes-gatazka izatea, adingabeen edo ezgaituen eta euren legezko ordezkari nahiz kuradoreen artean.
2. *“Edozein arrazoi dela bide, tutoreak edo kuradoreak bere eginkizunetan ez jardutea; halakoetan, epaileak defendatzailea izendatuko du, arrazoi hori desagertu arte edo karguan aritzeko beste pertsona bat izendatu arte”*, arrazoia borondatezkoa izan daiteke (eginkizunak alde batera uztea) edo ez-borondatezkoa (tutorea edo kuradorea hil edo gaixotzea).
3. *“Kode Zibilak ezartzen dituen gainerako kasuetan”*.

KZren 300. artikuluaaren arabera, *“Borondatezko jurisdikzioaren prozedura bitartean, epaileak, ofizioz edo Fiskaltzak, adingabeak berak edo epaiketan agertzeko gaitasuna duten pertsonetatik edozeinek hala eskaturik, defendatzaile izendatuko du bere ustez kargu horretarako egokiena dena”*.

Eraentza juridikoa

Kuradoretzan aplikatzen diren arau berberak aplikatzen dira: 1) Defendatzaile judizialari aplikatu behar zaizkio tutore eta kuradoreen gaikuntza ez, desenkusa eta enkaitzearen inguruko arrazoiak (KZren 301. art.); 2) Defendatzaile judizialak izanen ditu epaileak ematen dizkion eskumenak; kudeaketa amaitutakoan, defendatzaileak kontu-arrazoiak eman behar dizkio epaileari (KZren 302. art.).

4.2.1.2.4. Adingabeen egitezko zaintza

Honela esaten zaio, horretarako izendatuta egon gabe (irudi honi izena ematen dion egiazko oinarria da hau), guraso-ahalaren menpe ez dagoen adingabea edo ezgaia zaindu edo babesten duen pertsonari. Kasu hauetan, beraz, tutoretza eratu beharko litzateke, baina, hau ez da judizialki sustatzen, eta, hortaz, ezta eratzten ere; hau gora-behera, pertsona batek babeska ematen dio adingabe edo ezgaiari, ez ezgaituari (ezgaitua balitz, tutorea izendatuko bailitzateke).

Kasu honetan, egoeraren behin-behinekotasuna dela eta, desiragarritzat ordez, marjinaltzat jotzen da eta, ondorioz, egitezko zaintza tutoretza-eginkizun edo -kargu bihurtzera animatzen du. Kode Zibilak arauketa murrizta eskaintzen du honen inguruan:

Epaileak egitezko zaintzaileari eskatzen ahal dio informazioa eman dezan, dela adingabearen edo ustezko ezgaiaren egoerari buruz, dela zaintzaileak haienganako izan duen jardunari buruz, eta kontrol- eta jagoletza-neurri egokiak ezartzen ahal ditu (KZren 303. art.). Horrek ez du zertan inplizituki adierazten egoerak bere horretan jarraitu behar duela onartzen denik.

Ezin dira aurkaratu egitezko zaintzaileak adingabearen edo ustezko ezgaiaren intereserako burutu dituen egintzak, haren onurarako gertatu badira (KZren 304. art.).

Egitezko zaintzaileak, babes-eginkizuna betetzean, kalte-galerak izan baditu berak ezelako errurik izan gabe, kalte-galeron ordaina

eskuratzeo eskubidea izanen du (KZren 306. art., KZren 220. artikuluan tutorearen inguruan xedatutakoari lotuz).

4.2.1.2.5. Adingabeen zaintza administratiboa

Premisa: babesgabezia-egoera

Gurasoek beren seme-alabak behar bezala zaindu behar dituzte. Zaintza hori ematen ez denean, zilegi da Estatuaren esku-hartzea, proportzionaltasun irizpidean oinarrituta; horretarako, familiari babes-mekanismoak ezarriko zaizkio, adingabearen interesen aurka ez badoa.

Mekanismo hauek porrot egin eta adingabea babesgabezia-egoeran geratzen bada (172.1 artikulua 2. paragrafoan definituta), hau da, adingabeari ez zaionean ematen nahitaezko duen laguntza moral edo materiala, orduan, komunitate bakoitzeko adingabea babesteaz arduratzen den herri-erakundeak esku hartu eta bere agin hartuko du adingabearen legezko tutoretza, beharrezko neurriak hartuz, besteak beste eta nagusiki, guraso-ahala edo tutoretza arrunta etetea.

Esku-hartze honi deritzo zaintza administratiboa, eta egitez babesgabezia-egoera dagoenean gertatzen da, edo baita ere adingabeaz arduratu ezin diren guraso edo tutoreek hala eskatzen dutenean, Administrazioari adingabearen zaintzaz arduratzeko laguntza eskatuz. Azkeneko kasuan, guraso-ahala eten egingen da ere bai, nahiz eta Administrazioari laguntza eskatzeak agerian uzten duen seme-alaben babesgabezia-arazoa ez dela borondatezkoa, baizik eta bitarteko materialen gabeziak eragindakoa; horregatik ez da KZren 170.1 artikulua aplikatuko (guraso-ahala kentzea), ez delako benetako ez-betetzea gertatzen, baizik eta, kontua da, gurasoek harrera eta zaintza eginbeharrak betetzeko zailtasun material larriak dituztela. Arazoen iraunkortasunak eta itzulezintasunak baizik ez dute eraginen guraso-ahala kentzea, etetea aldi baterako baino ez baita beti.

Babesgabeziaren ondorioak: adingabeen gaineko harrera

Zer dakar zaintza horrek? Hau da, non biziko da adingabea? Zaintza administratibo hori barnetegi-harreraren bidez (hau da, adingabea horretarako zuzendutako zentro publiko batean biziko da), edo familia-harreraren bidez gauzatzen ahal da (familia batekin biziko da). Aukeraketa hori egitea herri-erakundeari dagokio (edo epaileari, adingabearen guraso edo tutoreek harrerarekin bat ez datozenean); honek Fiskaltzaren zaintzapean jardunen du

(174.1 art.) eta sei hilabetean behin gutxienez, egiaztatu beharko du adingabearen egoera (174.2 artikularen 2. paragrafoa).

Familia-harrera KZren 173., 173 bis eta 174. artikuluek arautzen dute, eta adopzioarekiko ezberdina da. Ezberdintasun nagusia zera da: adopzioan adingabea familia baten kide bihurtzen da, eta, ondorioz, seme-alabatasun loturak ezartzen dira; harreran, aldiz, adingabea familia batean bizitzen da, baina ez da inolako lotura juridikorik ezartzen familia horren kideekiko.

KZren 173.1 artikularen arabera, harrera-hartzaileek adingabea jagon, eta hezkuntza eta oso-osoko heziketa eman beharko diote; honek zerikusi handia du adoptatzean sortzen den guraso-ahalarekin. Dena dela, harrera-hartzaileak ez dira adopzio-hartzaile, honako arrazoiengatik:

Adopzioa ezeztatzina da; harrera, aldiz, harrera-hartzaileen alde bateko borondatearen bidez amaitu egiten da. Hau da, adopzio-hartzaileak ezin dio aita edo ama izateari utzi bere borondatez; harrera-hartzaileak, aldiz, badu horretarako gaitasunik.

Adopzioa ez da ordaindua; harrera-hartzaileek, aldiz, konpentsazio ekonomikoa jasotzen ahal dute, baldin eta profesional gisa jarduten badute (KZren 173.2.6 art.).

Adopzioan, jatorrizko familiak ez du bisita egiteko eskubiderik; harrera agirian, aldiz, harrerapeko adingabearen familiak egin ditzakeen bisiten aldizkakotasuna zehaztuko da, betiere bistak adingabearen interesen aurkakoak ez badira (v.gr. adopzio aurreko familia-harrera).

Familia-harrera: motak eta eraentza juridikoa

Harrera mota hau KZren 173 bis artikulua arautzen du (Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoak Kode Zibila aldatu eta gero sartutakoa), eta honakoak bereizten ditu:

1. Familia-harrera soila. Hori behin-behinekoa izanen da, adingabearen egoera dela-eta aurreikus daitekeelako hori berriro sartuko dela bere familian; edo beste babes-neurri bat hartu bitartekoa delako, beste horrek izaera egonkorragoa izanik.
2. Familia-harrera iraunkorra. Halako harrera gertatuko da, adingabearen adina edo beste inguruabar batzuk kontuan hartuta, eta adingabe horren familiaren arabera, hori komenigarria izan eta

adingabearen laguntzarako zerbitzu horren aldeko txostena egiten dutenean. Kasu horretan, herri-erakundeak hala eskaturik, eta adingaberen interes gorena aintzakotzat hartuta, epaileak tutoretzaren ahalmenak eraxiki diezazkieke hartzaileei, horiek errazago bete ditzaten euren erantzukizunak.

3. Adopzio aurreko familia-harrera. Herri-erakundeak modalitate hori formalizatuko du, adingabearen laguntzarako zerbitzuek horren aldeko txostena egin, eta, ondorenez, herri-erakundeak adingabea adoptatzeko proposamena egiten dionean agintaritza judizialari. Proposamen hori egin ahal izateko, hartzaileek adopzioarako beharrezkoak diren betekizunak gauzatu behar dituzte; hartzaile horiek hautatuak izan behar dira; adopzioarako adostasuna eman behar diote herri-erakundeari; eta, horrez gain, adingabearen egoera juridikoa egokia izan behar da, bera adoptatzeko.

Halaber, eta adopzio proposamena aurkeztu aurretik, herri-erakundeak adopzio aurreko familia-harrera formaliza dezake, erakunde horren ustez beharrezkoa denean denboraldi bat izatea, adingabea familia berrira molda dadin. Denboraldi hori ahalik eta laburrena izan behar da, eta, edozein kasutan, ezin da urtebetetik gorakoa izan.

Barnetegi- edo egoitza-harrera

Harrera mota hau babesgabezia-egoeran den adingabea euren babesaz arduratzen diren eta, funtzionamendu eta kudeaketari dagokienez, arlo horren inguruko agintari eskudunen menpe dauden Zentro publiko batean sartzean oinarritzen da. Adingabea barnetegian sartuz gero, harrerarako ahalmena egikaritzen du adingabeaz arduratzen den zentroko zuzendariak (KZren 172.3 art.).

4.2.1.3. Adopzioa.

Oinarrizko printzipioak

KZren 176.1 artikulua zera adierazten du: *“Adopzioa epaileak emandako ebazpenaren bitartez eratzen da; ebazpen horrek kontuan hartu behar ditu beti adingabearen interesa eta adopzio-hartzaileak zein adopzio-hartzaileek guraso-ahala egikaritzeko duten egokitasuna”.*

Adopzioan hainbat interes kolokan daude. Alde batetik, adopzio-hartzailearen edo hartzaileen interes indibiduala dago, adopzioaren bidez, ezin edo nahi ez

duten seme-alaba izatea espero baitute. Beste alde batetik, adopziogaiaren interesa dago, bertan utzi dituzten edo babesgabezia-egoeran dauden adingabeek familia baten beharra baitute. Azkenik, gizarte-interesa dago, familiarik ez dutenei hura ematean oinarritzen dena.

Kode Zibilaren 1987ko eta 1996ko aldaketaz geroztik, adopzioaren arauketaren ardatz nagusia adingabearen interesaren babesa da; horregatik, kontuan hartzen du adopzio-hartzaileek guraso-ahala egikaritzeko duten egokitasuna.

Adoptatzen ahal dute

Zentzu hertsian, inork ere ez du adoptatzeko eskubiderik: inork ezin dio ez Administrazioari ez epaileari eskatu adoptatzeko eskubide hipotetikoa, eta, inork ezin du adoptatzeko gaitzat jo eta, are gutxiago, haur bat adopzioan emateko exijitu. Baina, nahiz eta *“adoptatzeko eskubiderik”* egon ez, badira adoptatzeko aukera duten pertsonak. Zehazki, adopzio-hartzaileak izaten ahal dira honakoak:

- a) Pertsona bakar bat. Hipotesi hau ezohikoena da praktikan, baina, adopzioa arautzeko eredutzat jotzen da.
- b) Bi ezkontideak batera. Hau da arau orokorra praktikan: KZren 175.4 artikulua arabera, *“Bi ezkontideek burututako adopzioaz landa, pertsona batek baino gehiagok ezin dute batera inor adoptatu”*.
- c) Bikote heterosexual bateko bi kideek batera, baldin eta bikote iraunkorra osatzen badute eta euren arteko afektibitate-harremanak senar-emazteen arteko harremanen antzekoak badira, hau da, egitezko bikote heterosexualen kideek (21/1987 Legearen 3. Xedapen Gehigarria).

Bi pertsonak ezin dute batera adoptatu, baldin eta ezkondua ez badaude edo egitezko bikote ez badira; izan ere, ez baita adingabearendako familia-eremu egokitza jotzen. Adingabeek, gurasoez gain, familia egonkorra behar dute. Horregatik, ezin dute batera adoptatu v.gr. elkarrekin bizi diren bi lehengusu-lehengusinek edo bi lagunek.

Aurrekoaz gain, KZren 175.1 artikulua beharrezkotzat jotzen du adopzio-hartzailea 25 urtekoa baino nagusiagoa izatea. Bi ezkontideek (edo egitezko bikotekideek) egindako adopzioetan aldiz, nahiko da eurentar bat adin nagusikoa izatea. Edozein kasutan ere, adopzio-hartzaileak adoptatuak baino 14 urte gehiago izan behar ditu gutxienez.

Adoptatzen ahal dira

Kasu honetan ez da adoptatua izateko eskubiderik ere ez, zentzu hertsian; izan ere, ez baitago adoptatzera behartutako inor. Baina, botere publikoek adopzioa sustatu eta errazteko eskubidea existitzen da.

Horregatik, Kode Zibilak ez dio *“adoptatuak izateko eskubidea dute”*, baizik eta, *“adoptatu daitezke ...”*. KZren 175.2 artikularen arabera, *“Adingabeko emantzipatugabeak bakarrik adoptatu daitezke”*. Dena den, jarraian zehazten du, salbuespenez, adin nagusikoak edo adingabeko emantzipatuak adoptatu daitezkeela, emantzipatu aurretik geldiarazpenik gabeko harrera- edo elkarbizitza-egoera izan denean adopzio-gaiak 14 urte bete baino lehenago.

Horren kontra, ezin dira adoptatu (KZren 175.3 art.):

Ondorengoak.

Alboko lerroan bigarren graduko ahaide direnak, odol bidez nahiz ezkontza bidez.

Tutoreak ezin du tutoretzapekoa adoptatu, tutoretza horren kontu-arrazoi orokor egiaztatua behin betiko onetsi arte.

Prozedura

Adopzio-hartzaileen egokitasun-kontrola bikoitza da: lehenik, administratiboa; bigarrenik, judiziala. Adoptatzeko prozedura (Prozedura Zibilari buruzko 1/1881 Legearen 1825. artikulutik 1832. artikulura birtarte jasotzen da nagusiki, eta indarrean dena borondatezko eskumen arlokoa izateagatik, eta hortaz, Prozedura Zibilari buruzko 1/2000 Legearen errespetatutakoa) honakoa da:

Lehenik, adopzio-eskabide bat eskatu behar zaio Komunitate Autonomo bakoitzeko adingabeen babes arloan eskumena duen herri-erakundeari (Nafarroan, Gizarte Ongizate Institutua) edo laguntzaile izendatutako erakunde pribatuei (adingabeen babesaz arduratzen diren irabazi-asmorik gabeko elkarte edo fundazioa).

Bigarrenik, erakundeak eskatzailearen egokitasuna adieraziko du modu abstraktuan, hau da, edozein adopziori dagokionez, nahiz eta mugak jartzen ahal dituen.

Hirugarrenik, herri-erakundeak, jadanik adingabe zehatz bat adoptatzeari begira, alde zuzeneko proposamen bat egiten du eskatzaileen artean, adopzio-hartzaileak

zein adopzio-hartzaileek guraso-ahala egikartzeko duten egokitasunari buruz. Eskabidea saihesten ahal da KZren 176.2 artikuluan adierazitako kasuetan, adopzio-hartzaileak zuzenean epailearengana jotzen duenean. Hona kasuok: 1) Adopziogaia umezurtz izateaz gian, adopzio-hartzailearen hirugarren garduko ahaide denean, odol bidez nahiz ezkontza bidez (hau da, adoptatzen ahal den adingabearen osaba); 2) Adopziogaia adopzio-hartzailearen ezkontidearen semea edo alaba denean; 3) Adopziogaia urtebetetik gora legezko harrerapean dagoenean, adopzio aurreko harrerari buruzko neurriaren ondorioz edo, bestela, epe berean, tutoretzapean dagoenean; 4) Adopziogaia adin nagusikoa edo adingabea emantzipatua denean.

Aldez aurreko urrats hauek guztiek ahalbidetzen dute adopzio-espeditentea hastea, zeina epailearen autoaren bidez amaituko den. Epaileak adopzioa eratuko du, proposamena aztertu eta beharrezko eginbideak egin eta gero, (Prozedura Zibilari buruzko 1/1881 Legearen 1826.1 art.), proposatu adopzio-hartzaileak egokiak direla uste badu; eta baztertuko du, egokiak ez direla uste badu (autoaren aurka gora jotzeko errekurtsoa baino ezin da jarri, Prozedura Zibilari buruzko 1/1881 Legearen 1826.3 art.). Kasu horretan, espeditentea erakunde administratiboari itzuliko zaio, proposamen berria egin dezan.

Adostasunak, baieztapenak eta entzunaldiak

KZren 177. artikularen 1. atalaren arabera, *“Epailearen aurrean, adopzioari adostasuna eman beharko diote adopzio-hartzaileak edo adopzio-hartzaileek eta adopziogaia, azken hori hamabi urtekoa baino nagusiagoa bada”*. Adostasun horiek lortzen ez badira, ez da baliozko adopziorik eratuko.

Beren aldetik, adopzioari baiezkkoa eman behar diote, KZren 177. artikularen 2. atalaren arabera: 1) Adopzio-hartzailearen ezkontideek, salbu eta ezkontidearen arteko legezko banantzea epai irmoaren bitartez gertatu denean, edo bi ezkontideen adostasunez egiteko banantzea gertatu eta hori sinesgarriro agerrarazi denean; 2) Emantzipaturik ez dagoen adopziogaia gurasoek. Baieztapen hau, nahi bada, adostasun arinagoa litzateke; hortaz, adostasunari uko egitea eraginen luke, epailearen aurrera agertuko ez balira edo epailearen zitaziorik jaso ezin izanzen balute, euren bizitokia edo non dauden ez jakiteagatik. Dena dela, adopzioa adostasunik gabe eratzten bada, KZren 177. artikularen 2. atalean adierazten diren pertsonen adopzioa azkentzea eskatzen ahalko dute KZren 180. artikuluan adierazitako baldintzetan.

Ama biologikoak ezinen du baiezkorik eman, umea erditu eta hurrengo 30 egunak igaro arte, horrela, haren erabakitzeko askatasuna babesteko (epe hori errespetatu behar da, bestela, adopzioa deuseztatzeko zigorra ezarriko da:

1999ko irailaren 21eko Auzitegi Gorenaren epaia). Beste alde batetik, guraso biologikoek (generikoa izanen dena, eta ez adopzio-hartzaile zehatzei lotutakoa) ez dute baiezkoa emateko beharrik izanen honako kasutan (177.2 art.):

- a) Gurasoei guraso-ahala kendu zaienean (170. art.);
- b) Gurasoak guraso-ahala kentzeko arrazoian daudenean (kasu honetan, epaileak entzun besterik ez die egin behar: KZren 177.3.1art.);
- c) Gurasoak baiezkoa emateko ezinduta daudenean (ezgaituta, absente, e.a.).

Azkenik, epaileak entzun besterik ez die egin behar KZren 177.3 artikuluan aurreikusitako pertsona edo erakunde jakinei: 1) Gurasoei, ez bazaie guraso-ahala kendu eta euren baiezkoa ez bada beharrezkoa adopzioa eratzeko. 2) Tutoreari, eta, hala denean, zaintzaileari edo zaintzaileei. 3) 12 urtekoa baino gazteagoa den adopziogaiari, horrek behar besteko zentzutasuna baldin badu. 4) Herri-erakundeari, adopzio-hartzailearen egokitasuna balioetsi ahal izateko, adopziogaiak urtebete baino gehiago daramanean horren harrerapean.

Epailearen erabakia

Adopzio-espedientea epailearen Auto moduko ebazpenaren bidez amaitzen da. Auto horren aurka gora jotzeko errekurtoa jartzen ahal da (Prozedura Zibilar buruzko 1/1881 Legearen 1826. art.). Autoak adopzio-lotura eratzeko eraginkortasuna du, hortaz, behin autoa eman eta gero, seme-alabatasun harremana hasi eta eragina izanen du. Beharrezkoa da epailearen ebazpen hau Erregistro Zibilean inskribatzea, adoptatutako seme-alabaren jaiotza inskribatzeaz gain (Erregistro Zibilaren Legearen 46. art.), eta, hortik aurrera, erregistroa hirugarrenendako itxita geratu eta mugatuta izanen dute adopzioaren publizitatean sartzeko (Erregistro Zibilaren Erregelamenduaren 21. art. eta hurrengoak).

Adopzioaren ondoreak

Adopzioa adoptuari (oro har, adingabea) aita edo/eta ama ematen oinarritzen da. Adingabeari behin betiko gurasoak ematea dakar; horregatik, adopzioa ezeztazina da (KZren 180.1 art.).

Beste alde batetik, ezinezkoa denez aldi berean bi seme-alabatasun izatea (hau da, legez bi aita edo/eta ama izatea: aurrekoak eta oraingoak), KZren 178.

artikuluak adierazten du adopzioak azkendu egiten dituela adoptatuaren eta horren aurreko familiaren arteko lotura juridikoak, honako kasuetan izan ezik:

- a) KZren 178.2 artikuluan aurreikusitako loturok euren horretan diraite:
 - 1) Adoptatua adopzio-hartzailearen ezkontidearen semea edo alaba denean, ezkontide hori hilda egon arren.
 - 2) Legearen bidez guraso batengandiko seme-alabatasuna bakarrik zehaztu denean, eta, aldi berean, adopzio-hartzailea eta guraso hori sexu berekoak ez direnean, baldin eta lotura juridikoen iraupena eskatu badu adopzio-hartzaileak, hamabi urtekoa baino nagusiagoa den adoptatuak edo loturon iraupena nahi duen aita nahiz amak.
- b) Loturon iraupena ulertzen da, ezkontzako eragozpenen inguruan xedatutakoari kalterik egin gabe (KZren 178.3 art.). v.gr. familia batek adoptatutako semea ezin izanen da haren ama biologikoa izandakoarekin ezkondu, harekiko lotura juridikorik ez izan arren.

Adopzioa ezeztatzina izateak ez du esan nahi guraso eta seme-alaben arteko lotura juridiko hori erasozina denik, izan ere: a) Deuseztatu ahal da 2 urteko epean: behar bezala eratu ez denean, guraso biologikoen adostasunik ez izategatik, hauek errurik izan gabe (hala ere, lotura ez da hautsiko, epaileak adingabearen interesei kalterik egiten ez diela uste badu: adingabearen interes gorena, oraingoan ere). b) Erlaxatu ahal da, Fiskaltzak, adoptatuak edo azken horren legezko ordezkariak hala eskaturik, epaileak erabakitzen duenean adopzio-hartzailea bazterturik geratzea babes-eginkizunetatik, eta adoptatuaren gain, berari dagozkion eskubideetatik (bereziki ekonomikoak: jarauntsizkoak, tipikoki), guraso-ahala kentzeko arrazoian egoteagatik. Honek bigarren adopzio bat ekartzen ahal du.

Nazioarteko adopzioa

Adopzioa nazioartekotzeak KZren 9.5 artikulua garrantzi berezia hartzea eragiten du. Horren arabera,

- Atzerritar baten adopzioa Espainiako epaileek edo kontsulek adopziogaiaren (hau da, adoptatu behar pertsona) herrialdean eratzten badute, Espainiako legean xedatutakoak arautuko du, betekizunei dagokienez (adopzio-hartzaile izateko gaitasuna; adopzio-hartzailearen egokitasunaren kontrol administratiboa, herri-erakundearen alde aurreko proposamenaren bidez; e.a.).

Baina, adopziogaiaren ohiko bizilekua Espainiatik kanpo badago edo Espainian bizi arren, Espainiako naziokotasuna eskuratu behar ez

badu, haren herrialdeko legean xedatutakoak arautuko du, adoptatua izateko gaitasun eta adopzioa eratzeko beharrezkoak diren adostasunei dagokienez (v.gr. adingabearen guraso edo tutoreena).

- Agintari atzerritar eskudunak eratutako adopzioa denean (v.gr. epaile edo agintari administratibo eskudunak, adopziogaiaren jatorrizko herrialdeko legeekin bat), adostasunak eta gaitasunak (guztiak: adoptatu eta adoptatua izatea) adopziogaiaren legeak arautuko du. Adopzio horrek Espainian eraginkortasuna izanen du, baldin eta horren ondoreak bat badatoz Espainiako legerian ezarritakoekin. Horrela, Espainian ez dira adopzio gisa aitortuko, adopzio-hartzailearen eta adopziogaiaren arteko loturarik ezartzen ez duten adopzioak.

Era berean, kontuan izan behar da, EKZren 9.5 artikulua azken paragrafoa, 18/1999 Legearen ondorioz gehitutakoa. Horren arabera, atzerriko legeak (adoptatuaren herrialdekoa) adopzio-hartzaileari adopzioa ezeztatzeko eskubidea aitortzen badio, adopzio hori ez da Espainian aitortuko eta, hortaz, haurra ezin izanen da Erregistro Zibilean adopzio-hartzaileen seme edo alaba gisa inskribatu; kasu horretan, dagokion erakunde administratiboaren tutoretzapean jarri beharko da. Dena den, adopzio-hartzaileak eskubide horri uko egiten badio Erregistro Zibileko arduradunaren aurrean edo agiri publikoaren bidez, adopzioa aitortuko da.

Nazioarteko adopzioarekin bukatzeko, kontuan izan behar dugu 1993ko Hagako Hitzarmena (Haurren Babesa eta Nazioarteko Adopzioaren arloko Kooperazioari buruzkoa), Espainiak 1995eko ekainaren 30ean berretsi zuena. Horren bidez, estatuarteko kooperazioa bilatzen da, haurren trafikoa nardagarri aurrea hartzeko eta jatorrizko herrialdean eginiko adopzioak herrialde hartzailean aitorgarriak eta eraginkorrak izatea errazteko.

Horretarako estatu-kontrol bikoitza eskatzen da, bai jatorrizko herrialdean bai herrialde hartzailean. Hagako Hitzarmenaren 4. artikulua arabera, jatorrizko herrialdeko agintari eskudunek ezarri behar dute haurra adoptagarria dela eta, bere jatorrizko herrialdean adoptatzea ezinezkoa denez, nazioarteko adopzioak erantzuten dio adingabearen interes gorenari.

Era berean, honakoa egiaztatu behar dute: 1) Adoptatzeko adostasuna eman behar duten pertsona, erakunde eta agintariek adostasun horren ondoreei buruzko behar bezalako aholkularitza eta informazioa jaso dituztela, bereziki, haurren eta haren jatorrizko familiaren arteko lotura juridikoen iraunkortasun edo hausturari dagokionez. 2) Pertsona horiek adostasuna libreki eman dutela, legeak aurreikusi bezala (amaren kasuan, erditzearen ostean izanen da), eta egiaztatgiri bidez. 3) Adostasunak doakoak eta ezeztazinak direla. 4) Haurrak,

bere adina eta heldutasun-maila kontuan hartuta, adopzioaren zein emandako adostasunaren ondoreei buruz behar bezalako aholkularitza eta informazioa jaso dituela; horretaz gainera, bere nahi eta iritziak aintzat hartu direla, eta adoptatzeko eman duen adostasuna, hala behar izan denean, dohainik, legeak aurreikusi bezala eta egiaztatgiri bidez lortu dela.

Bere aldetik, Hagako Hitzarmenaren 5. artikulua ezartzen du, herrialde hartzailearen agintari eskudunek egiaztatu behar dutela adopzio-hartzaileak adoptatzeko gai eta egokiak direla, eta, horrez gain, behar bezalako aholkularitza jaso dutela. Halaber egiaztatu beharko dute, haurri baimena eman zaiola herrialde horretan sartu eta bertan iraunkortasunez bizitzeko.

Agintari eskudunak herrialde kontratugile bakoitzak esleitutako agintari nagusiak izanen dira (6. art.), eta haien ardura izanen da nazioarteko adopzio-prozedura Hitzarmenaren xede eta arauetara egokitzen zaien kontrolatzea, adoptatzeko beharrezkoa den haurren eta adopzio-hartzailearen egoerari buruzko informazioa elkartrukatzearen bidez. Eginkizunok agintari nagusiek zuzenean edo, agintari publikoen zein herrialde horretan behar bezala kreditaturiko bestelako erakundeen lankidetzaren bidez egikaritu ahalko dituzte (9. art.). Azkeneko hauek ez dute irabazi-asmorik edukiko, osotasun morala eta nazioarteko adopzioaren arloan jarduteko heziketa edo esperientzia duten pertsona gaituek zuzendu eta administratuko dituzte, eta herrialde bakoitzeko agintari eskudunen kontrolpean egonen dira (11. art.).

4.2.2. Nafarroako Zuzenbide Zibila (Nafarroako Foru Berria)

4.2.2.1. Sarrera: ahalmenaren mailaketa Nafarroako Zuzenbidean

KZren 9.1 artikulua arabera, pertsona fisikoei dagokien lege pertsonalak *“arautuko ditu gaitasuna eta egoera zibila, familiaren eskubideak eta eginbeharrak, eta heriotzaren ondoriozko oinordetza”*. Lege pertsona naziokotasunak mugatzen du (KZren 9.1 art.) eta, espainiarren kasuan, auzotartasun zibilak (KZren 14.1 art. *“Auzotartasun zibilak eratortzen du zuzenbide zibil erkidearen edo zuzenbide bereziaren nahiz foru-zuzenbidearen menpe egotea”*).

Hortaz, Nafarroako auzotartasun zibila duen pertsona baten jarduteko gaitasuna eta, ondorioz, egintza juridikoak egin eta negozio juridikoak burutzeko gaitasuna, hala nola, v.gr. erosi, alokatu edo dirua maileguan hartzeko, Nafarroako Foru Berriari jarraitu beharko diogu. Horri buruz, 50. legeak honakoak bereizten ditu:

- Adin nagusitasunarekin, 18 urte betetakoan eskuratzen den gaitasun osoa duten pertsonak. Adin nagusikoak gaitasuna du (KZren 322. art.) bizitza zibileko egintza guztiak gauzatzeko, Kode Zibilak berak kasu bereziatarako ezartzen dituen salbuespenetan izan ezik (v.gr. bakarrik adoptatzea, horretarako, beharrezkoa da 25 urtekoa baino nagusiagoa izatea; adin nagusitasuna ez da aski).
- Adin nagusikoak ez izateagatik ondore juridikoetarako jarduteko gaitasun osoa ez duten pertsonak. Adingabeen kategoria da. Dena dela, kategoria hau ez da ez homogeneoa ez bateratua, honen barne hainbat azpikategoria bereizten ahal baitira. Azpikategoria bakoitzaren arabera, subjektu bakoitzak jarduteko gaitasun ezberdina dauka, subjektu horren heldutasunaren arabera. Azpikategoriok pubertaroa eta emantzipazioa dira.
- Adingabe puberrak dira (1989ko azaroaren 20ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren terminologiaren arabera) 14 urtetik 18ra bitarteko neska-mutilak. Hauek gaitasuna izanen dute Nafarroako Zuzenbide Zibilaren konpilazioan zehazturiko egintzak gauzatzeko (50. legearen 2. paragrafoa). Puberrek testamentua egiteko gaitasuna dute, besteak beste (Nafarroako Foru Berriaren 184.1 legea), salbu eta testamentu olografoa edo autografoa denean (KZren 688. art., adin nagusitasuna eskatzen duena horretarako, eta aplikagarria izanen dena NFBren 193. legeari jarraiki). Halaber gaitasuna dute seme-alaben aitorpena egiteko, nahiz eta beharrezkoa izanen den epailearen onespena, Fiskaltzak esan beharrezkoa entzunda (69. legearen hirugarren paragrafoa), haur baten gurasotzat legez zehaztuta geratzeak dakartzan ondore juridiko garrantzitsuak direla eta.
- Beren aldetik, eta 50. legeak hauen buruzko aipamen adierazirik egiten ez duen arren, inpuberrak dira 14 urte baino gazteagoak direnak eta, hortaz, beren kabuz jarduteko gaitasunik ez dutenez, beren legezko ordezkarien bidez (gurasoak edo tutoreak) jardun behar dutenak beti.
- Aldi berean, adingabe puber emantzipatuak eta emantzipatugabeak bereizten ahal ditugu. Emantzipazioa Kode Zibilean aurreikusi bezala (KZren 314. artikulutik 321.era bitarte), 16 urtekoa baino nagusiagoak direnek lortzen ahal dute. Salbuespen gisa, 14 edo 15 urterekin ezkontzen direnak ditugu, hauek emantzipazioa lortzen ahal baitute lehen auzialdiko epaileak eragozpena kenduta (KZren 48.2 artikulua: alderdiak hala eskatu, eta horretarako arrazoi zuzena izanez gero), nahiz eta 16 urte baino gutxiago izan. Hala ere, emantzipazio hau ez da derrigorrezkoa, ezta automatikoa ere: adingabe bat ez da emantzipatzen 16 urte betetzeagatik.

Gauzak horrela, pubertaroaren irizpidea irizpide objektiboa da, ezen egoera hau automatikoki eskuratzen baita 14 urte betetzean. Emantzipazioaren irizpidea, aldiz, ez da hain objektiboa: 14tik 16 urtera bitarteko adingabeek ezin dute emantzipazioa eskuratu (salbu eta ezkontzen badira), eta 16tik 18 urtera bitartekoek emantzipazioa eskuratzen ahal dute, baina, bakarrik hala eskatu eta legeak aurreikusitako kasuetatik bat betetzen denean.

Jarduteko gaitasunari dagokionez, Nafarroako Foru Berriak puber emantzipatugabeei buruz bakarrik dio, beren kabuz betebeharrak (ez jokamolde-betebeharrak) sortzen ez duten edozein erako eskuzabaltasun onar dezaketela (v.gr. dohaintzak eta jarauntsiak), eskuzabaltasunok ondasun horiek eskuratzeko mugak edo debekuak izan arren.

Bere aldetik, puber emantzipatugabeek, euren heldutasun eskasa kontuan izan gabe, eskuzabaltasunak onar baditzakete (dohaintzak eta jarauntsiak), erabat logikoa da puber emantzipatuek ere horretarako gaitasuna izatea. Are gehiago, emantzipazio-egoerak adingabe berezi hauei adin nagusikoei dagokien gaitasunaren antzekoa ematen die. Hau agerian geratzen da ikusten dugunean, emantzipatu nafarrek gaitasuna dutela ezkontzeko (KZren 46.1 art., *a sensu contrario*), ezkontzako itunak egiteko (78. legaren hirugarren paragrafoa), eta oinordetza itunak emateko (baina, bakarrik ezkontza-hitzarmenez egiten direnean: 73. legearen 1. paragrafoa); horretaz gainera, bikote egonkorra eratzeko gaitasuna dute, uztailaren 3ko Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko 6/2000 Foru Legean aurreikusitako ondoreekin, zeinaren 2.1 artikulua honakoa adierazten baitu “Hurrengo artikuluetan, bikote egonkortzat hartuko da bi pertsonaren arteko elkartzeko libre, publiko eta nabarmena, ezkontideenaren antzeko afektibitate-harremanaren pareko harreman batean, sexu-joera kontuan izan gabe, baldin eta adinez nagusi badira edo adingabeok emantzipatu, eta zuzeneko lerroan edo alboko lerroan, bigarren mailaraino, odol- edo adopzio-ahaidetasunik ez badute”.

Zentzu honetan, NFBren 66. legearen 3. paragrafoak zera dio: *“Adingabe emantzipatuak bere kabuz gauza ditzake orotariko egintza edo kontratuak, bai eta epaiketan agertu ere, baina ezin du dirua maileguan hartu, ezta ondasun higiezinak, merkataritza nahiz industriako establezimenduak, horien oinarrizko osagaiak eta aparteko baliadun objektuak besterendu edo kargatu ere; egintza horiek gauzatzeko, eta ondasun horiei buruzko epaiketan edo mota horietako ondasunen gaineko epaiketan agertzeko, gurasoetatik edozeinek laguntza beharko du edo, hala behar denean, Ahaide Nagusia nahiz kuradorearena”.*

Hau da, euren gaurko eta etorkizuneko ondarea arriskurik larrienean jartzen duten edo ondare-ondorio handiagoa daukaten negozio juridikoetarako (tipikoki, dirua maileguan hartzea edota finkaren edo beste ondasun higiezin baten

jabetza eskualdatzea) ez da aski emantzipatuaren jarduteko gaitasuna, zerbait gehiago behar da. Zehazki, eta adingabe horren eta bere ondarearen babesneurri gisa, emantzipatuak ez duen gaitasun-*plusa* behar da. Horrek berekin ekarriko du *laguntza* eskatzea gurasoetatik edozeini, kuradoreari (adingabeak kuradoretzapean daudenean) edo Ahaide Nagusiei. Azken hau Nafarroako Zuzenbidearen berezko figura da (NFBren 137. legetik 147. legera bitarte), eta, aitarengatiko lerrotik eta amarengatiko lerrotik laguntzeko ahaide bana aukeratzea barne hartzen du, eta instantzia erabakitzaile gisa jarduten du batez ere familia-ondarearekin loturiko familia-gatazketan.

Laguntza hori interpretatu daiteke emantzipatuak gauzatu nahi duen negozio juridikoaren egote, aholkatze eta esanbidezko gaitzespenik ez egote gisa. Hau da, ez da behar pertsona horien esanbidezko adostasun edo baiezkorik, aski da egintzan egotea eta horren esanbidezko aurkakotasunik ez egotea (egotekotan, epailearen irizpidearen menpe geratuko litzateke adingabearen onurarako hoberena zer den esatea).

NFBren 66. legeak ez ditu zehazki arautzen emantzipazioaren arrazoiak (horregatik KZera jo beharko dugu puberrak emantzipatuta noiz dauden eta noiz ez jakiteko); baina, bai arautzen du, ordea, emantzipazioaren edukia. Hau da, ez digu esaten emantzipatua nor den, baina bai zer egin dezakeen.

Salbuespena 66. legearen 2. ataleko 3. paragrafoan adierazten da; bertan jasotzen den emantzipazio-arrazoiak emantzipatu mota berezia osatzen du: beregain bizi diren emantzipatuak, KZren 319. artikulua ere aipatzen dituenak. Hauek gurasoen etxebizitzatik kanpo bizi diren adingabeak dira (betiere, 16 urte baino nagusiagoak), eta, bizi-askatasuna zein askatasun materiala dute, eta ekonomikoki buruaskiak dira.

Kategoria hau egitezko emantzipazio mota bat da, eta gainerako emantzipazioei (epaileak, legeak edo gurasoek emandakoa) aitortzen zaizkien ondore berberak aitortzen zaizkio. Ezberdintasun bakarra da emantzipazio hau gurasoek ezeztatzen ahal dutela, horretarako arrazoi zuzenik izaten bada.

Zer gertatzen da adingabe batek bere kabuz negozio juridiko bat egiten duenean, NFBk aurreikusitako legezko laguntzarik edo ordezkariarik gabe? Ez da garrantzi gutxiko galdera, izan ere, subjektuaren gaitasun-mailaren arabera, honen negozio juridikoak (dirua maileguan hartzea eta ondasun higiezin bat saltzea) baliozko eta erasoezinak, akastunak eta norbaitek deuseztatzeko modukoak, edo akastunak eta edozeinek deuseztatzeko moduak izanen dira.

Adingabe emantzipatuak legeak eskatutako laguntzarik gabe jarduten badu, negozio juridikoa deuseztagarria izanen litzateke. Ez deuseza errotik (kasu

horretan, deuseztasuna edozein pertsonak eskatzen ahal baitu edozein unetan, negozio deusez horrek inolako eraginik izan gabe), baina bai deusezgarria (halakoetan, deuseztagarritasuna pertsona zehatzek baino ezin izanen dute eskatu— zehazki, adingabe emantzipatuak eta legezko laguntza eskaintzen ahal dion pertsonak, 66. lege ohia, eta bakarrik negozio juridikoa egin eta 4 urteko epean— NFBren 34. legea).

Hori ondorioztatzen da 19. legearen lehenengo paragrafoaren irakurketatik *a sensu contrario*: “50. legean xedatutakoari kalterik egin gabe, deusezak dira adingabeko emantzipatugabeek eta zentzutasunik ez dutenek egindako borondate-aitorpenak ...”. Hau da, adingabeko emantzipatugabe batek burututako egintzak deusezak badira, emantzipatuek legeak eskatutako laguntzarik gabe burututako egintzak zigortu beharko dira, baina aurrekoak baino pixka bat gutxiago. Zehazki, ez erabateko deuseztasunarekin, baizik eta deuseztasun erlatiboarekin edo deuseztagarritasunarekin.

Ikus dezagun zer gertatzen den adingabea emantzipatugabea denean. Halakoetan bere adina dela-eta duen babesgabezia juridikoa, guraso-ahalak ordezkatu egiten du.

4.2.2.2. Guraso-ahala

Oinarria

Nafarroan guraso-ahala arautzeko, jatorrizko NFB Espainiako 1978ko Konstituzioaren aginduetara egokitu da, oraingoan ere. Honen arabera, v.gr. guraso-ahala aitari eta amari batera dagokie.

Egokitzapen honek, aldiz, ez du eragozten Nafarroako foru zuzenbidearen berezko hainbat ezaugarri mantentzea, teorikoki behintzat, hala nola, gurasoen artean itunak egiteko askatasuna, guraso-ahala egikaritzeko (batera, nork bere kabuz, eginkizunak banatuz, e.a.), edo Ahaide Nagusiengana jotzea gurasoek guraso-ahala egikaritzeko adostasunik lortzen ez dutenean.

Guraso-ahalaren helburu nagusia seme-alaba adingabea babestea da; horregatik, gurasoen jarduketa eta itun guztiak, hala nola, arau juridiko guztiak seme-alaben onurara (*favor filii*) zuzenduko dira. Beraz, pertsona bati beste subjektu batzuen— beren kabuz beren egintzak gobernatzeko beharrezko jarduteko gaitasunik ez dutenak— onura edo mesederako esleitzen zaizkion ahalmenak dira.

Azken batean, Legeak gurasoei seme-alaben onurarako esleitzen dien eginkizuna da. Horregatik, hain zuzen ere, gurasoek ez dute horri uko egiteko askatasunik.

Titulartasuna eta egikaritzea.

63. legeak adierazten duen bezala, guraso-ahalaren titulartasuna aitari eta amari dagokie.

- Baldin eta biak legez zehaztuta eta, jakina, bizirik badaude.
- Kontuan hartu gabe, aita eta ama ezkondata dauden edo ez.
- Salbu eta aitatasuna edo amatasuna epaiketa bidez gurasoaren borondatearen aurka zehaztu bada, edota guraso hori kondenatzen duen zigor-epaiaren bidez.

72. legearen 2. paragrafoan jasotzen den arau honen arabera, aitatasuna edo amatasuna gurasoaren borondatearen aurka zehaztu bada (epaiketan uko egin zion seme edo alaba hori berea zela aitortzeari eta harenganako aitatasuna edo amatasuna esleitzeari) edo zigor-epairen bidez (irrotzat jotzen dena), guraso hori kondenatzen duena seme-alabatasuna eragin zuten egintzengatik (v.gr. bortxaketa, zeinaren ondorioz emakume bat haurdu geratzen baita), gurasoaren (aita, oro har) eta seme-alabaren arteko harremana ezarriko da, baina aitak ez du guraso-ahala egikarituko.

Honek garrantzi handia izenen du, guraso horrek bere seme-alabarekiko eskubideak galduko baititu: 72. legearen 2. paragrafoak dioen bezala, ez du eskubiderik izanen haren oinordetzaren zein ondarearen gain. Era berean, seme edo alaba horri ez zaizkio guraso horren abizenak jarriko, beraren edo horren legezko ordezkariaren borondatez ez bada. Hala ere, mantenua emateko betebeharra izanen du (72. legearen 3. paragrafoa), hau da, bere seme-alabak jagoteko betebeharra izanen du, eta bere gain hartuko ditu seme-alaben mantenu, jantzi, heziketa, osasun-laguntza, eta abarretik eratorriko gastuak. Azken batean, betebeharrak, baina ez eskubideak.

Edukia

Guraso-ahalaren edukiari dagokionez, seme-alabak ordezkatzean oinarritzen da, haiei dagozkien egintzetan, euren kabuz ezin dituztenean halako egintzak burutu, eta kanpo geratzen dira 150. eta 153. legeetan jasotako egintzak (dohainik eskuratzea, inter vivos –dohaintzak– edo mortis causa –oinordetzaz–).

Era berean, kanpo geratzen dira, hirugarren pertsona batek administratu beharreko ondasunen gaineko egintzak, NFBren 65. legearen 1. atalaren arabera (eskuzabaltasunaren objektu direnak, eta emailak gurasoen

administrazioa bazterten duenean), hala nola, guraso eta seme-alaben arteko interes-gatazka eragin dezaketen egintzak, halakoetan, defendatzaile judizial bat izendatuko da adingabearen interesak babesteko (v.gr. 105. legearen 2. paragrafoa: aita edo ama bigarrenez ezkontzen denean, ezkontzako sozietate deseginaren likidazioa egin eta aurreko ezkontzako seme-alabei dagozkien ondasunak emateko).

Guraso-ahalaren edukia 63.1 artikuluan adierazten da, horren arabera guraso-ahalak *“bere barruan hartzen ditu ondoko eginbehar eta ahalmenak”*

1. “Seme-alabak jagotea, eurokin izatea (salbu eta guraso-ahala guraso bakar bati dagokionean; orduan, 72. legearen 4. paragrafoak beste gurasoari seme-alabekin harremanak izateko eskubidea aitortzen dio, epaileak onartu edo erabakitako baldintzetan), mantenua ematea, seme-alabok heztea, zentzuz eta neurritz zuzentzea, eta heziketa egokia ematea”.

Mantenua emateko betebeharra betetzea errazteko, Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko16/2003 Foru Legearen lehen Xedapen Gehigarriak (zeinaren prozedura maiatzaren 20ko 126/2003 Foru Dekretuan garatzen baita) ezartzen du, familiari laguntzeko Planaren barrenean, amatasunarengatik laguntza emanen zaiela:

- a) Hiru urtetik beheitiko seme-alabak dituzten emakumeei, lana euren kontura egin zein besterenera, Gizarte Segurantzako edo Mutualitateko araubidean alta emanda badaude, 1.200 euro urtean emanen zaizkie ume bakoitzeko. Laguntza hori Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak kudeatuko du eta langileek laneko eta familiako eginbeharrak batera eramateko eta jaiotza-tasa sustatzeko ezarritakoei jarraikiz egituratuko da. Laguntza 3 urtetan zehar emanen da, haurraren jaiotza egunetik edo adopzioaren ebazpen judizial edo administratiboaren egunetik kontatzen hasita.
- b) Lau seme-alaba edo gehiago dituzten familiei, haien errentak erregelamenduz ezarritako muga gainditzen ez badu, urtean 360 euro emanen zaizkie 18 urte baino gutxiagoko haur bakoitzeko, betiere laugarren seme-alabatik aurrera (laugarrena ere barne).

Bere aldetik, seme-alaben zaintza handiagoa lortzeko, Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioei beren opor, lizentzia eta baimenetarako aplikatu behar zaien araubidea arautzen duen

urriaren 30eko 348/2000 Foru Dekretuaren 7. artikulua araberan, emakume funtzionarioek, haurdun daudenean, eskubidea izanen dute amatasuneko lizentzia bat hartzeko hamasei aste jarraitukoa, eta erdialdi berean haur bat baino gehiago eginez gero beste bi aste bigarrenetik aurrerako ume bakoitzeko. Interesatuak erabakiko du lizentzia hori nola banatu. Sei aste betiere erditu ondoan hartu beharko ditu, eta aitak zilegi izanen du amaren ordezkari hartzea lizentzia, osorik edo lizentziatik geratzen den zatia, ama hiltzen bada (1. atala).

Aurrekoa gorabehera, eta erditu ondoan amaren atsedenerako nahitaez sei aste hartu beharra galarazi gabe, bai aitak eta bai amak lan egiten duten kasuetan zilegi izanen da aitak erditzearen ondoan hartzea atsedenerako aldiaren parte jakin eta jarraitu bat, dela amarekin batera nahiz ondotik, non eta hala eginez gero lanean berrastea amaren osasunarentzat arriskutsua ez den (2. atala).

Sei urte arteko umeak adoptatu edo familian hartzen direnean (aurreadopzio gisa nahiz bestela), baimenak hamasei aste jarraitu iraunen du eta, ume bat baino gehiagoren kasuetan, beste bi aste bigarrenetik aurrerako haur bakoitzeko. Aste horiek funtzionarioak berak erabakiko du noiztik kontatu, dela familian hartzeko administrazio edo epaile erabakia ematen denetik, dela adopzioa eratzen duen epaile erabakia ematen denetik. Baimenak hamasei aste iraunen du ere sei urtetik gorako haurrak adoptatu edo familian hartzen direnean, direlako haurrak ezgaituak edo minusbaliatuak badira edo haien inguru pertsonalagatik nahiz atzerritik etortzeagatik zailtasun berezia badute gizartean eta familia batean integratzeko, gizarte zerbitzu eskudunek inguruabar horiek behar adina frogaturik. Bai aitak eta bai amak lan egiten dutenean, baimena berek nahi duten bezala partituko da, aldi berean edo hurrenez hurren, beti ere zati jarraituetan. Nazioarteko adopzioa egiten denean, gurasoek aurretiaz haurraren jatorriko herrira joan behar dutenean, zilegi izanen da aurreko leerroaldean kasu bakoitzerako aurreikusitako den lizentzia adopzioa eratzen duen ebazpena baino lau aste lehenago hastea (3. atala).

Bi gurasoek aldi berean hartzen badituzte atsedenerako aldiok, ez da zilegi izanen aldi horien batuketak aurreko leerroaldeetan xedatzen diren hamasei asteak baino gehiago izatea, edo haur bat baino gehiagoren kasurako agindu dena baino (4. atala).

“2. Seme-alabei dagozkien egintzetan, eurak ordezkatzeko, euren kabuz ezin dituztenean legezaren aginduz halako egintzak gauzatu, salbu eta egintzok gurasoen administrazioetik kanpo dauden ondasunei buruzkoak direnean, 64. legeak xedatutakoari kalterik egin gabe.

3. Seme-alaben ondasunak administratu eta xedatzea, 65. legeak ezarritako baldintzetan, eta horien gaineko gozamina izatea, jasotako fruituak ondasunen

jabe diren seme-alaben eta familiaren interesaren arabera erabiliz, familia mantentzen lagundu behar baitute proportzio egokian.

Era berean, gurasoei dagokie ernalduta baina jaio gabe dauden seme-alaben interes eta igurikimenak defendatzea, bai eta ernaldu gabe daudenenak ere”.

Mantenua emateko betebeharra, beste alde batetik, seme-alabaren ondaretik at dago. Hau da, seme-alaben ondarea gurasoena baino handiagoa izan arren, gurasoek hauei mantenua emateko eta, hortaz, euren heziketa, mantenu, jantzi, eta abarretik eratorritako gastuak beregain hartzeko betebeharra izaten dihardute. Bestelako kontua da, logikoa denez, seme-alabak familia mantentzen laguntzeko betebeharra duela; NFBren arabera, laguntza hori gurasoek duten seme-alaben ondasunen gaineko lege-gozamenaren bidez eratzen da. Ondorioz, seme-alaba nafar baten gurasoek eskuratzen dituzte (gozamen ohia) seme-alabei dagozkien ondasunen fruituak.

Dena dela, fruituen eskuratze hori baldintza baten menpe edo, hobe esanda, xede-muga baten menpe dago. 63. legearen 3. atalak baieztatzen duenez, honako betebeharra baitute: *“jasotako fruituak ondasunen jabe diren seme-alaben eta familiaren interesen arabera erabiltzeko, familia mantentzen lagundu behar baitute proportzio egokian”*. Beraz, gozamenaren ondoriozko fruitu naturalak edo zibilak seme-alabaren heziketak, mantenuak, eta abarrek sortutako beharrak eta familiaren eguneroko beharrak asetzerantz zuzenduko dira.

Hori guztia, kontuan hartuta, administratzaile guztiak bezala, kontrolpean egonen direla eta kontu-arrazoia eman beharko dituztela. Beste alde batetik, gozamen hau bukatuko da guraso-ahala amaitzen denean, bai emantzipazioaren bai gurasoei kentzearen ondorioz.

Esan dugunez, guraso-ahalaren helburua da gurasoek seme-alaben interesak defendatzea. Argudio honekin bat, babesa hori *nasciturus* eta *concepturusei* ere dagokie, 63. legearen 2. paragrafoak gogoratzen digun bezala: *“gurasoei dagokie ernalduta baina jaio gabe dauden seme-alaben interes eta igurikimenak defendatzea, bai eta ernaldu gabe daudenenak ere”*.

Zeintzuk izan daitezke interes horiek? Nasciturusarentzako sortutako igurikimen ekonomikoak: adibide paradigmatico gisa, gurasoak dira, inter vivos (v.gr. dohaintzak) nahiz mortis causa (v.gr. jaraunsle-izendapenak, legatuak) egintzen bidez, nasciturusarentzat eginiko dohaineko xedapenak onartu behar dituztenak. Hala ere, oraindik ez da guraso-ahala existitzen; horregatik, oraindik ez dute ez ondasun-gozamenik ez ondasun horiek administratzeko ahalmenik izanen— *vid legis* 154: dohaintzan emandako ondasunen administrazioa dohaintza-emileari dagokio, salbu eta aurkako ituna dagoenean.

Horrez gain, KZren 29. artikuluekiko ohar bereizgarria den heinean, babesa ez dagokie ernalduta baina jaio gabe dauden seme-alabei bakarrik, baizik eta baita ernaldu gabe daudenei ere. Honek igurikimen juridikoaren maila gorena osatzen du, horren titular izan daitekeen subjekturik gabea.

Guraso-ahala azkentzea

66. legearen arabera, semearen, alabaren edo bi gurasoen heriotzaren ondorioz edo horien heriotza-adierazpenaren ondorioz geratzen da. Bi gurasoen heriotza behar da, guraso bat bakarrik hiltzen bada, guraso-ahala besteak egikarituko baitu. Jakina, bakarrik guraso bat ezagutzekotan (ama, tipikoki), orduan, haren heriotzaren ondorioz amaituko da.

Beste alde batetik, heriotza-adierazpenak, bere izaera iragankorra dela eta (ustezko heriotza, erabateko ziurtasunik gabe), guraso-ahala berreskuratzea ahalbidetzen du, baldin eta desagertu den seme-alaba edo gurasoa berragertzen bada.

Halaber, guraso-ahala emantzipazioaren ondorioz azkentzen da, edozein delarik haren arrazoia. Bakarrik egitezko emantzipazioa gertatzen denean mantenduko da guraso-ahala. Izan ere, ezeztagarria baita gurasoen adostasuna seme-alabaren bitzita askearekiko; ezeztatzea gurasoei dagokie eta seme-alabaren gaineko guraso-ahala berreskuratzea eraginen du.

Adopzioari dagokionez, honek ez du guraso-ahala azkentzen, titulartasuna aldatzea eragiten du: guraso biologikoei zegokien guraso-ahala, orain, guraso adopzio-hartzaileei dagokie. Baina, guraso-ahala ez da amaitzen, izan ere seme-alaba gurasoen ahalpean baitago oraindik ere.

Guraso-ahala kentzea.

Gurasoei beren ahala kentzen ahalko zaie, ahal horri datxezkion eginbeharrak ez-betetzeagatik (izaera pertsonalekoak direnean, babesgabezia-egoerara hurbilduko dira). Ahala kendu zaien gurasoei beren seme-alabak jagon eta horiei mantenua emateko betebeharra egokituko zaie.

Guraso-ahala kentzea sekula ez da itzulezina, izan ere, gurasoak hura berreskuratu baitezake, adingabearen interes gorenak hala eskatzen badu.

Guraso-ahala luzatzea.

Guraso-ahal luzatuaren bidez, judizialki ezgaitutako adingabea babestu nahi da (KZren 200. art.); horretarako hitzartzen da gurasoek seme-alaba haien ahalpean mantentzea, adin nagusitasuna lortu eta gero ere. Horrekin saihestu nahi da, 18 urte bete dituen ezgaituak adin nagusitasuna eskuratzearan (eta gurasoen ahalpetik aske geratzea) eta harendako tutore bat izendatzearen

arteko denbora tartean, pertsona hori babesik gabe geratzea. Helburu horretarako erabaki zen automatikoki luzatzea guraso-ahala – ministerio legis–.

4.2.2.3.- Adopzioa Nafarroako Zuzenbidean

Arau aplikagarriak

73. eta 74. legeek arautzen dute arlo hau, eta arauketa nahasi eta osagabea eskaintzen dute.

Adoptatzen ahal dute

Hasteko, “nortzuk adoptatzen ahal dute?” galdera planteatzen da, eta erantzun egiten da, halaber, “Edonork, gaitasuna izanez gero, adopzioa egin dezake, lege orokorrekin bat etorritz”. Honela, Zuzenbide erkideari egiten zaio erreferentzia, hau da, erreferentzia Kode Zibilari bakarrik egin ordez, 21/1987 Legeari ere egiten zaio, Kode Zibila aldarazi zuena adopzioaren arloan. Honen hirugarren Xedapen Gehigarriak berezko biritza juridikoa du; gaitasuna ematen die bikote heterosexual bateko kideei, euren arteko afektibitate-harremana senar-emazteen arteko harremanen antzekoa bada, adingabe bat batera adoptatzeko.

Beraz, adoptatzen ahal dute lege orokorren arabera horretarako gaitasuna dutenek; ondorioz, adoptatzen ahal dute norbanakoez, hala nola, bi ezkontideek zein egitezko bikotekideek batera. Beharrezkoa da, halaber, adopzio-hartzailea 25 urtekoa baino nagusiagoa izatea eta adoptatuak baino 14 urte gehiago izatea gutxienez.

Bestelako kontua da Adingabeen gaineko adopzioari, harrerari eta laguntzari buruzko martxoaren 25eko 90/1986 Foru Dekretuak 12.c) artikuluan ezartzen duena: adopzio-hartzaileek “emakumeen kasuan 40 urte, eta gizonezkoen kasuan 45 urte izan beharko dituzte gehienez ere (adin bereizketa hau eztabaidagarria da baita konstituzionalki ere), salbu eta adingabearengan eragiten duten inguruabar bereziek salbuespenez adopzio-hartzaileek adin hori baino gehiago izatea ahalbidetzen badute”. Hau da, Nafarroako araudiak (beste hainbat Komunitate Autonomok egiten duten bezala) arauketa zibila osatzen du, adoptatzeko gehienezko adina ezartzearen bidez, adingabearen interesak eta salbuespenak (adingabearen interes horiei jarraiki) kontuan hartuta, eta bazter utzitako adingabeak adoptatzen dituztenek bete beharreko beste betekizun hauek finkatzearen bidez, betiere kalterik egin gabe adopzioari buruzko lege orokorrek ezarritakoari:

“a) Espainiako naziokotasuna izatea.

b) *Bizitokia Nafarroan izatea, salbu eta adingabearengan eragiten duten inguruabar bereziek, Nafarroatik kanpo bizitzea gomendatzen badute.*

c) *Adopzio eta familia-harrerako batzorde teknikoak igorritako aldeko txosten psikologikoa zein sozio-ekonomikoa izatea.*

d) *Adopzio-eskabide egokia aurkeztea Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorrean”.*

Beste alde batetik, lege orokorrek adoptatu ahal dutenei buruz diotena, Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko 6/2000 Foru Legearen 8. artikulua osatzen du. Honen arabera, *“Bikote egonkorra osatzen duten kideek elkarrekin adoptatu ahalko dute, eta ezkontutako bikoteen eskubide eta betebeharrak berak izan behar dituzte”*. Honen bidez, sexu bereko pertsonen elkarrekin adoptatzeko atea zabaltzen zaie; aukera hau ez da ez Kode Zibilean ez 21/1987 Legearen begiesten, eta horretarako aukera bakarrik egonen litzateke bi adopzio-hartzaileek Nafarroako auzotartasun zibila balute.

6/2000 Foru Legearen manu honen kontra (eta legearen kontra oro har) Auzitegi Konstituzionalaren aurrean konstituzio kontrako 5297/2000 errekurtsioa aurkeztu zen. Errekurtso hori ebazten duen epaia eman, eta manua konstituzionalizat edo aitortzen ez den bitartean, manua indarra du (ez baitira bere ondoreak bertan behera utzi; izan ere, ezin baitaio aplikatu Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoaren 30. artikulua. Honek aurreikusten du ondoreak bertan behera utzi behar direla Gobernuak lege autonomiko baten konstituzionaltasuna aurkaratzen duenean, baina ez, 50 diputatuk baino gehiagok aurkeztutako errekurtsioa bada, kasu honetan bezala). Hori dela eta, manua aplikatu da 2004ko urtarrilaren 22ko Iruñeko lehen auzialdiko 3. epaitegiaren autoaren bidez. Bertan Foru Legearen 8. artikulua aplikatu zaio emakume batek beste baten seme-alaba biologikoak adoptatu dituen kasuari. Hau da, Foru Legearen 8. artikulua ahalbidetzen duen baterako adopzioa ez den kasu batean, eta, zeinean auto horren kontrako errekurtsorik ez jartzeak auto hau irrimoz bilakatu duen.

Adoptatzen ahal dira

Gai hau 74. legearen arabide osagarriak arautzen du, hortaz, Kode Zibilak (175.3 art.) xedatutakoa kontuan hartuko dugu. Honi buruzko foru-aurreikuspen bakarra 73. legeak egiten du; bertan adierazten da, adingabeko puberrek beren adostasuna eman beharko dutela adoptatuak izateko.

Prozedura

Adopzioa Kode Zibilari eta lege bereziei lotu egon behar zaienez beti, Nafarroako adopzioa Kode Zibilean araututakoaren ildotik joanen da.

Aipagarria da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Zerbitzuak adopzioen bideratzean betetzen duen papera, izan ere, Nafarroan, bertan behera utzitako adopziogai adingabeak babesteaz arduratzen baita (martxoaren 25eko 90/1986 Foru Dekretuaren 7. art.); epaile eskudunari eskatzen baitio uzte-egoeraren adierazpena egiteko, adingabearengan ikusten duenean indarreko legerian zehaztutako bertan behera uztearen inguruabarren bat (90/1986 Foru Dekretuaren 8. art.); adoptatuaren guraso edo tutoreek zein adopzio-hartzaileek hala eskaturik, beharrezko laguntza teknikoa ematen baitie esparru juridiko, sozial, psikologiko eta sanitarioan (90/1986 Foru Dekretuaren 9. art.); eta, ikuskatzen baititu (kasu honetan, Gizarte Ongizate eta Osasun Departamentua) bertan behera utzitako adingabeak hartu edo haiei laguntzeaz, bai etengabeki bai iragankorki, arduratzen diren zentroak (zentro horiek hartzen dituzten adingabeen sarreraren eta irteeren erregistro-liburua izan beharko lukete, erregelamenduz ezarritakoa idatziz jasotzeko: 90/1986 Foru Dekretuaren 11. art.).

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urtarrilaren 26ko 19/2004 Foru Dekretuaren arabera, goian zehaztu ditugun eginkizunak Familiaren Zuzendaritza Nagusiari dagozkio (16. h eta 16. i art.), zehazki, Adingabeak Babesteko Atalari (22. k/ artikulua Atal honi esleitzen baitio, bere eskumeneko arloetan espedienteak baloratu, kudeatu eta tramitatzea, gehienbat honako kasuetan: egoera sozial kaxkarra duten adingabeak, haurrak familian eta egoizetan hartzea, eta zentzatzeko etxeetako umeak).

90/1986 Foru Dekretuaren 13. artikulua arabera, Osasun eta Gizarte Ongizate kontseilaria da umea adopzioan ematen duena (“familia-harrerako epea igaro eta gero– hiru hilabetekoa–, eta batzorde teknikoak eginiko aldeko txostenak ikusirik, Osasun eta Gizarte Ongizate kontseilariak, ebazpen egokiaren bidez, umea behin betiko emanen du gerora adoptatua izateko”). Hala eta guztiz ere, adopzioa arauketa orokorraren eta erregelamenduzko arau honen menpe eta lege-aurreikuspenen aurka jartzearen ondorioz, adopzioa epailearen auto bidez baino ezin izanen da ezarri, eta Administrazioaren esku-hartzea adopzio-proposamena egitera mugatuko da, epaileak kontuan hartuko duena edo ez.

Gaur egungo adopzio gehienak nazioarteko adopzioak direnez, azpimarratzekoa da nazioarteko adopzioaren gaitan lankide diren entitateek betetzen duten papera adopzio horien bideratzean. Entitate hauek, Administrazioaren kontrol-neurri gisa, kreditaturik egon beharko dute. Kreditazio

hori arautzen du uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuak, zeinak aldarazten baitu ekainaren 24ko 256/1996 Foru Dekretua, arauketa nazioarteko adopzioaren errealitate berrira egokitu, eta nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateen eraginkortasuna eta funtzionamendua hobetzeko.

Adopzioaren ondoreak

73. legearen 2. paragrafoaren arabera, "Adopzioaren ondoreak hori formalizatzeko eskrituran itundutakoak eta legeetan ezarritakoak izanen dira". Berez, azken bosturtekoetako familia-zuzenbidearen publikazioa, bereziki arlo honetan, 1996ko Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren ostean, adopzioa adingabearen interesen arabera izanen da edozeren gainetik. Interes publiko batek (haurren babesari) ezartzen du alderdiek (adopzio-hartzaileak eta adoptatua) euren borondate-autonomia egikaritzearen bidez itundutakoa, adingabeen gaineko babesari buruzko araudiaren (aginduzkoa) menpe egonen dela. Horregatik hain zuzen ere, adopzioak administrazio-kontrolaren bideak jarraitzen ditu.

Beraz, ezkontideek eta haurrak ez dute adopzioa eskritura publikoan hitzartzen, baizik eta agintaritza judizialak (hautaketazko administrazio-prozedura baten ostean) auto bat ematen du; horren bidez, haurra gurasoei adopzioan ematen zaio, eta gurasoen eta seme-alaben arteko harremana ezartzen da, legearekin bat. Hortaz, adopzioaren ondoreak ez dira inolako eskritura publikotan hitzartzen.

Elkarrekiko oinordetza-igurikimenak, aldiz, hitzartzen ahal dira (Nafarroan onartzen diren oinordetza-itunen bidez), eta bakarrik itunik ez dagoenean ezarriko da Nafarroako Foru Berria jarauntsi arloan.

Beste alde batetik, seme-alabak adopzio osoaren bidez adoptatu badira, euren eskubideak eta aurreko ezkontzan izandako seme-alaben eskubideak berberak izanen dira adopzio-hartzailea berriro ezkonduz gero. 73. legearen azken paragrafo hau kritikagarria da, berdintasunerako eskubidetik (1978ko EKren 14. art.) eratorritako eskakizunei zorrozki jarraituz gero, adoptatutako eta odoleko seme-alabak legearen arabera berdinak izanen dira kasu guztietan. Hau da, ez bakarrik adopzio-hartzailea berriro ezkonduz gero, baizik eta beti.

73. legearekin amaitzeko, "umeordetza" izeneko bigarren atala dugu; honen arabera, "*babes- edo ongintza-establezimenduek forma egokian pertsona batzuk beste batzuen eskuetan jartzen badituzte, eta lehen horiek umeordetzan hartu badira, orduan, eurak eta adopzio soil edo erdi osoaren bidez hartutakoak parekoak dira, baldin eta umeordetza-hartzailearen eta umeordearen arteko harremanek hamar urteko epean iraun badute eta, hori egitean, umeordetza-hartzaileak ez badu izan naturaren arabera edo adopzio osoaren bidezko*

seme edo alabarik". Nafarroako figura tradizionala da, etxearen berezko familia-ereduari loturikoa, baina indar praktiko eskasekoa, adopzio soila bezala; hori baitu erreferentzia-eredutzat, umeordeei eskubideak aitortzeko.

Parekotasuna adopzio soil edo erdi osoarekin, 10 urteko elkarbizitzara eta umeordetza-hartzaileak ondorengorik ez izatera baldintzatutakoa, eta gaur egun jadanik gainditutako Kode Zibilaren arautzea eskatzen duena. Arauketa hori Foru Berria onetsi zenean indarrean egon balitz (hau da, adopzio soilaren kode-arautzea 1973an), umeordeak eskubidea izanen luke bere abizenak adopzio-hartzailearen abizenengatik ordezkatzeko, baldin eta adopzio-eskrituran horrela itundu balitz, eta odoleko seme-alaben eskubide berak izanen lituzke jarauntsia kontuetan. Baina, arrazoizkoa denez Kode Zibilaren arauketak 73. legearen egungo testua idatzi zenean indarrean zegoena behar du (hau da, 1987ko Kode Zibilarena); orduan, umeordeak eskubidea izanen luke bere abizenak adopzio-hartzailearen abizenengatik ordezkatzeko, baldin eta adopzio-eskrituran horrela itundu balitz, eta testamenturik gabeko jarauntsietan oinordeko izateko eskubidea izanen luke alargunaren ondoren baina alboko senideak baino lehenago.

Edozelan ere, nahiko babes eskasa.

Berez, umeordetzak barne hartzen dituen babes-eginkizunak harreraren irudiak bereganatu ditu gaur egun; hau Kode Zibilean (*vid supra*) arautzen da, batik bat, baina baita 90/1986 Foru Dekretuan ere. Honen 14. artikulua arabera, Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legearen 3.a artikulua 5. atalarekin bat, *"Foru Komunitateko Administrazioak, berezko zein itundutako zerbitzuen bidez, adingabearen babes-eginkizuna egikarituko du, eta adingabea haren berezko ingurunean mantenduko du; horretarako, prebentzioan eta errehabilitazio-tratamenduetan, ordezko familien zerbitzuak erabiliko ditu, bitarteko honen bidez bere balizko joan-etorria eragiten duten arazoak konpondu ezin direla egiaztatzen ez den arte"*.

Horretarako, 90/1986 Foru Dekretuak, bere eskumena erabiliz, adingabeen babes eta tutoretzaz arduratzen diren instituzio eta erakunde publikoen arloan–Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege organikoaren 44.23 artikuluan aurreikusitakoa–, harrerari buruzko berezko araudia garatzen du. Horren arabera, ordezko familia batek bertan behera utzi ez den adingabe bat hartzen badu, ez da beharrezkoa izanen guraso edo legezko tutoreen adostasunik, salbu eta guraso-ahala legearekin bat kendu bazaie, edo zaintza-eskubidea etenda badute (15. art.). Era berean, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Zerbitzuaren esku geratzen da pertsonen eta harrera-familien gaitze-, aukeraketa-, mantenu- eta kontrol-eginkizunak

egikaritzea, hala nola, hauei zuzendutako diru-laguntzen kudeatzea (16. art.); eta, berarenak edo inorenak diren haurrendako eta gazteendako etxe eta egoitzetan hartuko dira, azkeneko eta aldi baterako baliabide gisa, baldin eta bestelako jarduketak ezinezkoak badira, edota nahikoak edo egokiak ez badira eta, betiere inguruabar horiek aldatzeko ekintzek emaitza positiborik eskaintzen ez duten bitartean (18.1 art.).

Harrerapeko adingabeen babesa Familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legeak osatu du gerora. Lege honen 3.2 artikulua seme-alabatza jotzen ditu, Foru Lege honen ondoretarako, bai legez aitortutakoak bai familia-harrera judizialean zein administratiboan dauden adingabeak; familia ugaritasunak harrerapeko adingabearengan dituen onurekin: legezko hezkuntza-, gizarte-, osasun- eta etxebizitza-neurrietatik eratorritakoak (7. artikulutik 12.era).

5. NAFARROAKO ARARTEKOAREN JARDUKETAK, HAUREN ESKUBIDEAK BABESTEAREN ALDE.

5.1. Nafarroako Arartekoaren ebazpena, adingabeen sexu-abusu edo tratu txarren gaineko laguntza, prozedura eta jarraipenari buruz (2003ko urtarrila)

5.1.1. Sarrera

Adingabeen gaineko tratu txarra, babesgabezia adierazpen maximo gisa, lehen mailako gizarte- eta osasun-arazoa da. Honen benetako garrantzia ezezaguna da gure ingurunean; izan ere, ez baititugu ezagutzen tratu txar guztien eta mota bakoitzaren epidemiologia, aurrea hartzeko alde aurreko faktoreak, klinika, antzemateko erak, diagnostikoa, ondorioak epe labur, ertain eta luzean, eta hilkortasuna.

Adingabeen gaineko tratu txarreko gizartearen sentimendu bihozberagoak, komunikabideen parte-hartze aktiboak eta kasu hauen gorakadak eragin dute, gizarte-errealitate honekiko etengabeko kontzientziazioa eta abusu hauen aurrean ahulenak diren subjektu juridikoak, hots, adingabeak, babesteko beharra.

Zabarkeria, tratu txar emozionala eta tratu txar fisikoa dira gehien gertatzen diren abusu motak. Sexu-abusuei dagokienez, biztanle helduei eginiko inkestek (Félix López, 1994) erakusten digute helduen % 18,9ak sexu-abusuak pairatu zituela haurtzaroan, ginonezkoen % 15ak eta emakumezkoen % 22ak.

Berezitasun bat da ez dela tratu txar mota bakarra egiten, baizik eta ohikoa dela hainbat tratu txar mota konbinatzea. Beste berezitasun bat da tratu txarrak behin eta berriz egiten direla.

Aurrea hartzeko eta garaiz antzemateko neurriak sustatzea, jarduketa nagusiak dira gizarte-arrisku edo haurren tratu txarren kasuan. Tratu txarrak ez gertatzeko funtsezkoa da profesional hauei egoera hauek lehen alarma-seinaleekin batera antzemateko beharrezko informazio eta prestakuntza ematea, hala nola, egoera horiek orientatu edo lantzeko erak ezagutaraztea.

Benetako datuak izan arte, haurrendako laguntza eta sustapen politikak, hala nola, haurren tratu txarrari aurrea hartzeari buruzkoak, desegokiak izaten ahal dira; izan ere, ez baitakigu kasuen kopurua eta horien garrantzia esleitutako baliabideen araberakoak diren, edo baliabideok beste gizarte-programetara eraman beharko ziratekeen, edo hainbat esparrutan antzemandako kasuak errealitateari edo soilik errealitatearen zati txiki bati dagozkion.

Arazo honen konplexutasunak jarduketa-esparru batetik baino gehiagotik heldu beharreko konponbide konplexuak eskatzen ditu aldi berean. Horregatik, beharrezkoa da haurrei eta hauen familiei laguntza eskaintzen dieten erakunde eta profesional guztien esku-hartzea.

Zenbaitetan, arlo honi lotutako erakunde, zerbitzu espezializatu eta profesionalek egoki jo dute jarduteko oinarrizko protokoloak eratzea, adingabeen sexu-abusuen eta bestelako tratu txarren kasuan.

Ekimen horien guztien helburua erakunde guztien ahalegin pertsonalak eta materialak koordinatzea izan da, adingabeak eta euren eskubideak babestu, hala nola, euren erabateko osotasuna eta duintasuna defendatzeko: adingabea —18 urte baino gazteagoa den haur edo nerabea— pertsona ahula da, eta beharrezkoa da haren ingurune pertsonal, familiar eta sozialean sortzen ahal den edozein arrisku-egoeraren aurrean babestea, bermatzeko bere garapen osoa maila guztietan. Horretarako, kontuan hartu behar da tratu txarrak indarkeriazko ekintza isolatuak izateaz gain, adingabearen eskubideak murrizten dituzten ekintza eta ez-egite zabarren multzoa dela.

Hortaz, funtsezko helburuak dira adingabea babestea, tratu txar ezberdinak—fisikoa, psikikoa, sexuala, arreta eza ...—, eragiten ahal dizkion edozein arrisku-egoeraren aurrean, hala nola, erakunde guztien koordinazioa hobetu eta adingabearekin burutzen diren jarduketak behar-beharrezkoak baino ez izatea erraztea, prozesu-, laguntza- eta babes-bermeei katerik egin gabe, horrela, bere egoera emozional zaila eta biktimizazioa larriagotzen ahal duten eginbide, adierazpen eta azterketak behin eta berriro egitea saihesteko.

Adingabeen tratu txarra famili testuinguruarekin oro har lotzen den arren, haurra bizitza-eremu edo -inguru ezberdinetan garatzen da. Egia da familiaren barruan tratu txar gehiago eta denbora luzeagoz gertatzen direla, eta kaltea bortitzagoa dela kasu hauetan. Dena dela, honek ez du justifikatu behar eskoletan, ospitaleetan, epaitegietan edo harrera-zentroetan geratzen diren abusuen hazte edo arretarik eza. Erantzukizuna kasu hauetan ezberdina da bai kualitatiboki bai kuantitatiboki. Estatuak, Administrazio publikoak edo edozein erakundek bere gain hartzen duenean haur baten erantzukizuna aldi baterako zein betirako, inplizituki esan nahi du haur horretaz bere familia baino hobe arduratzeko gai

dela. Horregatik, erakundeek ezin dute “ahalbidetu” abusua beren baitan, eta egunero lan egin beharko dute hori saihesteko. Lan honetan eraginkortasuna lortzea erakundeak ematen duen laguntzaren kalitatearen adierazlerik boteretsuenetakotzat jotzen ahalko genuke.

Zentzu honetan, beharrezkoa da eskubide honen babesak jarduketak koordinatzea, biktimaren behar bezalako jarraipena egin eta erasoaren ondorioz sortutako inpaktua arintzeko, eta, horretaz gainera, aldez aurretik arriskuei aurrea hartu eta horiek garaiz antzematea.

5.1.2. Haurren tratu txarren definizioa eta tipologia

Adingabe batek tratu txarrak jasaten dituela esaten da, egitezko zein ez-egitezko indarkeria fisiko, psikiko edo/eta sexuala jasaten duenean, bai haren garapenez arduratzen diren pertsonen edo erakundeengandik bai beste edozeinengandik.

Tratu txar mota ezberdinak daude:

- *Tratu txar fisikoa – Uzte emozionala*
- *Zabarkeria eta bertan behera uztearen ondoriozko tratu txarra*
- *Mendekotasun kimikofarmazeutikoa*
- *Tratu txar instituzionala*
- *Jaio aurreko tratu txarra – Lan-esplotazioa*
- *Tratu txar psikologikoa edo emozionala – Sexu-esplotazioa*
- *Sexu-abusua*

Tratu txar fisikoa: gurasoek zein adingabeaz arduratzen diren pertsonen adingabeen kontra nahita burututako egintzak, kalte fisikoak edo gaixotasunak eraginez.

Zabarkeria eta bertan behera uztearen ondoriozko tratu txarra: adingabearekin bizi direnek honen oinarritzko beharrak (elikadura, higiena, laguntza medikoa, hezkuntza, janzkera, zaintza, segurtasuna, e.a. ...) asetzen ez dituztenean, denboraldi batez edo iraunkortasunez.

Jaio aurreko tratu txarra: haurdun dagoen emakumeak ez dituenetan betetzen bere egoerak eskatzen dituenak, fetuari kalteak sortzeko arriskua izanda.

Tratu txar psikologiko edo emozionala: adingabeaz arduratzen diren pertsona helduek, egintza edo debekuen bidez, adingabeei euren autoestimua eragiten dituzketenean eta euren hazkuntza- eta sozializazio-prozesua mugatzen dutenean (gutxiespen etengabea, hitzezko bazterkeria, irainak, larderia eta diskriminazioa).

Sexu-abusua: haurra edo nerabea, engainu, larderia, indarkeria... erabilita, helduen sexu-nahiak asetzeko erabiltzen denean, bai sexu-plazera lortzea helburu duten jardueretan parte hartzearen bidez bai horiek ikustearren bidez; adingabea, haren garapena kontuan hartuta, ez dago jarduera hauetarako prest eta, hortaz, ez du adostasuna emateko gaitasunik (intzestua, bortxaketa, zirriak egitea, hitzezko sedukzioa, adingabeen aurrean masturbatzea, pornografia, sexu-esplotazioa...).

Uzte emozionala: adingabeak haren eboluzio-aldi bakoitzean behar dituen afektua, estimulazioa, laguntza eta babesa jasotzen ez dituenetan, haren behar bezalako garapena oztopatuz. Ez dagoenean gurasoen edo adingabeaz arduratzen diren pertsonen inolako erantzunik, adingabearen adierazpen emozionalekiko, edo haren hurbiltze- edo elkarreragin-ahalekin.

Mendekotasun kimikofarmazeutikoa: edozein drogaren menpe dagoen adingabea inolako behar medikorik gabe. Mendekotasun honek autonomia, erresistentzia edo kontrola garatzeko gaitasuna galarazten dio, eta Münchhausen sindromearen ondorioz sortzen ahal da. Sindrome hau, guraso edo zaintzaileen arazo psikologikoen eraginez, existitzen ez diren sintomak edo helduak berak nahita sortutakoak argudiatzen ditu, eta adingabearen gaixotasunak simulatu, etengabe azterketa medikoak eginarazi edo ospitalean sarrarazten dute.

Tratu txar instituzionala: botere publikoetatik eratorritako edozein legeri, prozedura, egite edo ez-egiteren ondoriozkoa, edota adingabearen munduarekin harreman zuzena eta zeharkakoa duen profesionalaren banako jarduketatik eratorritakoa, eta adingabearen garapen hobea eragozten duten egoerak sortzen ahal dituena.

Lan-esplotazioa: lan egiteko adinik ez duen adingabe bat erabiltzen denean irabaziak sortzen dituzten lanak egiteko (indar fisikoa, eskean aritzeko erabilera pasibo edo aktiboa...).

Sexu-esplotazioa: haurra behartzen denean prostituzio edo/eta pornografia jarduerak egitera.

5.1.3. Helburuak

EBAZPEN honen xedea abusu eta tratu txarren gaineko prebentzio, jarduketa eta jarraipenaren bidez, biktimarendako laguntza eraginkorragoa, bizkorragoa eta positiboagoa egitea da. Horretarako, oinarritzat hartuko dira inplikaturako profesional eta erakundeek komunean jarritako esperientziak, lankidetzeta eta lana, hala nola, zentzu horretan Foru Administrazioak Nafarroako gainerako Administrazio Publikoekin bat– adingabearen babesarekin loturiko gaietan garrantzia edo protagonismoa dutenak–, ahalik eta bizkorren hasiko duen protokoloa, zeinak beste Komunitate Autonomoetan eginikoen antzeko ezaugarriak baititu.

5.1.4. Adingabeen gaineko tratu txarra

Delituzko egintzen ondoriozko biktimen gaineko tratu txarra, are eta larriagoa da adingabea bada tratu txarra jasaten duena, izan ere, honen ongizate fisikoan eta oreka psikologikoan negatiboki eragiten ahal baitu eta, ondorioz, bere hazkuntza eta nortasunaren garapen harmoniatsua arrisku larrian jartzen ahal du, hainbat aspektutan: fisiko, intelektual, emotibo, sexual eta sozialean.

Adingabeen gaineko tratu txarrak egiten direnean, Espainiako Konstituzioaren 15. artikulua babespeko ondasun juridikoak kaltetzen dira: bizitzeko eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea. Halaber kaltetzen dira 39. artikuluan aurreikusitakoak, zeinak bermatzen baitu, konstituzionalki, familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa eta, bereziki, seme-alaben babes osoa euren nortasuna familia baten kide gisa garatzeko. Ondore hauetarako, familia kontzeptua zentzu zabalean ulertu behar da, barne hartuz, adingabeari dagokion edozein bizikidetasun-unitate.

Arlo honetan garrantzi berezia du tratu txarraren harreman-eremuak, izan ere, delituzko egintzaren larritasuna adingabearen eta erasotzailearen arteko harremanaren, hala nola, ekintzaren inguruabar objektiboen arabera izan baita.

Horrela, kaltea handiagoa da:

- Tratu txarra familiaren baitan gertatzen bada.
- Erasotzaileak badu guraso-ahala, eta adingabearen gaineko babes eta zaintza betebeharra.
- Tratu txarra ohikotasunez egiten bada.

- Sexu-erasoak badira.

Inguruabar hauek adingabearengan baldintza kaltegarriagoak eragiten dituzte, delitua berak eragiten dituenak baino, honen nortasunaren garapen egokiari eragiten baitiote.

Delituzko egintza hainbat esparrutan gertatzen ahal da, besteak beste, honakoetan:

- **Familia-esparruan:** kategoria honetan familia nuklearra (bizikideak) eta familia zabala, ahaidetasun loturak dituzten pertsoez osaturikoa (izeba-osabak, lehengusu-lehengusinak, aitona-amonak...). Esparru honetan gertatzen diren erasoak larrienak dira, kontuan hartzen badugu familiak adingabearen garapenean duen garrantzia. Hemen, senideen arteko nagusitasun harremanak funtsezkoak dira gertakarien larritasun-maila baloratzeko.
- **Familiaz kanpoko esparruetan:** familiaren etxetik kanpo ere, adingabeak beste pertsonetik harremanak ditu. Ohikotasunez joaten da eskoletara, haurtzaindegietara, kirol-zentroetara, e.a. Bertan, adingabearen bizi-interesen garapena sustatzen da aldi berean. Halaber esparru hauetan, nahiz eta familian baino hein txikiagoan, garrantzi berezia dauka adingabeen zaintza eta babesaz arduratzen direnen nagusitasun-egoerak.

Adingabeak esparru publikoak erabiltzen ditu ere bai– kaleak, parkeak, zineak, aisia-guneak, dendak–; hauetan ere, hirugarrenen erasoak jasaten ahal ditu inolako mendekotasun-harreman berezirik izan gabe. Kasu hauetan, nagusitasun edo gailentasun astungarriak indar gutxiago du.

5.1.5. Zigor motak

Tratu txar kontzeptua barne hartzen duen egintzen tipologia, Zigor Kodearen arabera, anitza da; izan ere, hemen aurreikusitako bidegabekeriek hainbat eskubidetan izan baitezakete eragina, hala nola, bizitzeko eskubidean, osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidean, askatasunerako eskubidean oro har, eta, sexu-askatasunerako eskubidean bereziki. Baina, ikerketa honen xedea zigor mota zehatzetan, tratamendu berezia eskatzen duten ezaugarriak dituztenetan, oinarrituko dugu. Espetxealdi-zigorarekin zehatuko diren jarduketa hauek Zigor Kodearen sexu-askatasun eta ukigabetasunaren aurkako delituei buruzko VIII. tituluan eta 153. artikuluan biltzen dira. 153. artikulua delituzat jotzen du norbaitek indarkeria fisiko edo psikikoa erabiltzea bere ezkontidearen edo antzeko harremana izan duenaren

aurka, edo berarekin bizi diren edo haren zaintzaren menpe dauden aurrekoen, adingabeen edo ezgaien aurka. Hori guztia, apirilaren 30eko 11/1999 eta ekainaren 9ko 14/1999 Lege Organikoek sartutako aldaketekin bat.

Ez-zilegi penaltzat jotzeaz gain, delitu-multzo honek hainbat ezaugarri espezifiko ditu biktimaren egoeraren, eta delituzko ekintzaren jatorri eta ezaugarrien eraginez, eta, baita zigor-prozesuaren behar bezalako garapenean izaten ahal duen eraginaren ondorioz ere. Hona ezaugarriok funtsean:

- Adingabea delitu-mota hauen balizko biktima izaten ahal denez, bere garapen intelektual, emotibo, sexual eta morala, hala nola, haren behar bezalako sozializazioa larriki kaltetzen ahal dira.
- Adingabeak bere balizko erasotzailearekiko mendekotasun-harreman estuak larriagotzen du egindako kaltea, eta, aurreikusteko modukoa da familia-harremanaren jarraikortasuna, behin zigorra bete eta gero. Honek eramaten gaitu zigorra bermatu beharreko tratamendu globalago baten zatitza jotzera.

Egintza hauek familian ere ondorio larriak eragiten dituzte: etxepeko beste adingabeendako arrisku-egoera; zigorra ezartzearen ondoriozko arazo ekonomikoak; familia-loturen balizko hausturak; hala nola, adingabeari kalte gehiago eraginen lizkioketen beste batzuk.

- Zaila da delitu hauek egin direla egiaztatzea, izan ere, etxearen intimitatean egiten ahal baitira, eta, froga bakarra adingabearen aitorpena da maiz.
- Ondorioz, hartu beharreko babes-neurriak eta egitateak ezartzeko jarraitutako prozesu-jarduketak goian azaldutako inguruabarrei egokitu beharko zaizkie.

Jarraian, goian aipatutako irizpideekin hautatutako delitu-motak zerrendatuko ditugu.

5.1.5.1. Sexu-izaerako delituak

5.1.5.1.1. Sexu-erasoak

Sexu-erasoa gertatzen da norbaitek indarkeriaz edo larderiez beste pertsona baten sexu-askatasunaren aurka atentatzean (178. artikulua), hala nola, hura bortxatzean (179. artikulua).

Delitu hauek larriagotzen dira honako kasuetan: biktima, bere adina dela eta, pertsona ahula denean, eta, edozein kasutan, hamahiru urte baino gutxiago dituenean; nagusitasun- edo senidetasun-harremanez baliatzen denean erantzulea delitua egiteko, odolez edo adopzioz biktimaren aurreko, ondorengo edo neba-arreba izateagatik, edota ezkonsenidetasuna izateagatik (180. artikulua).

5.1.5.1.2. Sexu-abusuak

Sexu-abusuak dira aurreko atalean aipatutako delituzko egintzak, baina, horiek indarkeria, larderia eta adostasunik gabe egiten direnean. Edozein kasutan, adostu gabeko sexu-abusutzat hartuko da hamahiru urte baino gutxiago dutenen aurkakoa. Halaber, adostu gabeko sexu-abusutzat hartuko da erantzuleak adostasuna nagusitasun-egoera nabariaz baliatuz lortzea (181. eta 182. artikulua).

Sexu-abusutzat hartzen dira, engainuaren bidez, aurreko egintza berberak hamahiru urtekoa baino nagusiagoa eta hamaseikoa baino gazteagoa den pertsona bati egiten bazaizkio (183. artikulua).

Kasu guztietan, biktima, bere adina dela eta, pertsona ahula denean, eta hamahiru urte baino gutxiago dituenean, hala nola, erantzulea delitu egiteko nagusitasun- edo senidetasun-harremanez baliatzen denean, delituak larriagotzen dira, sexu-erasoetarako ezarritako kasuetan.

5.1.5.1.3. Sexu-jazarpena

Sexu-jazarpena gertatzen da norbaitek berarentzat edo beste batentzat sexu-mesedeak eskatzen baditu, laneko, irakaskuntzako edo zerbitzu-eskaintzako harreman jarraitu edo ohikoen eremuan, eta jokabide horrekin biktima jartzen badu larderiako, etsaigoko edo umilazioko egoera objektibo eta larrian.

Delitua larriagotzen da, erruduna egitatea gauzatzeko laneko, irakaskuntzako edo hierarkia-nagusitasunaz baliatu bada, hala nola, biktima, bere adina dela eta, bereziki, pertsona ahula denean (184. artikulua).

5.1.5.1.4. Erakuts-zalekeria eta sexu-zirikatzea

Delitu hauek gertatzen dira norbaitek adingabe edo ezgaien aurrean erakuspen-egintza lizunak gauzatzen baditu, edo beste batzuk behartzen baditu egintza horiek gauzatzera (185. artikulua), eta, norbaitek pornografiatzko materiala saldu, hedatu edo erakusten badu (186. artikulua).

5.1.5.1.5. Adingabeen prostituzioa

Delitua da adingabea den pertsona prostituziora induzitu edo hura faboratzea. Delitua larriagotzen da erantzulea, horretarako bere agintaritza-izaeraz edo agintaritza horren agente nahiz funtzionario publiko izateaz baliatzen bada, edota, erruduna jarduera horiek egiten dituen antolakunde edo elkarte baten kide denean (187. artikulua).

Era berean, delitua da indarkeria, larderia edo engainua erabiliz, edota nagusitasun- zein beharrizan-egoeraz baliatuz, pertsona bat prostituzioan jardutera derrigortzea, hala nola, nazio-lurraldean pertsonak sartzea, egotea do irteeta faboratzea, aurreko helburuetarako eta bitarteko berberez baliatuz.

Delitu hau larriagotzen da erruduna bere agintaritza-izaeraz edo agintaritza horren agente nahiz funtzionario publiko izateaz baliatzen denean, edota biktimak adingabeak direnean (188. artikulua).

5.1.5.1.6. Adingabeen prostituzio eta usteltzea

Pornografiako delitutzat jotzen da adingabeak sexu-ikuskizunetarako erabiltzea, eta, pornografiako materiala egin, eduki eta zabaltzea.

Halaber, delitutzat jotzen da adingabeari sexu-izaerako eta horren garapenari kalte egiten dion jokabide batean parte harraraztea, hala nola, adingabearen erantzuleak horren prostituzio- edo usteltze-egoera ez uztea edo ez salatzea (189. artikulua).

5.1.5.2. 153. artikuluko tratu txar delitua

Artikulu honek delitutzat jotzen du norbaitek ohikotasunez indarkeria fisikoa edo psikikoa erabiltzea bere seme-alaben, ezkontidearen seme-alaben edo berarekin bizi diren, edo, beraren nahiz bizikidearen guraso-ahal, tutoretza, kuradoretza edo egitezko zaintzaren menpe dauden seme-alaben aurka.

Ohikotasuna indarkeriazko egintzak errepikatzean oinarritzen da, ageriko emaitza kaltegarriekin edo gabe, eta kontuan hartu gabe egintza beti berbera den edo 153. artikulura bildutako biktima beraren edo ezberdinaren aurka egin den. Delitu hau egin den zehazteko, kontuan hartuko da ere bai, indarkeriazko egintzak aurretik egindako prozesuetan epaitu diren edo ez, 153. artikulua lesio hutsei ezberdina zaien delitu-mota espezifiko bat sortzen baitu: ohiko indarkeria fisiko eta psikikoa.

5.1.6. TRATU TXAR INSTITUZIONALAREN PREBENTZIOA

“Tratu txar instituzionaltzat jotzen da, botere publikoetatik edo horietan aritzen diren profesional edo funtzionarioen beraien jarduketatik eratorritako edozein legeri, programa, prozedura, egite edo ez-egite, baldin eta, haurrekiko abusu edo zabarkeria eragiten badu, edota haurren osasunaren, segurtasunaren, emozio-egoeraren edo behar bezalako heldutasunaren kalterako bada, bai eta haurren oinarritzko eskubideak urratzen baditu ere”.

(Martínez Roig eta Sánchez Marín, Bartzelona 1989).

Tratu txar instituzionala saihestu eta haurren tratu ona sustatzea, haurrei laguntzeko erantzukizuna duten administrazio, eta erakunde publiko zein pribatu guztien zuzeneko eskumena da. Haur edo haurtzaro terminoek 0tik 18 urtera bitarteko pertsonak barne hartuko dituzte, Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean aurreikusten den bezala.

Horregatik, instituzioek emaitzak planifikatu, ebaluatu eta kontrolatzera zuzenduriko informazio-sistemak garatu beharko dituzte, baliabideak sortu eta banatzeko baliagarriak izanen direnak. Halaber, aipatutako ebaluazioa egitea ahalbidetu duten adierazleak sartuko dituzte, eta, era berean, euren eskumen-eremuan tratu txarra prebenitzea ahalbidetu duten kalitate-kontrolak ezarriko dituzte.

Instituzioek zaindu beharko dute euren giza baliabideek beharrezko prestakuntza izatea, euren lana behar bezala gauzatzeko. Era berean, saihestuko dute beharrezko gaitasun profesional edo pertsonalik ez dutenak haurren zerbitzuetan, dagokion instituzioaren menpe, zuzenean zein zeharka aritzea, horrela, profesionalen motibazio-eza edo nekea eragozteko.

Instituzioek haurrei eskaintzen dieten laguntza edo zerbitzua “gizatiartzearen” alde lan egiten dute, eta saiatzeko dira baliabide-emaile huts baino gehiago izaten, kontuan hartu gabe baliabideon hartzaileak nortzuk diren. Haurrak ahulak dira, bereziki, euren garapen ebolutiboa kontuan hartzen ez duten jarduketan aurrean. Horregatik, haurrekiko eta, bereziki, euren pribatutasun nahiz intimitatearekiko errespetua kontuan hartu behar da instituzioen jokabide-kodeetan, horiek betetzeko neurriak ezarriz: kodeok langile guztiek zehatz-

mehatz errespetatu beharko dituzte, bai zuzendaritzakoek bai beste edozein langilek, euren jarduketa profesionalari buruz– alde batera utzita instituzioan bertan egin den edo ez– ezagutzen denaren konfidentzialtasunari dagokionez.

Justizia-administrazioaren esparruan, epaile, fiskal, abokatu eta administrazio-langile guztiek jakin behar dute, euren eginkizunak egikaritzean, haurren gaineko tratu txarra izateko arriskua egoten ahal dela. Hori saihesteko, beharrezkoa da tratu txarrak antzeman eta horiek errepikatzea eragozten duten gainbegiraketa-mekanismoak sortzea.

Bai epaile, fiskal eta abokatuen prestakuntza espezifikokoak bai haurrekin loturiko auziei erantzuteko euren ardura eskusiboak giza eta gizarte-zientzietako profesionalen etengabeko aholkularitza izaten ahal dute eta izan beharko lukete.

Garrantzitsua da Justizia-administrazioak haurtzaroaren izaera ebolutiboa kontuan hartzea. Zentzu honetan, kasuen irtenbidea luzatzea abusu-mota bat izaten ahal da, hazkuntza-aldietako denbora-parametroak helduenenak ez bezalakoak baitira.

Garrantzitsua da ere bai, epai edo/eta epaileen ebazpenetan, lehenetasuna ematea haurren interes gorenari, eta ez haien guraso, tutore edo zordunenari.

Prozedura judizialek osatzen dute adingabearen “*biktimizazio bikoitzaren*” arrisku-eremurik handiena; horregatik, prozedura hauek berrikusi egin beharko lituzkete, balizko abusu-egoerak antzemateko helburuarekin. Saihestu behar dira, bereziki, hitzezko abusuak, etiketak jartzea, galdeketa kivilgarriak, erritualismo eta formalismo ulertezinak, haurra erabiltzea legezko banantze- eta dibortzio-prozesuetan, errugabetasun-presuntzioa ahaztea, adierazpenak errepikatetik eratorritako biktimizazioa, e.a.

Adingabea biktima duten prozesu guztien funtsezko ezaugarriek derrigortzen dute, kasu hauek lehen auzialdian ebazten ahal dituzten familia-epaileen, hala nola, bigarren auzialdian jarduten duten kide anitzeko organo judizialen espezializazioari lehenetasuna ematera; ahaztu gabe, horiei guztiei eta esku hartzen duten gainerako profesionalei– fiskal, abokatu, auzitegi-mediku...– eskatzen ahal zaien prestakuntza. Ildo beretik, beharrezkoa deritzogu organo judizial espezifikokoak eratzeari, mota honetako auziak auzipetzeko.

5.1.7. ESKU-HARTZEA

5.1.7.1. Arrisku-egoerak

Arrisku-egoeren aurrean, gizarte- eta osasun-laguntzan espezializatutako zerbitzuek bere gain hartu beharko lukete lanaren abiapuntua, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuarekiko koordinazioarekin bat.

5.1.7.2. Balizko arrisku-faktoreak

Arrisku-faktore esaten zaie gaixotasun, gertaera edo lesio bat gertatzeko aukera gehiago egotea egiten duten barne- edo kanpo-eragileei edota egoerei.

Ez dakigu zein den haurren tratu txarraren arrazoi zehatza, baina, izaten ahal den tratu txarrean hiru faktorek eragin dute: gurasoen, haurren eta ingurunearen ezaugarriak. Hala ere, argi dago ez dagoela benetan alde zuzenetik iragartzea eragin dezaketen faktorerik ez eta faktore-talderik ere. Baieztatzen ahal dugun gauza bakarra da, faktore hauen elkarrekintzak familian sortzen den tratu txarra izateko arriskua handitzen duela. Faktore hauek honakoek osatzen dituzte:

Haurraren izaera (hiperaktiboa, oso azkarra, gaixo kronikoa, oso zorrotza, e.a. izaten ahal da). Haurrak, oharkabean, tratu txarra egoteko arrisku-egoera handitzen du.

Ingurune-estresa (arazo ekonomikoak, nahi gabeko haurduntzak, dibortzioak, edo familia-presioak).

Tratu txarra egikaritzen duenaren aurrekariak (tratu txarrak jasan zituen, eta uste du tratu txarra ematea jokabideak kontrolatzeko erarik hoberena dela, adingabekoen abusua helduen eskubidea dela, e.a.).

Ikusten ahal dugunez, sindromearen genesisia kausanitzita eta identifikatzen zaila da. Horregatik, gai honetan argi egin diezagukeen bakarra haurra da, sentimendu kontraesankorrek dituen haur-biktima alegia: minduta jasaten duen tratu txarraren ondorioz, baina, tratu txarra ematen diotenenekiko afektiboki lotuta.

Faktore hauek garaiz identifikatzea haurren tratu txarra egoteko arriskuan diren familietan hezkuntza- edo jarraipen-estrategiak garatzera zuzenduta egonen litzateke. Susmorik egotekotan, horiek baieztatzeke tresna benetan baliotsu bilakatzen baitira. Hona arrisku-faktoreak:

5.1.7.2.1. Haurri lotutakoak.

- Nahi gabeko haurrak.
- Ume goiztiarrak edo ospitalean luze egoten direnak.
- Adimen-atzeratasuna edo garun-perlesia dutenak.
- Deformazio fisikoa dutenak.
- Down-en sindromea dutenak.
- Gaixo kronikoak.
- Hiperkinetikoak.
- Garapen psikomotorean iterazioak dituztenak.
- Hiru urte baino gazteagoak direnak.

5.1.7.2.2. Guraso eta familiari lotutakoak.

- Haurrak zirenean gabezia psikoafektiboa edo tratu txarrak jasan zituzten guraso edo zaintzaileak. Estres eta frustrazioarekiko tolerantzia eskasekoak.
- Sozializazio pobre, autoestimu gutxi dutenak.
- Guraso gazte eta heldugabeak.
- Haurrak hezteari buruzko informazio eta esperientzia espezifikorik ez dutenak.
- Familiari krisiak dituztenak, oinarritzko beharren asegabetasuna dela eta.
- Mina ematen duten zigorrak ezartzen dituztenak, heziketa-metodo gisa. Zigorrak ezartzeko edozein tresna-mota erabiltzen duten guraso edo helduek, kontuan hartu gabe seme-alabei eragiten ahal dizkieten kalte fisikoak zein emozionalak.
- Haurren garapenarekiko ezjakintasuna eta haien aurrean igurikimen distorsionatuak sortzen dituzten guraso edo helduak.
- Familiar disfuntzioak daudenean.
- Gurasoen eta seme-alaben arteko harreman-sistema afektiboan alterazioak daudenean. Honek gutxiespena, zaintzen atzerapena, tratu txarrak, haurrarekiko afektu-adierazpen eskasa sortzen du.
- Zabarkeria.
- Aldez aurreko joera faktoreak, ugazaita edo ugazamarekin loturikoak, bereziki.
- Alkohola edo drogak kontsumitzea, buruko gaixotasunak izatea, arazo emozionalak edo nortasunari loturikoak.

5.1.7.2.3. Gizarte-inguruabar, -egoera eta -faktoreei loturikoak.

- Langabezia.
- Eskolatze-maila baxua.
- Pilaketa.

- Desoreka ekonomikoa eta soziala.
- Haurra oztopotzat jotzea, bai aisiako planak egiteko bai hazkuntza pertsonalerako zein ekonomikorako.
- Landa-hiri migrazioak.
- Familia gurutzatuen biktimak diren haurrak.
- Ezegonkortasun politiko eta ekonomikoa.
- Ustelkeria.
- Baloreen galtzea.
- Tratu txarrarekiko gizarte-tolerantzia.

Arrisku-faktoreek euren kabuz tratu txarrera eragiten ez duten arren, helduen tolerantzia-atalasea eragiten edota murrizten ahal dute, haurren berezko adierazpenen aurrean.

5.1.7.3. Abusu edo/eta tratu txarren susmoak

Hauek antzematen dituen erakundeak berehala emanen dio egoeraren berri, idatziz edo horietakoren baten aurrera agertuz, alde batetik, Fiskaltzari edo adingabeen Fiskaltzari, kasuaren arabera, dagokion ikerketa zuzendu eta beharrezko babes-neurriak hartzeko, eta, beste alde batetik, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuari, biktimaren balizko babesgabezia-egoeretan.

Fiskaltzari jakinarazpena egiteak biktimaren aitortpena atzeratu dezake, izan ere, beharrezkoa baita Epaitegiari eginbide judizialak jakinaraztea eta auzitegi-mediku bat izendatzea, ospitalera joan eta aitortpena egiteko (**hala nola, auzitegi-medikuen esleipena, Fiskaltzari**); hori dela eta, egokia dirudi salaketa Epaitegian zuzenean jartzea, bertan fiskalak Epaitegi horren fiskal gisa esku hartuko baitu.

5.1.8. Prozeduraren oinarritzko alderdiak

Hainbat agintarik eta funtzionarioik delituen jazarpenean, oro har, jarraitutako ohiko prozedura eta jarduketetz gain, beharrezkoa da zigor-jokabideetatik eta aipatutako biktimaren adingabe izatetik eratorritako alderdi aipagarri batzuk zehaztea.

5.1.8.1 Epaileen eta Fiskaltzaren berehalako esku-hartze irizpidea

Jurisdikzio-ahalaren egikaritzea epaitegi eta auzitegiei dagokie bakar-bakarrik (EKren 117.3 art. eta Adingabeen gaineko Babes Juridikoari buruzko Legearen 2. art.), eta jurisdikzio penalarri dagokio kausa eta epaiketa kriminalen ezagutza.

Epaileen esku-hartzea berehalakoa da, delitua egin dela jakiten duen unetik beretik. Horrek justifikatzen du bere lehentasunezko papera Administrazio

Publikoen aurrean, legearen aginduz organo judizialei gertakariak argitzen lagundu behar dietenak.

Epailearen berehalako esku-hartze irizpidea are eta zorrotzagoa da Fiskaltzaren babespean eta zaintzapean egon beharreko adingabeak tartean sartzen direnean; Fiskaltzaren esku-hartzea ere berehalakoa izanen da delitua egin dela uste denean. Era berean, kasu hauetan oso zaila da familia-bizikidetzari eragiten ahal dioten kautelazko neurriak hartzea, baldin eta ustezko erasotzailea familiari badagokio eta ezinbestean adingabeaz banandu behar bada.

Ondorioz, Administrazio Publiko batek delitu bat egin dela jakin bezain pronto, hura berehala salatu beharko du epaile, fiskaltza edo polizia eskudunaren aurrean, PZLren 262. artikulua xedatutakoarekin bat, eta, epaile eta fiskaltzak izanen dira ikerketa zuzenduko dutenak, legeak agindu bezala.

Delitua salatzeke zigor-zuzenbidearen nagusitasuna eta Administrazioaren betebeharrak saihestezina direla eta, zigor-arloko epaile eskudunari dagokio adingabeen babeserako beharrezko neurriak zehaztea.


5.1.8.2. Salaketa: berehalakotasuna

Prozedura Kriminaleko Legearen 259. eta 262. artikuluen arabera, hiritar guztien, oro har, eta, euren karguaren ondorioz delitu publiko baten berri duten hiritarren, ezinbesteko betebeharra da, salaketa berehala jartzea epailearen, fiskaltzaren eta, horiek ezean, polizia-funtzionarioen aurrean. Eginbehar hau betetzen ez bada, legeak ezarritako zigor-erantzukizunak edo administrazio-erantzukizunak, funtzionario publikoen kasuan, exijituko dira.

Delitu hauek Administrazio Publiko ezberdinetako funtzionarioek euren kargua egikaritzean antzematen dituzte maiz. Beste batzuetan, gertakarien berri duten eremu pribatuko profesionalak dira delituak antzematen dituztenak. Zentzu honetan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, irakasle eta hezitzaileek oro har, eta osasun-langileek gertakarien lehenengo zuzeneko ezagutza izan ohi dute, adingabeak behatu eta aztertzearen bidez.

Profesional hauek eurek kargua egikaritzean balizko tratu txarren bat antzematen badute, berehala salatu beharko dute, aipatutakoari jarraiki. Halaber, bidezkoak diren datu edo txostenak gehituko dituzte, gero, Administrazioari kasuaren inguruabarrei buruz jakinarazi ahal diotela ahaztu gabe.

JARDUTEKO BALIZKO ESKEMA



5.1.8.3. Adingabearen defentsarako kautelazko neurriak.

Kautelazko neurriak hartzea epaileek aurre egin beharreko arazorik latzenetakoa da; izan ere, adingabearen babeserako egokienak direnak erabakitze orduan, ez baitituzte erabaki ziurra hartzeko ezinbestekoak diren elementu frogagarri guztiak. Hala ere, egoerak behartzen die berehalako pronuntziamentu bat ahokatzera, biktimaren segurtasuna bermatzeko.

Kautelazko neurriak egokienak hartzeko, adingabearen eta honen testuinguruaren hasierako balorazio sakona egin behar da alde aurretik. Egoera larrietan, adingabea erasotzailearengandik banatuko da eta, edozein kasutan, etxe berean bizi diren heldu ez erasotzaileek adingabea babesteko duten gaitasuna eta hari eskaintzen ahal dioten segurtasuna, adingabea bere ohiko bizitokian jarraituko badu, baloratu behar da. Balizko etxebizitza aldaketan kasuetarako, adingabearen babesa bermatuko duten beste senide

egokirik dagoen ikertuko da. Kontuan hartuko da ere bai, ustezko erasotzailearekin kalteturik gertatzen ahal diren adingabe gehiago bizi diren. Horrez gain, haren nortasuna aztertuko da irtenbiderik hoberena aukeratzeko.

Zentzu honetan, Kode Zibilaren 172. artikulua – Administrazioari adingabeak harrera-zentroetan edo antzekoetan emateko ahala esleitzen diona; eta honek haurra familia-etxetik ateratzea eragiten du beti – aurreikusten dituen adingabeen zaintza eta harrera ahalek ez dituzte epaileak kasu bakoitzerako hartutako kautelazko neurriak ordeztu edo baldintzatu behar, epaileari baitagokio adingabearendako egokienak zeintzuk diren erabakitzea.

Horretaz gainera, adingabearen etxe-aldaketatik eratorritako bigarren mailako biktimizazioari aurrea hartzeko ahaleginak eginen dira, neurri hau beste zigor bat izatea saihesteko. Hartu beharreko neurriak aukeratzeko, eraso non gertatu den ere kontuan hartuko da; ez baita gauza bera familia-etxean gertatzea, eskolan gertatzea edo erasotzailea ezezaguna izatea. Hauek jotzen ditugu oinarrizko irizpidetat:

- Adingabea ustezko erasotzailearengandik bereiztea, sexu-erasoen edo larrizat sailkatzen ahal diren bestelako tratu txarren kasuetan.
- Adingabea, ahal dela, bere etxebizitzan geratuko da.
- Subsidiarioki, adingabea haren beharrezko babesa bermatzen duten senideen edo konfiantzazko pertsonen etxera joan da.
- Aurrekoa posible ez bada, adingabea Gizarte Zerbitzuek kudeatutako harrera-zentroetara joan litzateke.
- Bestelako neurri osagarriak: erasotzaileari adingabearen etxebizitzara hurbiltzea debekatzea, lan-jardunaren kautelazko etetea kasu zehatzetan (hezitzaile, lankide erasotzaileak...), eta, oro har, kasu bakoitzaren inguruabarren arabera egoki iriztitakoak.

Neurri egokiak hartu eta horien behar bezalako jarraipena egiteko, kasuaren inguruabar psikosozialak sakonki ikertuko dituzten teknikariak epailearen zuzendaritzapean arituko dira, gertakarien errealitatearen gaineko ezagutza errazteko. Kasu hauetan, garrantzi berezia dauka auzitegi-psikologoak, hasiera-hasieratik, adingabearen ezagutzaz arduratu behar baita.

5.1.8.4. Frogaren praktikari buruzko oinarrizko alderdiak.

Aipatutako delitu gehienak prozedura laburtuaren edo prozedura azkarraren bidez bideratzen dira funtsean. Prozedurok Prozedura Kriminala partez berritzeko urriaren 24ko 38/2002 Legeak aurreikusten ditu, eta arauak 2003ko apirilean indarra hartu zuen. 153. artikuluan aurreikusitako artikulua, zehazki,

prozedura azkar berri honen bidez bideratzen da. Itxarotekoa da prozesu hauek mota honetako delituek eskatzen duten azkartasunaz auzipetzea.

Prozesu guztien hasierako fasean, Polizia judizialak egiaztatzen ditu profesionalen (medikuak, hezitzaileak, gizarte-laguntzaileak...), senideen edo adingabearen beraren salaketaren bidez, hala nola, dagokion poliziaren atestatuaren bidez, aditzera emaniko gertakariak. Polizia judizialari dagokio lortutako frogak fiskal eta epailearen esku jarri, eta bidezkoa ikertzea, egia eta inplikatuaren identitatea argitzeko. Hala ere, fase honetan jada, epaileak adingabearen azterketa egiten du, deusetan galarazi gabe berriro galdeketera deitua izatea; eginbide hauek, hortaz, tratamendu berezia eskatzen dute.

Halaber, garrantzitsua da peritu-froga psikologikoa hartzea testigantzen egitasunari buruzko zalantzak argitzeko bitartekotzat, froga eztaba daezin bakarria biktimaren deklarazioa den kasuetan.

5.1.8.4.1. Adingabearen deklarazioa lekuko gisa. Bere testigantzen sinesgarritasuna.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera, biktimaren deklarazioak erruztatze-froga bakarria osatzen dutenean, inguruabar hauek egiaztatu behar dira:

- Sinesgaiztasun subjektiborik eza: familia- eta gizarte-ingurunearen azterketa zehatzaren bidez egiaztatzen da, gaitzondo-, gorroto- edo mendeku-zioak baztertzeko.
- Testigantzen sinesgarritasuna: horretarako, lekukoak baieztatutakoaren eta errealitate objektiboaren arteko kontrastea egin behar da, deklaraturakoa egiaztatu edo ezeztatze balioko duena.
- Erruztatzearen iraunkortasuna: ez da funtsezko kontraesankortasunik egon behar pertsona batek prozesua baino lehen eta horren bitartean deklaraturakoa artean.
- Kontuan hartuta funtsezko kargu-frogaren aurrean gaudela, kasu batzuetan, jurisprudentzia-betekizun hauek egiaztatze, derrigorrezkoa da adingabeek prozesua baino lehen eta horren bitartean egiten dituzten deklarazioak ahalik eta presiorik gutxienaren pean egitea, hauek era natural eta egiazkoagoan, eta euren ulermen-mailaren arabera adierazi ahal izateko. Horretarako bidezkoa da:

- Adingabearen eta ustezko erasotzailearen arteko erabateko banantze fisikoa, poliziaren bulegoetan bai epaitegietan, larderia egoten ahal dela susmatzen denean.
- Adingabearen deklarazioak horretarako zuzenduriko lekuetan, ohiko bulegoetatik, eta, judizio-aretotik at, bereziki, adingabearen heldutasunik eza behar bezala parte hartzeko oztopo bihurtzen denean. Toki hauetan, ikerketaren hasieratik adingabeaz arduratu zen auzitegi-psikologoarekin egon beharko du, eta, senideak ere egoten ahalko dira, adingabea oso gaztea denean.
- Epaileak edo auzitegi-medikuak eginen dizkiote beti galderak berriro, galderok adingabearen ulermen-mailari egokitu, eta behar ez diren presioak saihesteko, jakingurazko tonuen, adierazpen kikilgarrien, eta abarren bidez sortzen ahal direnak.
- Deklarazio guztiak ikus-entzunezko bitartekoetan grabatuko dira, zigor-prozesuetan exijitzen ahal diren publikotasun, ahozkototasun, hurrentasun eta kontraesanaren printzipioak bermatzeko.

5.1.8.4.2. Peritu-froga

Beste peritu-froga batzuk egitea beharrezkoa izateaz gain, peritu-froga psikologikoa egitea ezinbestekoa izaten ahal da kasu hauetan:

- Adingabearen deklarazioa kargu-froga bakarra denean, auzitegi-psikologoak haren testigantza fidagarritasuna egiaztatu behar du, horretarako dauden froga psikologikoen bidez.
- Prozedura Kriminaleko Legeak espezifikoki eskatzen du, aldez aurreko peritu-txostena, adingabea eta erasotzailea aurrez aurre ez egotea oinarritu, eta aurrez aurreko elkarrizketak saihesteko.
- Profesional hauek erasoak adingabearengan izan dituen ondorio mentalak egiaztatu behar dituzte, sortutako kalteak eta kasuan kasuko tratamendurako beharra zehazteko.
- Jarduketa guztiak, ordena honetan, grabatu behar dira ikus-entzunezko bitartekoetan.

Ezinbestekoa litzateke Administrazio Publikoak psikologo-taldeak aldez aurretik hautatzea, gertakariak ezagutu bezain pronto, adingabearekin harremanetan jarri eta adierazitako egiaztatzeak gauzatzeko, epaitegiaren zuzendaritzapean

peritu gisa esku hartuz. Horrez gain, perituek ahozko epaiketari bere parte-hartzea azaldu, bere zalantzak argitu eta hura lasaituko dute. Eta, prozesuan peritu gisa arituko dira.

5.1.8.4.3. Biktimendako eta erasotzaileendako tratamendua

Biktima guztiek tratamendurik behar ez duten arren, guztiek dute laguntza eta jarraipenerako beharra. Biktima ugariren kasuan, abusua gertakari traumatikoa da, garapenean arazoak eragiten ahal dituen epe laburrean: erregresioak (hala nola, enuresia edo enkopresia), jokabide-arazoak (agresibitatea), arazo emozionalak (gaueko beldurrak, fobiak, e.a.). Epe luzera, bestelako ondorioak izaten ahal ditu, hala nola, sexu-arazoak, agorafobia, erasotzeko aukera handitzea, e.a. Sintomatologia hau, oro har, tratamendu psikologiko egokiaren bidez murrizten ahal da.

Biktimarekin egin beharreko lan hau guztia, eta, hainbat espexetan egiten diren eta sexu-erasotzaileekin eta pedofiloekin esperimendatutako antzeko tratamendu kognitibo-jokabidezkoak, erreferentzia-zentro batean egin behar dira Nafarroan ere, gainerako komunitate autonomoetan bezala.

5.1.8.4.4. Kontuan hartu beharreko beste kontu batzuk

- A) Prozesua epai baten bidez amaitzen denean, zigorra eten daiteke Zigor Kodearen 80. artikuluan aurreikusitako kasuan, hau da, bi urte baino gutxiagoko eta subjektuaren arriskutsutasun kriminala baxua den zigoren kasuan, baldin eta 81. eta 83. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzen badira. Epailleak etetea erabakitzeke, bere iritzia eteteak zigortuarendako eta, bereziki, adingabearendako onura ebaluatzen duten teknikari eskudunen txostenetan oinarritu beharko da. Delitu hauetan, adingabearendako eta bere familia-ingurunearendako egokiak diren zigor-emaizak kontuan hartu behar dira globalki, 83.1.4 artikulua ahalbidetzen dituen aukeren arabera: erasotzailea behartzea haren gizarteratzea errazten duten heziketa-programetan parte hartzea.
- B) Era berean, zigorra ezartzeak ez du esan nahi erasotzaileak ez dituenik bere gain hartu behar adingabeak eta kaltetutako beste pertsona batzuek jarraitu beharreko tratamenduen kostuak.
- C) Ezinbestekoa da subjektu beraren aurkako salaketa eta prozesu guztiak biltzen dituen erregistro judizialaren formalizazioa bermatzea,

epaileak erasotzailearen jokabidea zehatz-mehatz ezagutzeko, eta, horrela, haren ibilbidea baloratu eta egoeraren larritasuna zehaztu ahal izateko.

- D) Administrazio Publikoek adingabeekin harremana izaten ahal duten profesional guztien prestakuntza espezializatua sustatu behar dute, sentsibilizatu eta adingabeekiko erasoen sintomen ezagutza errazteko.
- E) Horretarako, Nafarroako Gobernuak, inplikaturako gainerako Administrazioekin bat, prozesuetan esku hartzen duten profesionalen prestakuntza bultzatuko du, prestakuntza ikastaro diziplinanitzak sistematikoki antolatzearen bidez, euren zereginetan garatuko dituzten arlo espezifikoaren gaineko ezagutzak lortzea ahalbidetuko dietenak.
- F) Alor bakoitzean arituko diren profesionalak esperientzia eta prestakuntza espezializatua egiaztatu beharko dituzte. Zentzu honetan, adingabeen aurkako delituen prozesuetan esku-hartze zuzena duten epaile, fiskal eta auzitegi-psikologoaren espezializazioa planteatu beharko litzateke.
- G) Honi buruz eginiko ikerketek erakusten dutenez, zailtasunik handienetakoak talde disziplinanitzak egon eta horien arteko elkarlanerako beharra, edo inplikaturako profesionalen eginkizun eta erantzukizunen zehaztapen eskasa dira; izan ere, profesionalen ordezteak edo behar bezala ez asetako beharrak gertatzen baitira.

Horregatik, esku hartzen duten profesionalen arteko koordinazio erreal eta eraginkorra komeni dela dirudi: polizia, Gizarte Zerbitzuen oinarritzko lantaldea, oinarritzko laguntza, ospitaleak, Gizarte Zerbitzu espezializatuak, auzitegi-medikuen klinika, fiskalak, epaileak, abokatuak, Adimen Osasuneko Zerbitzuak, Adingabeen lantalde teknikoak, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak, e.a.

5.1.9. Jarduteko protokolo baten beharra adingabeen abusuen arloan

2002. urtean, Nafarroako Arartekoak inplikaturako Administrazioei planteatu zien protokolo bat egiteko komenigarritasuna, etxeko indarkeriari eta adingabeen aurkako eraso edo/eta abusuei loturiko kasuetan jarraitu beharreko prozeduren gaineko irizpide zehatzak eta eraginkorrak ezartzeko taldeka zein banaka.

Proposamena egin eta hilabete gutxira sinatutako Etxeko indarkeriari buruzko protokoloa pausu garrantzitsua izan zen, eta, hari helduko diogu sinatu zutenean planteatutako helburu itxaropentsuak baieztatu edo/eta errealitate aldakorrera egokitzeke.

Adingabeen aurkako sexu-abusuak edo tratu txarrak protokolo honetatik kanpo geratzeak eta behar hau asetzen duen lankidetzako marko administratibo baten gabeziak erabakigarriagoa egiten du Foru Administrazioaren ekimena, etxeko indarkeriari buruz sinatutakoaren garrantzi bera duena, kontuan hartuta victimen ezaugarriak eta abusuen ondorioak, eta dagokion prozeduraren garapenean sortzen ahal diren akatsak.

Agiri honen aurreko kapituluetan Erakunde honek interesgarritzat jotzen dituen oharra jasotzen dira, fidagarritasun handiko gizarte arloko pertsonen, erakundeen eta entitateen lankidetzaren fruitu direnak. Horietan eta eginiko analisi orokorrean oinarrituta, Nafarroako Foru Administrazioari honen inguruko ekimena ahalik eta lasterren bultzatzeko GOMENDIOA egiten zaio, arlo honen gaineko behar eta hutsuneak betetzeko, hala nola, ekimen hori arlo honekin era batera zein bestera lotura zuzena duten Nafarroako administrazio publiko eta profesionalekin bat egiteko. Izan ere, frogatuta baitago arlo honetan hobe funtzionatzen duten komunitateak abusu-kasuetan jarraitu beharreko egituratutako protokoloa dutenak eta abusuen arloan lan egiten duten profesionalak orientatzeko zentro espezializatu bati lotuta daudenak direla.

5.1.10. ERREFERENTZIAK

Bibliografia

- Gironako mugapeko adingabeen aurkako sexu-abusuen eta bestelako tratu txarren gaineko oinarrizko jarduketa-protokoloa. Kataluniako Generalitatea. 2000.
- Hurren tratu txar instituzionalari aurrea hartzeko dekalogoak. Gizarte Laneko Oinarriak, SURGAM aldizkaria, 441/1995 zk..
- Hurren tratu txarren kasuetan jarduteko protokoloa. Murtziako Komunitate Autonomoaren Lan eta Gizarte Politika Kontseilaritza. 2000.
- Etxeko indarkerien aurka jarduteko gida praktikoa. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. 2001.

- Nafarroako Foru Komunitatean arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko plana. 2002
- Sexu-abusuak jasaten dituzten haurrei buruzko txosten nazionala eta prozedura judiziala. «Save the Children» Gobernu Kanpoko Erakundea. 2002.
- Nafarroako Foru Komunitateko adingabeen aurkako sexu-abusuen eta bestelako tratu txarren, eta genero-indarkeriaren gaineko oinarritzko jarduketako-protokoloaren proiektua. Nafarroako Arartekoa. 2002

Kolaborazioak

- Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusia
- Adingabeen babesaz arduratzen den fiskala. TSJN
- Etxeko indarkeriaz arduratzen den fiskala. TSJN
- Iruñea, Tuter, Lizarra eta Tafallako Abokatuen elkargoa.
- Nafarroako Psikologoaren elkargo ofiziala.
- «Save the Children» Gobernu Kanpoko Erakundea.
- Félix Pantoja jauna. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kidea.

5.2. Nafarroako Gobernuaren jarduketak Haurren Eskubideen babesaren gainean, tratu txar edo/eta sexu-abusuei buruzko prozesuetan, Nafarroako Arartekoaren proposamenari erantzunez.

Aurreko **GOMENDIOA** formulatuta, gaiarekin loturiko instituzio eta entitateei igorri zitzairen, haren gaineko ezagutza izan zezaten. Horrez gain, 2003ko otsailaren 5ean, Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari—Erakunde honekiko erlazio-funtzioaz eta Gobernuaren gainerako Departamentuekiko koordinazio-funtzioaz arduratzen dena—, hala nola, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari igorri zitzairen, Nafarroako Gobernuaren jarrera, eta, hala balebekio, zentzu horretan burutuko ziren jarduketak, edo, kontrako kasuan, aipatutako gomendioa ez onartzeko egoki irizitako arrazoiak jakinarazteko, Nafarroako Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 34.2 artikuluan xedatutakoarekin bat.

5.2.1. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren erantzuna

2003ko ekainaren 4an, Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren lehendakariordeak eta kontseilariak erantzuna eman zioten gure proposamenari. Bertan, aipatzen zen Gizarte Ongizateko Zuzendaritza Nagusiak— arlo honetan Barne Zuzendaritza Nagusiarekin bat lan egiten duena— horri buruz jadanik igorritako informazioa. Horrekin bat, hainbat agiri igorri zizkiguten, adierazten denez, Foruzaingoaren arlo honen gaineko jarraibideak, bereziki, jasotzen dutenak; zehazki, honakoak:

- Adingabe edo ezgaiaren arloan jarduteko protokoloa.
- Antzemate goiztiarreko eta jarduteko programaren zirriborroa, eta lehen haurtzaroko buruko patologia latza eta arrisku psikosozial larriaren gaineko jarduketaren gainean, praktikan aplikatzen ari direna dagoeneko.
- Eskoletan tratu txarrak jasaten dituzten adingabeen antzemate, balorazio eta ondorioei buruzko agiria.
- Sexu-abusuak jasaten dituzten adingabeak aztertzekeo jarduketaprotokoloa.
- Babespean dauden adingabeekin jarduteko protokoloa.

Hau da orain arte jasotako informazio guztia gai honi buruz. 2004ko martxoaren 2an, aipatutako Departamentuari idazkia igorri genion berriro. Bertan galdetzen genuen ordura arte jasotako informazioa eguneratzen zuen ekimenik abian jarri zenentz. Hala eta guztiz ere, ez dugu Departamentu horren berririk izan.

5.2.2. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren erantzuna

2003ko ekainaren 4an jaso genuen Nafarroako Gobernuaren Gizarte Ongizate, Gazteria eta Kirol Departamentuaren erantzuna, eta horrekin bat: *“Adingabeenganako abusuen arloan jarduteko protokoloa taxutzeari buruzko txostena”*, Departamentu horren Planifikazio Zerbitzuko zuzendariak egindakoa, hala nola, *“Gizarte-gatazkan dauden adingabeen arloan esku-hartzeko gidaliburuaren”* zirriborroa.

Aipatutako txostenak, zera zioen:

“Gizarte Ongizate Departamentuak, Gizarte egoera zailean dauden haurrak babesteko zerbitzuetako arduradunak, 2001eko azaroan, Nafarroako Foru Komunitatean arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko plana egin zuen eta Nafarroako Gobernuan aurkeztu zion.

Foru Parlamentuak agiria onetsi zuen 2002ko irailean.

Planaren aurretik eginiko lanek aditzera eman zuten Administrazioiko erakunde eta unitate ezberdinen ekintzei buruzko akordioak lortzeko beharra. Are gehiago: oinarritzkoago auziei buruzko akordiorik eza egiaztatu zen, hala nola, tratu txarraren bilakaera, hori baloratu eta hobetzeko pronostikoak ezartzeko tresnak, edo, egoera bakoitzean hartu beharreko neurririk egokienak, kontuan hartuta tratu txar mota, biktimaren adina, familiaren ezaugarriak, e.a.

Aipatutako planean, bi programa aurreikusten dira arazo hauei irtenbidea emateari begira:

- *“Zailtasun sozialeko egoeretan esku hartzeko gidaliburua” taxutzea. Hona, bere lehenengo helburua: “Erakundeen arteko koordinazio-maila handiagoa (bai Haurren babeserako zerbitzu espezifikoaren artean bai hauen eta bestelako administrazioen artean) eta, ondorioz, esku-hartze bizkorragoa eta eraginkorragoa lortzea, arazo sozialeko egoeretan esku-hartzearen fase ezberdinetan inplikaturako agente bakoitzari dagozkion rol, eginkizun eta zereginak argitzearen bidez”.*
- *Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren eta Oinarritzko Laguntzako Gizarte Zerbitzuen, eta gizarte-babeseko bestelako sistemen arteko koordinazio programa, honako helburuekin:*
 1. *“Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren eta Oinarritzko Laguntzako Gizarte Zerbitzuen, eta Hezkuntza, Osasun, Fiskaltza, Epaitegi eta Polizia arloko sistemen arteko koordinazio egokia lortzea, arazo sozialen aurrean esku-hartzeari dagokionez.*
 2. *Sistema horien baliabideak ezarri, eta ahalik eta probetxurik handiena ateratzea, zailtasun sozialeko egoerei aurrea hartu, horiek antzeman eta ikertu-balioetsi, eta horietan esku hartzeari dagokionez.*

3. *Zailtasun sozialeko egoeren aurrean, haur eta gazteen adimen-
osasuneko sare publikoko zerbitzuen arteko koordinazioa mantendu
eta horien ustiapen handiagoa lortzea*”.

*Haur eta nerabeen babes-arloan lehen-mailako zailtasun bat dago, instituzioen
arteko koordinazioari dagokionez, eta hura gainditu behar da, honakoei heldu
baino lehen:*

*Haurren babes-sistemaren ardatz nagusia osatzen duten Gizarte Zerbitzuak
atomizatuta daude, neurri batean, euren erantzukizun instituzionalari
dagokionez. Laguntzako lehen-maila osatzen duten Oinarrizko Gizarte
Zerbitzuak Toki-entitateen (41eko kopurua), eta Nafarroako Gizarte Ongizate
Institutuaren menpe daude.*

*Adierazi bezala, jarduteko irizpideen artean ezberdintasun ugari antzeman
ziren.*

*Horregatik, eta Nafarroako Parlamentuak plana onesti baino lehen, Gizarte
Ongizate Departamentuak “Zailtasun sozialeko egoeratan esku hartzeko
gidaliburua” taxutzeari ekin zion.*

*Helburu hauek dituen protokolo bat, eraginkorra izateko hura aurrera erameneren
duten entitateek eta profesionalak onetsi behar dutenez, taxutze eta
eztabaidatze lanetarako hila bete asko behar izan dira. Adostasun handiz
onetsitako azken agiria ekainaren amierarako izatea, eta, hura aplikatzeko
prestakuntza aurtengo azken hiruhilekoan hastea espero da.*

*Txosten honekin bat agiriaren zirriborroa egun dagoen bezala gehitzen dugu,
gizarte zerbitzuetako eta Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuarekin itundutako
entitateetako profesionalen azken ekarpenak egiteke daudela.*

*Gure ustez, honelako protokolo bat oinarrizkoa zen, batez ere, gizarte
zerbitzuen barne “eremuan” adostasun-maila nahikoko jarduteko protokoloak
egon zitezen.*

*Behin protokolo hau amaitu eta gero, seriotasunarekin eta arrakasta izateko
aukerek heldu ahalko diogu gizarte zerbitzuen eta gainerako babes-sistemen
(ordena publikoko indarrak, osasuna, hezkuntza...) arteko koordinazioa
zehazteari.*

*Hasieran igorritako informazio honen jarraipen gisa, Gizarte Ongizate, Kirol eta
Gazteri Departamentuko zuzendari nagusiak, 2004ko urtarrilaren 22an,
“Nafarroako Foru Komunitatean babesgabezia egoeran dauden haurren arloan*

esku hartzeko gidaliburu” igorri zuen azkenik. Gidaliburu hau bibliografiaz eta 13 eranskinez osatzen da.

Kapituluen egituraketa honakoa da:

1. Haurrak babesteko zerbitzuen esku-hartze esparrua
2. Babesgabezia egoeran dauden haurren arloan esku hartzeko eskumenak
3. Kasuak antzeman, jakinarazi eta horien harrera
4. Ikerketa eta balioespena
5. Erabakiak hartzea eta kasuko plana
6. Kasuko plana abian jarri eta berrikustea, eta espedienteari amaiera ematea
7. Egoitza-harreran esku-hartzea
8. Familia-harrera simple eta iraunkorra
9. Nazioko eta nazioarteko adopzioa
10. Familian esku-hartzeko programa espezializatua

Azkenik, 2004 martxoaren 2an, Nafarroako Gobernuaren Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari gizarte zerbitzuen eta gainerako babes-sistemen (ordena publikoko indarrak, osasuna, hezkuntza...) arteko koordinazioa zehaztera zuzenduriko lanei buruzko informazioa eskatu genion berriro ere, hasierako erantzunean adierazten zen bezala eta aipatutako esku hartzeko gidaliburu egin eta gero. Hori guztia gai honi buruzko informazio eguneratua izan, eta bere garaian eginiko gomendioa betetzeari begira emandako urratsak ezagutzeko asmoz.

2004ko maiatzaren 27an jaso genuen eskatutako informazioa. Zera adierazi zuen aipatutako departamentuko kontseilariak:

“2004ko martxoaren 2an gizarte zerbitzuen eta gainerako babes-sistemen arteko koordinazioa zehaztera zuzenduriko lanei buruzko informazioa eskatzeko igorri zenigun idazkia dela eta, adierazi behar dizut hauek izan dira orain arte eginiko lanak:

- *“Nafarroako Foru Komunitatean babesgabezia egoeran dauden haurren arloan esku hartzeko gidaliburua” igortzea Nafarroako Oinarrizko Gizarte Zerbitzu eta Auzo Unitate guztiei. Gidaliburuan, tratu txar kasuak, hala nola, sexu-abusua, antzeman, jakinarazi eta horien harrera egiteko protokoloak eta jarraibideak jasotzen dira.*
- *Gizarte zerbitzu eta auzo-unitateetako profesionali zuzendutako Gidaliburuaren erabilera hoberenari buruzko Prestakuntza Jardunaldiak egitea. Gidaliburua egin zuen ikerketa-lantaldearen hainbat kidek burutu dute prestakuntza. Saioen edukiaren ardatz nagusia tratu txarren tipologia ezberdinak aztertzean oinarritzen zen. Protokoloak ebazteko adibideak jarri, eta, azkenean, kasu praktiko bat egin zen.*

Saioetan 148 profesionalak parte hartu zuten. Euren balorazioa oso positiboa izan da deialdi-motari, landutako edukiei eta hizlariaren eskumenari dagokienez. Departamentu honen Familiaren Zuzendaritza Nagusiak kontuan hartuko ditu parte-hartzaileek prestakuntza jarraitzeko eginiko proposamenak, eta, Esku hartzeko gidaliburuan lantzen diren alderdi zehatzetan sakonduko da.

- *2004ko maiatzaren 12an, Arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko planaren Jarraipeneko Batzorde Teknikoari deitzea; urtarrilaren 30eko 18/2003 Foru Aginduan xedatutakoarekin bat, honi baitagozkio Nafarroako Foru Komunitatean Arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko planaren jarraipen eta ebaluazio eginkizunak gauzatzea.*

Bileran, gai honetako arlorik gaituenetako langile eta teknikariek parte hartu zuten, ondoko arloetakoak, besteak beste: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Adingabearen Fiskaltza, Foruzaingoaren Laguntza Taldea, Familia-epaitegia, haurren babesaren alde lan egiten duten elkarteak, Familiaren Zuzendaritza Nagusiaren Adingabearen Atala, Adimen Osasuna... e.a. Bertan, Gidaliburua beste talde batzuetara, hala nola, Eskola Orientatzaileenara, zabaltzeko akordioa hartu zen, eta, baita “profesionalak sarean” prestakuntza politika bati ekiteko erabakia ere; izan ere, bileran egon ziren guztien iritziz, prestakuntza mota hau baita tratu txarrak jasaten dituzten adingabeekin lan egiteak barne hartzen dituen fase guztien zorrotasuna eta koordinazioa hoberen bermatzen dituen prestakuntza”.

5.3. Arartekoaren proposamena, Adingabearen gaineko Foru Lege bat taxutzeari buruz. Nafarroako Parlamentuan aurkeztutako agiria.

5.3.1. Sarrera

1989ko azaroaren 20an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena aldarrikatu zuen. Sinatu zuten estatuek konpromiso hauek hartu zituzten: eskubide horiek errespetatu eta horiek betetzea bermatzea, hala nola, eskubide horiek beren barne-araudian sartzea, eta horiek betetzeko nazioarteko lankidetzaren indarra hartzea.

Haurren zaintza eta laguntzarako beharra, euren ahulezia eta helduekiko desberdintasunak direla eta, Hitzarmenak, hura berretsi duten estatuak euren ekintzen erantzule bihurtzen ditu juridikoki. Errokarrik handiena haurren babes-maila handitu eta euren eskubideak bultzatzea da.

Espainiako Konstituzioaren 39. artikulua araberak, umeei nazioarteko itunetan ezarritako babesa izanen dute, eta, botere publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa, hala nola, seme-alaben babes osoa ziurtatu beharko dituzte.

Estatuko esparruaren barne, honakoak ere aipatu behar dira Konstituzioaz gain: Kode Zibila; Prozedura Zibilaren Legea, adopzioari eta adingabeak babesteko beste hainbat erari lotutako arloan; Adingabeen gaineko babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa; Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa; adingabeen eskubideen erabilera arautzen duten gainerako lege organikoak.

Oinarrizko arau hauek garatzeko, hainbat komunitate autonomok, Andaluziak, Aragoiak, Kantabriak, Gaztela eta Leónak, Galiziak, Madrilek, Murtziak edo Valentziak, besteak beste, arlo honi lotutako lege espezifikokoak egin eta onesteari ekin diote.

Egunetik egunera, gizarteak hurrei buruzko diskurtso bikoitzean aurrera egiten du. Alde batetik, gero eta gehiago kezkatzen da oinarrizko eskubideez, hala nola, osasunerako edo hezkuntzarako eskubideez; beste alde batetik, ahaztuta dauzka adingabeen duintasunarekiko errespetua eta horren garrantzia gizarte-eta familia-ingurunean, edo hezkuntzaren oinarrizko printzipioak, hala nola, tolerantzia eta bizikidetasuna.

Nafarroan ez dugu foru-izaerako arau-egitura ordenaturik— gure komunitatean eskuduntza zabaleko arloa—, ez eta adingabearen behar ezberdinak barne hartzen dituenik. Horregatik, Erakunde honek komenigarri deritzo lege-mailako

arau bat egiteari, testu bakar batean sartzeko gaur egun lege mailaren azpitik dauden arau-maila ezberdinetan bildutako arautze guztiak.

5.3.2. Printzipio orokorrak

Gure ustez, foru-araudi honek honako printzipio orokorrak hartu beharko ditu oinarritzat:

1. Lege bidezko arautzea: foru-lege batek arautuko ditu adingabeen eskubideen babesa eta sustatzea, gaur egun lege mailaren azpitik hainbat foru-arautan bildutakoa, estatuko araudian xedatutakoari kalterik egin gabe.

2. Lege honen helburua: haurren eskubideak bermatu eta bultzatzea, eta arrisku eta babesgabezia egoeretan dauden adingabeak babestea juridikoki zein sozialki. Haurrak lagundu eta babestearen inguruko politika integrala taxutzean datza, instituzio ezberdinen baliabideak koordinatzearen bidez, prebentzio-politikak aurrera eramateko, bai orokorrean bai arrisku-egoera zehatzetan, adingabeen behar guztiei erantzunez.

3. Oinarrizko printzipio informaztaileak:

- **Adingabearen interesaren lehentasuna, beste edozein legezko interesen gaineratik,** haren gizarte ongizatea sutatu, eta autonomia, garapen osoa, integrazio familiar eta soziala erraztuz.
- **Adingabeari gizartean aktiboki parte hartzeko gaitasuna aitortzea,** bere iritzia adieraztea sustatu eta erraztuz, eta hori kontuan hartuz, bere gaitasunen arabera, hartzen ahal dituen erabakiak hartzeko garaian.
- **Familia babestea, adingabeekiko dituen erantzukizunak har ditzan,** familia adingabea laguntzeko ingurune nagusia baita, eta, subsidiarioki botere publikoek parte hartuz. Lehentasunez, familia-nukleo honetan esku hartuko da, eta adingabea haren berezko ingurunean mantenduko da, ahal den guztietan.
- **Tolerantzia, elkartasun, errespetu eta bizikidetasun printzipio demokratikoak sustatzea, gizartean nahiz adingabeengan.**
- **Dagokien Administrazio Publikoen jarduketak planifikatu eta koordinatzea,** ekimen integralak lortu ahal izateko.

- **Gizarte-ekimeneko entitateen arteko lankidetzatza sutatzea.**
- **Lehentasuna ematea adingabeen eskubideak sustatu eta defendatzearen aldeko ekimenei,** eta adingabeen esplotazio, tratatu txar, moldatu ezin, marjinazio edo babesgabezia egoerei aurrea hartzeko. Adingabe bakoitzaren beraren inguruabarretara egokituko diren neurriak eta jarduketak.
- **Segurtasun juridikoaren bermea, konfidentzialtasuna eta jarduketaren erreserba.**
- **Gizartea sentsibilizatzea** haurren arazoan gainean.

4. Foru-araudiak barne hartu behar dituen eskubideak: Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean, eta Espainiak berretsitako nazioarteko gainerako itun eta hitzarmenetan jasotakoak eta, bereziki, jaiotza, naziokotasun, etnia, gaixotasun, erlijio edo sexu arazoak direla-eta baztertuta ez izateko eskubidea.

Eskubideak hobe defendatzeko, beharrezkoa izanen da horiez gozatzea bermatzen duten politika integralak egitea, eta adingabeak Administrazio Publikoari babesa eta laguntza eskatzeko duen eskubidea bermatzeko beharrezko bideak ezartzea; hauek baitira eskubideok bermatzeaz eta horien erabilera errazteaz arduratu beharrekoak. Horretarako, babes juridiko eta administratiboaren eraginkortasuna bermatzen duen ekimen egokia lortu beharko dute ahalik eta lasterren.

Beste alde batetik, adingabeak aitorturik dituen eskubideen titulartasun eta erabilerrari loturiko adingabeen eginkizun, betebeharrak eta erantzukizunak ere sartu beharko dira.

Era berean, jarduera zehatzen, hala nola, establezimendu eta ikuskizun publikoen, ikus-entzunezko edo publizitate bitartekoen, telekomunikabideen, edota produktu zehatzen kontsumo eta merkataritzarekin loturiko alderdien debeku, mugatze eta jarduketa partikularrak ezarri beharko dira, euren ondorio negatiboak saihesteko.

Horretarako, balizko ez-betetze eta urratzeak zehapena dagokien arau-hauste gisa tipifikatutako jarrera eta egintzen barne sartuko dira.

Azkenik, beharrezkoa da eskubide hauek zabaltzeko, jakinarazi eta horien gaineko prestakuntza ekintzak ezarri, eta edozein diskriminazio saihestu edo zuzendu, eta berdintasuna sustatzea.

5. Prebentzio jarduketak ezartzea, lehentasunez, adingabeen babesgabezia eta arrisku egoerak saihesteko. Prebentzio neurrien eraginkortasuna honakoari zor zaio: beharren alde aurreko antzemateari, ekimenaren planifikazio, osotasun eta osagarritasunari, koordinazioari eta informazioaren elkartrukatzeari.

- a) Prebentzio neurri hauen barne, ondoko arloetan burutzeko jarduketak sartzan ahal ditugu:
- b) Familia-laguntza
- c) Gizarte- eta aisia-harremanak
- d) Hezkuntza-laguntza
- e) Osasun-laguntza
- f) Heziketa eta enplegua
- g) Haurren eskubideekiko sentsibilizazioa

Azpimarratu behar dugu, prebentzioaren eraginkortasuna bermatzeko, oso garrantzitsua dela hartzailleen behar eta berezitasunen antzemate zehatza, jarduteko gertutasun eta arintasuna, eta neurrien hurbiltasun eta egokitasuna.

6. Babesa, edo esku hartzea Administrazioaren eskutik, haur edo nerabeen arrisku edo babesgabezia egoeretan. Xedea da adingabeen babesgabezia egoerak konpondu eta horien normalizazioa ahalbidetzen duten oinarritzko baldintzak sortzea.

Administrazioaren esku-hartzea arlo honetan, **jarduteko printzipio-eta irizpide**-multzo zehatzean kokatu beharko da, besteak beste, honakoak barne hartuko dituena:

- Adingabearen autonomi, askatasun eta duintasunarekiko begirunea
- Familia-ingurunean jarduteko lehentasuna
- Erabakiak hartzean, bere parte-hartzea aintzakotzat hartzea, bere gaitasunen arabera
- Indibidualizazio eta esku-hartze txikiaren printzipioa
- Araututako eta diziplinarteko prozedurei men egitea
- Uneko neurri eta jarduketan gauzatze eta aldizkako azterketaren jarraipena eta kontrola

- Administrazio Publikoen partaidetza, ekimen eta programen garapenean
- Adingabeen edozein arrisku edo balizko babesgabezia egoera jakinarazi eta salatzeko beharra ezartzea. Betebehar hau gizarte-, osasun- eta hezkuntza-zentro eta -zerbitzuei dagokie, bereziki.

Babes-eremu honen barne **adingabe babestuen eskubide bereziak** sartu beharko lirateke, besteak beste: babestua izateko eskubidea; Administrazioak hartu beharreko neurri eta jarduketei, eta horien iraupena eta edukari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea; aditua izateko eskubidea, hamabi urte baino nagusiagoa bada edo zentzutasun eta gaitasun nahikoak baditu; norberaren autonomiarako eskubidea; behin-betiko integrazio-plan seguru eta egonkorrerako eskubidea; baliabide publikoak lehentasunez erabiltzeko eskubidea; segurtasun juridiko eta emozionalerako eskubidea...

Era berean, beharrezkoa da babesgabezia egoera guztiak ahalik eta zehatzen mugatzea, arlo honetan administrazio-zuhurtziarakotasuna murriztuz. Horrela, **arrisku egoera** kontzeptua definitu behar da, horiek mugatzeko lagungarriak diren katalogo bat egitearen bidez. Administrazioaren esku-hartzea arrisku egoera hauetan, lehenik, horiek baloratzean, bigarrenik, horiek aitortzean, eta, hirugarrenik, adingabeen eskubideen erabilera osoa oztopatzen duten faktore eta inguruabarrak deuseztatu, arindu edo konpentsatzeko neurriak hartzean oinarrituko da.

Segurtasun juridikoa bermatzeko, beharrezkoa litzateke arrisku egoeratzat jotzen denaren arautze zehatza, horren kontzeptua eta **horren aitorpenerako prozedura** egitea, eta **babes-neurriak hartzea**. Prozedura-eremua erregelamenduzko xedapenen arabera da oro har, baina, ukitutako eskubideak eta administrazio-jarduera honek eremu pertsonal eta familiarrean dituen ondorioak direla eta, komenigarria da legezko tratamendua egitea.

Prozedura, hasiera batean, teknikari koordinatzaile bati esleituko zaio; premiazko prozedura bat aurreikusiko da, berehalako erantzuna emateko hainbat kasuri; ikerketak exhaustiboa izan beharko du; esku-sartze prozeduraren minimoki aplikatu beharko da; adingabea entzunen da zentzutasun eta gaitasun nahikoak dituenean, eta, "kasuko plan" bat ezarri, eta haren edukia gauzatu eta aztertuko da.

Azkenik, beharrezkoa izanen da hartzen ahal diren **babes-neurri eta -jarduketan** arautze zehatza, aplikagarria zaien **araubide orokorra**, hala nola, hori aplikatzeko **irizpide nagusiak** sartzea, zeinak saiatuko baitira familiaren osotasuna zaintzen, familiari laguntzen eta banantzeak saihesten, eta banantzerik gertatu bada, batzen saiatzea, baldin eta banatzea eragin zuten arrazoia desagertu badira.

Sustatuko da adingabearen zaintzaren eta familia-harreraren baliabidea, hala nola, egoitza-harrera ordeko baliabide gisa erabiltzea, baliabide egokiagorik ez dagoenean.

7. Gizarte-gatazkan dauden adingabeen jarduketak eta kontzeptua

Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen 5/2000 Lege Organikoa onetsi eta gero, komunitate autonomoek Adingabeen epaileek erabaki irmoz hartutako neurrien egikaritze materialaren arloan baino ez dute eskumenik.

Beraz, arlo hau arautzen duen foru legea araudi orokorraren izaera osagarriko, instrumentaleko edo aplikatzeko jarduketa irizpideak zehaztera mugatuko da, eta bereiztu beharko ditu ingurune irekiko neurriak, askatasungabetzaileak eta ordezkatzailak. Edozelan ere, neurriak egikaritzean, legea hausten duen adingabearen interesak, haren eskubideekiko errespetuak eta horien hezkuntza- eta integrazio-xedeak egon beharko du edozeren gainetik.

8. Administrazio-eskumenen banaketa eta administrazio-lankidetzak

Hainbat Administrazio Publikoren parte-hartzea eskatzen duten arloak direnez, ezinbestekoa litzateke **eskumenak eta eginkizunak Foru Administrazioaren eta Toki-entitateen artean banatzea** administrazio-lankidetzak eta administrazioarteko koordinazioa erraztu, eta jarduketan bikoiztasuna saihestu eta beren eraginkortasuna hobetzeko.

Halaber, komenigarria da **gizarte-ekimena** bultzatzea, behar bezala gaitutako izaera pribatuko entitate kolaboratzaileak sustatzearen bidez- elkarrekin, fundazioak edo behar bezala erregistratutako pertsona juridikoak, adingabeei laguntzeaz arduratzen direnak-.

5.4. Nafarroako Gobernuaren jarduketa, Adingabearen gaineko Foru Lege bat taxutzeari buruz.

Adingabearen gaineko Foru Lege bat taxutzeari buruzko Nafarroako Parlamentuaren proposamen honi lotuta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko taldeak 2004ko maiatzaren 5ean, ezetsi zen **“Haurrentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko Foru Lege proposamena”** aurkeztu zuen. (Azkenean, ez zen aintzakotzat hartu Bozeramaileen Batzordearen 04/05/24ko erabakiaren bidez).

Bere aldetik, orduan Gizarte Ongizate, Kultur eta Kirol Departamentuko kontseilaria zenak Nafarroako Arartekoari idazkia igorri zion, 2004ko otsailaren 5ean, **“2003ko azaroaren 24an igorritako haren idazkiari erantzunez”**, aipatutako Departamentuak eginiko Adingabearen babesari buruzko Foru Lege baten aurreproiektuarekin bat. Argitalpen hau amaitutakoan, Nafarroako Parlamentuan aurkeztu gabe zeuden Aurreproiektu honen **“alderdirik garrantzitsuenak”** ondokoak dira, kontseilariaren arabera:

- 1. Adingabea babesteko lege-esparru batez hornitzen da, babes-sistema moderno eta profesionalizatua arautzen duena, adingabea eskubide-subjektutzat ezezik, horien partaide aktibotzat ere aitortzen duena.*
- 2. Haurren laguntza-modalitateak eta -helburua ezartzen dira.*
- 3. Bi sistema-tipologia zehazten dira, Foru Lege honetako adingabea kokatzen dutenak: arrisku, babesgabezia eta gizarte-gaztaka egoeretan dauden adingabeak barne hartzen dituen babes-sistema.*
Eta, erreforma-sistema, zigor-neurri judizialeko egoeran dauden adingabeak barne hartzen dituena.
- 4. Udalerrien eta foru gobernuaren arteko eskumenen banaketa egiten da, Nafarroako Foru Komunitatearen egungo egoerarekin bat.*
- 5. Adingabearen eskubideak sustatzeko modalitateak, prebentzio-jarduketak, hala nola, erreforma-jarduketa espezifikoak mugatu eta adierazten dira.*
- 6. Adingabeendako zentroen araubidea arautzen da, ibiltzen garen eremu hezigarri eta sozializatzailearen lehentasuna azpimarratuz.*
- 7. Lantalde teknikoa marko juridiko oso eta eguneratuaz hornitzen da, prozedura argi eta ordenatuaz gain, bere lana eraginkortasunez egiteko.*

8. *Gizarte Ongizate Institutuak hartutako erabakiei aurka egiteko epe zehatzak ezartzea planteatzen da; honek segurtasun juridiko handiagoa emanen die tartean sartutako guztiei: adingabeak, teknikariak, familiak, epaitegiak, e.a.*

Era berean, era zehatz eta sakonean garatzen da babesgabezia egoerak aitortu eta egikaritzeko prozedura, babesgabeziaren enkaitze eskabideari loturiko figura berria sartzearekin bat- inguruabar berriak agertzearen ondorioz-, zeinak egungo egoera argitu eta ordenatzen duen.

9. *Azkenik, adingabearen babes-neurri espezifiko gisa, zehapen sistema baten arautzea sustatzen da, Adingabearen babesaren gaineko Foru Legean ezarritakoaren aurkako jarduketan aurrean.*

Aipatutako aurreproiektua adingabearen arloan lan egiten duten edo horrekiko loturaren bat duten instituzio, entitate eta erakunde guztiei igorri zaie, egoki deritzoten alegazio edo iradokizunak aurkezteko”.

Parlamentuaren izapidetzeak Lege-aurreproiektuaren testuan egiten ahal dituen aldaketak oraindik egin gabe daudela, honen edukia erreproduzitzen dugu, kontsultak egiteko erabilgarria iruditzen zaigulako.

6. NAFARROAKO GOBERNUAK AURREIKUSITAKO EKIMENAK HAURTZAROARI DAGOKIONEZ: “NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN ARAZO SOZIALAK DITUZTEN HAUR ETA NERABEEI LAGUNTZEKO PLANA”

Nafarroako Foru Komunitatean arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko plana², Gizarte Ongizate Departamentuak Arartekoari, tratu txarrei buruzko protokoloarekin lotuta emaniko erantzunean aipatutakoa, Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordeak onesti zuten, 2001eko azaroaren 19an eta 2002ko irailaren 17an, hurrenez hurren. Plan honek, sarreran irakurtzen ahal denez, Familiari laguntzeko planean du berehalako erreferentzia, zeinean honen garapena aurreikusten zen. *“Azken batean– sarreran adierazten denez–, planaren oinarria da erantzunak ematea eta haur eta nerabeen babesaz, zentzu zabalean, arduratzea, zehazki, honako haur eta nerabeen babesaz: haien eskubideak errespetatzen ez direnena, tratu txarrak jasaten dituztenena, behar bezalako tratua hartu ez eta arazo sozialak dituztenena, bestelako egoerak bizi eta norberaren beharrei egokitutako programa komunitarioak diseinatu eta ezartzeko arriskuan direnena.”*

Gizarte Ongizateko kontseilariak azpimarratzen zuenez, plan hau *“eragiten dion populazioaren eta horren beharren ezagutzan oinarritzen da. Ondorioz, plan errealista bat da. Oinarri tekniko eta profesionalak ditu, eta unibertsitate-ikerlariak eta Nafarroako Administrazio Publikoetako teknikariak egin dute. Nafarroako Parlamentuko alderdi guztiek onetsi dute ia. Plana gehiengoaren babes eta adostasunari esker onetsi denez, oso sendoa da eta dagoen gizarte-kezkari erantzuten dio”*.

² Nafarroako Foru Komunitatean arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko plana. Nafarroako Gobernuak. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentua. 2002

Aipatutako planaren jarraibideek bertan aurreikusitako jarduketak antolatzen dituzte, zentzu honetan:

1. Haurren beharren ikuspegia
2. Egonkortasuna haurren senideengan eta bizikidetzaren ingurunean
3. Prebentzioa
4. Arazo sozialak dituzten gurasoen familia-babesa, eta laguntza eta tratamendurako beharrak
5. Arazo sozialak dituzten haur eta nerabeen laguntza eta tratamendurako beharrak
6. Baliabideak beharretara egokitzea
7. Haurrak babesteaz arduratzen diren profesionalen gaitze eta egonkortasuna
8. Haurren babesa "sistema" gisa
9. Kalitatea eta eraginkortasuna

Jarduketa hauek honako helburuak dituzte, erreferentzia-agirian deskribatzen direnak:

1. Arazo sozialeko egoeren antzemate goiztiarrerako gaitasuna hobetzea, gizarte-zerbitzuen eta gizarte-babeseko bestelako sistemen oinarritzko laguntzan
2. Gizarte-zerbitzuen oinarritzko laguntzaren esku-hartze goiztiarra hobetzea, bermatutako honako ezarpenen bidez:
 - a) Bigarren mailako prebentzio-programak
 - b) Familian esku-hartzeko programak, haurren babesgabezia egoera ahul eta neurritzkoan
3. Arazo sozialeko egoeretan, ikerketa, balorazio eta erabakiak hartzeari lotutako kalitatea homogeneizatu eta hobetu, gizarte-zerbitzuen oinarritzko laguntzan

4. Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren berezko zein haren menpeko baliabideen, eta haurren eta euren familien beharren arteko egokitasuna handitzea, honako programen funtzionamenduaren hobetzearen eta dibertsifikatzearen bidez:
 - a) Familian esku-hartze espezializatua
 - b) Familia-harrera
 - c) Egoitza-harrera
 - d) Zigor-neurri judizialak dituzten gazteei laguntzea
5. Oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuen eta Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren arteko antolaketa eta koordinazioa hobetzea, arazo sozialeko egoeren esku-hartzearen fase eta lan ezberdinetan, eta bi mailen arteko irizpide homogeenak taxutzea, delako egoeretan erabakiak hartzeari begira
6. Beste sistema batzuen (Hezkuntza, Adimen osasuna, Polizia, e.a.) koordinazioa hobetzea eta baliabideak sartzeari sustatzea, arazo sozialeko egoeren esku-hartzearen fase eta prozesu ezberdinetan.

Plan honetan aurreikusitako programak 2002. urtetik 2006. urtera bitarte kudeatu beharko lirateke, honako kronogramarekin bat:

18. taula
Kronograma
Arazo sozialak
dituzten haurrei
laguntzeko
plana

	2002	2003	2004	2005	2006	
1. "Zailtasun sozialeko egoeretan esku hartzeko gidaliburua" taxutzea	●					Gizarte Ongizatearen Zuzend. Nagusia Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua Toki-entitateak
2. Haurrak babesteko talde espezializatuak sortzea Gizarte Zerbitzuko Zentroetan	●	●	●	●		Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua Toki-entitateak
3. Oinarrizko prebentzioa eta sentsibilizazioa	●	●	●	●	●	Toki-entitateak Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua Osasun Departamentua
4. Arazo sozialak dituzten haur eta gazteen antzematea				●	●	Toki-entitateak Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua Gizarte-babeseko bestelako sistemen oinarrizko laguntzako zerbitzuak
5. Arazo sozialeko egoeretan, ikerketa, balorazio eta erabakiak hartzea, gizarte-zerbitzuen oinarrizko laguntzan	●	●	●	●	●	Toki-entitateak Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua
6. Bigarren mailako prebentzioa eta familian esku-hartzea, gizarte zerbitzuen oinarrizko laguntzan.	●	●	●	●	●	Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua Toki-entitateak
7. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen, Gizarte Zerbitzu Zentroen eta Nafarroako Gizarte Ongizateko Institutuaren arteko koordinazioa. ■ 7a azpiprograma. Kasuen eratorpen-prozesua ■ 7b azpiprograma. Esku hartzeko prozesua		●	●	●	●	Toki-entitateak Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua
8. Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren antolaketa eta esku-hartze prozedura	●	●				Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua
9. Familian esku hartzeko programa espezializatua	●	●	●	●	●	Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua
10. Familia-harrerako programa: ■ 10a azpiprograma. Harrera-familien bilaketa, prestakuntza, aukeraketa eta balorazioa ■ 10b azpiprograma. Harrera-osteko jarraipena eta laguntza		●	●	●	●	Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua
11. Adopzio-programa: ■ 11a azpiprograma. Eskatzen duten familien balorazioa ■ 11b azpiprograma. Familia-integrazio laguntza eta adopzio-osteko jarraipena		●	●	●	●	Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua
12. Egoitza-harrerako programa	●	●	●	●	●	Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua
13. Zigor neurri judizialek dituzten haur eta gazteei laguntzeko programa	●	●	●	●	●	Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua
14. Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren eta oinarrizko laguntzako gizarte-zerbitzuen, eta bestelako babes-sistemen arteko koordinazioa		●	●	●	●	Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua
15. Legegintza-garapena	●	●	●	●		Gizarte Ongizatearen Zuzend. Nagusia Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua
16. Azpiegituren garapena	●	●	●	●	●	Gizarte Ongizatearen Zuzend. Nagusia Toki-entitateak
17. Planaren etengabeko ebaluazioa	●	●	●	●	●	Gizarte Ongizatearen Zuzend. Nagusia Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua

Kronograma honetan jasotako ekimenen artetik, lehendabizikoa, "Zailtasun sozialeko egoeretan esku hartzeko gidaliburua" izenekoa, 2002rako aurreikusitakoa, 2003. urtean argitaratu, eta Erakunde honi 2004ko urtarrilaren 19an igorri zitzaion.

6.1. Dotazio ekonomikoa

Haurrei laguntzeko planean dotazio ekonomikoaren aurreikuspena ere jasotzen da, programa ezberdinak garatzeko aurreikusitakoa:

Jarduteko eremuaren deskribapena	2002	2003	2004	2005	2006
1. Zailtasun sozialeko egoeretan esku hartzeko gidaliburua taxutzea	18,0	18,0	0,0	0,0	0,0
2. Haurrak babesteko talde espezializatuak eratzea, gizarte-zerbitzuetako zentroetan	288,5	306,5	372,6	691,2	691,2
3. Oinarrizko prebentzioa eta sentsibilizazioa	120,2	120,2	360,6	360,6	480,8
4. Arazo sozialak dituzten haur eta nerabeen antzematea	0,0	0,0	0,0	30,1	30,1
5. Arazo sozialeko egoeretan ikertu, baloratu eta erabakiak hartzea, gizarte zerbitzuen oinarrizko laguntzan	60,1	60,1	60,1	60,1	60,1
6. Bigarren mailako prebentzioa eta familian esku-hartze goiztiarra, gizarte zerbitzuen oinarrizko laguntzan	147,2	330,6	522,9	733,2	991,7
8. Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren antolaketa eta esku-hartze prozedura	63,1	78,1	132,2	132,2	126,2
9. Familian esku-hartzeko programa espezializatua	304,7	336,6	396,7	456,8	456,8
10. Familia-harrerako programa	456,8	462,8	450,8	420,7	420,7
11. Adopzio-programa	96,2	105,2	93,2	90,2	90,2
12. Egoitza-harrerako programa	3.521,9	3.524,9	3.524,9	3.521,9	3.521,7
13. Zigor-neurri judizialak dituzten haurrei laguntzea	574,0	637,1	979,6	1.523,6	1.613,7
14. NGOren eta oinarrizko laguntzako gizarte-zerbitzuen, eta bestelako babes-sistemen arteko koordinazioa	15,0	15,0	18,0	18,0	18,0
16. Azpiegiturak	1.202,0	1.292,2	384,6	384,6	432,7
17. Planaren etengabeko ebaluazioa	30,1	30,1	30,1	30,1	30,1
GUZTIRA	6.897,8	7.317,4	7.326,3	8.453,3	8.964,2

7. ADINGABEA NAFARROAKO PARLAMENTUAN

FORU LEGEAK

	Zk.	DATA
<i>10/1991 Foru Legea, martxoaren 16koa, adingabeei alkoholdun edariak kontsumitzea galarazi eta mugatzeari buruzkoa</i>		
NAO	43	1991-04-05
EAO	226	1991-09-20

PLANAK

Nafarroako Foru Komunitatean arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko plana.

Tramitera onartzea	NPAO	122	2001-12-04
Gizarte Gaietako Batzordeak onetsia	NPAO	95	2002-10-15

ERABAKIAK

Haurrak kalean eskean erabiltzea saihesteko neurriak hartzeari buruzko erabakia

NPAO	15	1986-03-25
------	----	------------

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren urteurrenari buruzko erabakia.

Osoko Bilkuren Bilkura Egunkaria 18 1992-02-05

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hurrei buruzko lege bat egin dezan.

NPAO 28 2000-03-31

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da minbizia duten haurren laguntzaren arloan neurriak har ditzan.

NPAO 30 2002-03-21

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeenganako sexu-abusu eta tratu txarren arloan jarduteko prozeduren protokoloa taxu dezan.

NPAO 39 2003-04-03

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeenganako sexu-abusu eta tratu txarren jarraipenari eta arretari buruzko jarduketaren protokoloa taxu dezan.

NPAO 39 2003-04-03

ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen politikoa: haurrak eta gatazka armatuak

Osoko Bilkurak berretsia NPAO 83 1998-10-29

Minbizia duten haurren eguna dela-eta egindako manifestuari atxikitzeko adierazpen politikoa.

Eledunen Batzarrak onetsia NPAO 129 2001-12-02

Adierazpen politikoa, haurren eta haren etorkizunaren aldekoa

Eledunen Batzarrak onetsia	NPAO	104	2002-11-04
----------------------------	------	-----	------------

IDATZIZKO GALDERAK

Galdera, "Hirugarrendar Kaputxinoekin" portaera arazoak dituzten adingabeen tratamenduaren arloan sinatutako hitzarmenari buruzkoa.

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua
(IUN-NEB) Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	44	1993-11-10
--------------------	------	----	------------

Idatzizko erantzuna	NPAO	52	1993-12-17
---------------------	------	----	------------

Galdera, haur eta gazteen adimen osasunari buruzkoa.

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua
(IUN-NEB) Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	24	1995-12-01
--------------------	------	----	------------

Idatzizko erantzuna	NPAO	2	1996-01-12
---------------------	------	---	------------

Galdera, Ilundaingo Aritz Berriko Granja Eskolan ematen den modulu bereziari buruzkoa.

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua
(IUN-NEB) Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	73	1997-11-10
--------------------	------	----	------------

Idatzizko erantzuna	NPAO	56	1998-07-22
---------------------	------	----	------------

Galdera, Nafarroako gobernuaren babesean dauden nerabeei buruzkoa.

Nafarroako Demokraten Elkargunea (CDN) Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	68	1996-12-14
--------------------	------	----	------------

Idatzizko erantzuna	NPAO	14	1997-02-28
---------------------	------	----	------------

Galdera, Nafarroako gobernuaren babesean dauden nerabeei buruzkoa.

Nafarroako Demokraten Elkargunea (CDN) Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	25	1998-04-14
--------------------	------	----	------------

Idatzizko erantzuna	NPAO	33	1999-05-03
---------------------	------	----	------------

Galdera, legez kanpoko etorkinen seme-alabei osasun-laguntzari buruzkoa.

Parlamentuko Talde Mistoak egina

Tramitera onartzea	NPAO	7	1999-02-08
--------------------	------	---	------------

Idatzizko erantzuna	NPAO	57	1999-06-15
---------------------	------	----	------------

Galdera, haur etorkinen galderari buruzkoa

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua (IUN-NEB) Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	11	1999-02-22
--------------------	------	----	------------

Idatzizko erantzuna	NPAO	58	1999-06-16
---------------------	------	----	------------

Galdera, adingabeei alkohola saltzea eta horiek alkohola edateari buruzkoa.

*Nafarroako Demokraten Elkargunea (CDN)
Parlamentuko Taldeak egina*

Tramitera onartzea	NPAO	28	1999-12-20
Idatzizko erantzuna	NPAO	15	2000-02-11

Galdera, adimen-osasuneko sarean artatutako 18 urtetik beherakoei buruzkoa.

*Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua
(IUN-NEB) Parlamentuko Taldeak egina*

Tramitera onartzea	NPAO	34	2000-04-17
Idatzizko erantzuna	NPAO	63	2000-08-10

Galdera, ezgaitasun fisikoren batek jotako eta fisioterapia tratamendua behar duten haurren eskolatzeari buruzkoa

*Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua
(IUN-NEB) Parlamentuko Taldeak egina*

Tramitera onartzea	NPAO	34	2000-04-17
Idatzizko erantzuna	NPAO	63	2000-08-10

Galdera, Adingabeen Legeak abian jartzeak dakarren kostuari buruzkoa.

*Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua
(IUN-NEB) Parlamentuko Taldeak egina*

Tramitera onartzea	NPAO	10	2001-02-07
Idatzizko erantzuna	NPAO	95	2001-09-28

*Galdera, Adingabeen erantzukizun penalar buruzko
Legea aplikatzeko hartuko diren neurriei buruzkoa.*

Nafarroako Demokraten Elkargunea (CDN)
Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	10	2001-02-07
Idatzizko erantzuna	NPAO	104	2001-10-17

*Galdera, haur gorrekin hezkuntza-arloan eginikoari
buruzkoa.*

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN)
Parlamentuko Taldeak eginikoa

Tramitera onartzea	NPAO	40	2001-04-10
Idatzizko erantzuna	NPAO	113	2001-11-07

*Galdera, mugitzeko ezgaitasuna izan eta
errehabilitazioa behar duten haurren tratamenduari
buruz Arartekoak emandako gomendioari buruzkoa.*

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN)
Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	16	2003-02-24
--------------------	------	----	------------

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko
erabakia bete al zen jakiteko: "Nafarroako Gobernu
premiatzen da minbizia duten haurrendako laguntzaren
arloan neurriak har ditzan".

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN)
Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	76	2002-07-22
Idatzizko erantzuna	NPAO	49	2003-05-12

Galdera, minbizia duten haurrei buruzkoa.

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua
(IUN-NEB) Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	96	2001-10-01
--------------------	------	----	------------

Idatzizko erantzuna	NPAO	81	2002-08-21
---------------------	------	----	------------

*Galdera, 2 urtetik beheitiko haurrei pneumokokoaren
aurkako txertoa jartzeari buruzkoa*

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN)
Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	18	2003-11-10
--------------------	------	----	------------

Idatzizko erantzuna	NPAO	9	2004-02-11
---------------------	------	---	------------

*Galdera, tabernetan eta diskoteketan alkoholaren
salmenta kontrolatzeri buruzkoa.*

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN)
Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	10	2004-02-16
--------------------	------	----	------------

*Galdera, Petö metodoaren tratamendua jasotzen duten
haurrentzako laguntzei buruzkoa.*

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN)
Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	18	2004-03-09
--------------------	------	----	------------

*Galdera, garun-perlesia izan eta Bobath tratamendua
jasotzen duten haurrei buruzkoa.*

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN)
Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	18	2004-03-09
--------------------	------	----	------------

*Galdera, garun-perlesia duten haurrek
hezkuntza-sisteman sartzen direnean jasotzen duten
fisioterapia tratamenduari buruzkoa.*

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN)
Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	18	2004-03-09
--------------------	------	----	------------

*Galdera, Asociación Nuevo Futuro-k nazioarteko
adopzioetan egiten duen kudeaketari buruzkoa.*

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN)
Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	18	2004-03-09
--------------------	------	----	------------

*Galdera, adopzio nazionalei eta nazioartekoei
buruzkoa.*

Aralar Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	22	2004-03-22
--------------------	------	----	------------

Galdera, adingabeak hartzeko programei buruzkoa.

Aralar Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	22	2004-03-22
--------------------	------	----	------------

GOBERNUAREN AGERTZEAK BATZORDEETARA

*Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria
Gizarte Gaietako Batzordera agertu zen, adingabeei
zigor-neurriak aplikatzeari buruz informatzeko.*

Eledunen Batzarra

Agertzearen data	2000-09-29
------------------	------------

Osasun kontseilaria agerraldia Osasun Batzordera agertu zen, garun-lesioak dituzten haurren fisioterapia tratamenduei buruz informatzeko.

Eledunen Batzarra

Agertzearen data

2002-05-22

LAN BATZARRALDIAK

Lan batzarraldia Hezkuntzan Integratzearen aldeko elkarteen ordezkariarekin, Nafarroako haurrak hezkuntzan integratzeko prozesua jarraitzeko problematikari buruz informatzeko.

Eledunen Batzarra

Agertzearen data

1993-06-28

Lan batzarraldia Justizia Auzitegi Nagusiko Lehendakariarekin eta Psikologoek Elkargoarekin, txarrak jasaten dituzten adingabeekin lan egiten duten instituzioei buruz informatzeko.

Eledunen Batzarra

Agertzearen data

2003-02-13

LAN BATZARRALDIAK

Mozioa, haurrak kalean eskean erabiltzean oinarritutako esplotazioari buruzkoa.

Parlamentuko Talde Popularrak egina

Tramitera onartzea

NPAO

1986-02-25

Onetsia

NPAO

1986-03-18

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hurrei buruzko lege bat egin dezan.

Nafarroako Demokraten Taldea (CDN) Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	16	2000-02-14
Onetsia	NPAO	18	2000-03-31

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruzko eskualdeko plana egin dezan.

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN) Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	61	2001-06-04
Onetsia	NPAO	110	2001-10-31

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeenganako sexu-abusu eta tratu txarren jarraipenari eta arretari buruzko jarduketaren protokoloa taxu dezan.

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua (IUN-NEB) Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea		16	2003-02-24
Onetsia		39	2003-04-03

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeenganako sexu-abusu eta tratu txarren arloan jarduteko prozeduren protokoloa taxu dezan.

Parlamentuko Talde Mistoak egina

Tramitera onartzea		16	2003-02-24
Onetsia		39	2003-04-03

PARLAMENTUAREN EKIMENAK: TRAMITERA EZ ONARTUTAKO LEGE PROPOSAMENAK, ERRETIRATUTAKO MOZIOAK

FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, haurrentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzkoa.

Socialistas del Parlamento de Navarra (PSN)
Parlamentuko Taldeak egina

Onetsia	NPAO	38	2004-05-05
Tramitera ez onartua	NPAO	46	2004-05-31

MOZIOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gudetan adingabeak erabiltzea salatzen du.

EA-PNV Parlamentuko Taldeak egina

Tramitera onartzea	NPAO	29	2002-03-18
Erretiratua	NPAO	64	2002-06-10

8. HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO LEGE- ERREFERENTZIAK

EXISTITZEN DIREN EKIMENAK

- **Andaluzia:**

1/1998 Legea, apirilaren 20koa, Adingabeen eskubideei eta haiei laguntzeari buruzkoa (1998ko maiatzaren 12ko Andaluziako Batzordearen Aldizkari Ofiziala, 53.zk. - 5.590. or.-) (1998ko ekainaren 24ko EAO, 150. zk.-20.689. or.-)

- **Gaztela eta León:**

14/2002 Legea, uztailaren 25ekoa, Gaztela eta Leónen haurrentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzkoa.

(2002ko uztailaren 29ko Gaztela eta Leóngo Aldizkari Ofiziala, 145. zk. -gehigarria, 2. or.-) (2002ko abuztuaren 17ko EAO, 197. zk. - 30.657. or.-)

